

**SAMSUNG**

SM-G900F

# Erabiltzailearen eskuliburua

**Euskaltelek itzultako eta  
ekoiztutako eskuliburua**



[www.samsung.com](http://www.samsung.com)

# Edukia

## Hasi aurretik, irakurri informazio hau

### Hasteko

- 8 Gailuaren diseinua
- 10 Botoiak
- 11 Kaxaren edukia
- 12 SIM edo USIM txartela eta bateria sartzea
- 15 Bateria kargatzea
- 18 Memoria-txartel bat sartzea
- 20 Gailua piztea eta itzaltzea
- 20 Gailuari eustea
- 21 Gailua blokeatzea eta desblokeatzea

### Oinarrizko kontzeptuak

- 22 Ukipen-pantaila erabiltzea
- 25 Jakinarazpen-ikonoak
- 26 Jakinarazpen-panela eta doikuntza azkarren panela
- 30 Pantaila nagusia eta aplikazioak
- 34 Aplikazioak irekitzea
- 34 Aplikazioak instalatzea edo desinstalatzea
- 36 Testua idaztea
- 39 Energia aurrezteko funtzioa erabiltzea
- 41 Laguntza-informaziora sartzea

### Pertsonalizatzea

- 42 Modu errazera aldatzea
- 42 Pantaila nagusia eta aplikazioak administratzea
- 45 Pantaila blokeatzeko funtzioa aldatzea
- 46 Pantaila-atzealde bat zehaztea
- 46 Melodia aldatzea
- 47 Kontuak konfiguratzea
- 47 Kontaktuak beste gailu batzuetatik zurera ekartzea

### Sare-konektagarritasuna

- 49 Sare batera konektatzea
- 49 WiFi sare batera konektatzea
- 51 Deskargak optimizatzeko funtzioa erabiltzea
- 51 Smart network etengailua erabiltzea
- 52 Ainguratze-gailuak eta WiFi eremu eramangarriak

### Mugimenduak eta irisgarritasun-funtzioak

- 54 Kontrol-mugimenduak
- 58 Air view
- 58 Multi window
- 63 Erreminta-kaxa

- 64 Esku bakarrarekin erabiltzea
- 65 Ukipen-pantailaren sentsibilitatea handitzea

## Telefonoa

- 66 Deiak egitea
- 69 Deiak jasotzea
- 70 Dei bat martxan dela

## Kontaktuak

- 72 Kontaktuak gehitzea
- 73 Kontaktuak administratzea

## Mezuak eta posta elektronikoa

- 76 Mezuak
- 79 Posta elektronikoa
- 81 Google Mail

## Kamera

- 83 Argazkiak edo bideoak egitea
- 85 HDR efektua erabiltzea (tonu aberatsak)
- 85 Fokuratze selektiboaren modua erabiltzea
- 87 Kamera martxan jartzea pantaila blokeatuan
- 87 Argazkia ateratzeko modua erabiltzea
- 88 Argazkia ateratzeko modua erabiltzea eta beste zenbait
- 90 Kamera dualaren modua erabiltzea
- 91 Ibilbide birtualaren modua erabiltzea
- 93 Iragazki-efektuak aplikatzea
- 93 Zoomaren funtzioa erabiltzea
- 94 Urruneko bisorearen modua erabiltzea
- 95 Kameraren doikuntzak aldatzea

## Galeria

- 98 Gailuan edukia ikustea
- 100 Gailuan edukia aldatzea
- 102 Aukera gehigarrietara sartzea
- 102 Aurpegiak etiketatzea
- 103 Tag Buddy erabiltzea

## Internet eta sare sozialak

- 104 Internet
- 105 Chrome
- 106 Hangouts
- 106 ChatON

## S Health

- 108 S Healthi buruz
- 109 S Health erabiltzen hasia
- 110 S Healthen pantaila nagusia pertsonalizatzea
- 111 S Healthen menuak erabiltzea
- 112 Pauso-kopurua neurtzea
- 114 Ariketen datuak erregistratzea
- 121 Jandako elikagaiak erregistratzea
- 123 Menu gehigarriak erabiltzea
- 124 S Healthen doikuntzak konfiguratzeko

## Ahots-funtzioak

- 126 S Voice
- 128 Grabagailua
- 130 Ahots bidezko bilaketa
- 131 Auto-modua

## Multimedia

- 139 Musika
- 142 Bideoa
- 144 YouTube
- 145 Flipboard
- 145 Google+
- 145 Argazkiak
- 146 Play Games
- 146 Play Music
- 146 Play Kiosco

## Segurtasuna

- 147 Hatz-eskanerra
- 151 Modu pribatua

## Segurtasuna

- 153 Larrialdi-modua
- 155 Laguntza-mezuak bidaltzea
- 156 Muturreko eguraldiगतिको jakinarazpena (albiste geografikoak)

## Tresnak

- 158 S Finder
- 159 Egutegia
- 162 Kalkulagailua
- 162 Erlojua
- 164 Drive
- 164 Dropbox
- 165 Google
- 166 Umeentzako modua

- 169 Lupa
- 170 Mapak
- 170 Oharrak
- 171 Nire fitxategiak
- 173 Linterna

## Beste gailu batzuekin konektatzea

- 174 NFC
- 176 Bluetootha
- 179 S Beam
- 180 Konexio azkarra
- 184 Smart Remote
- 187 Screen Mirroring
- 189 Mugikorreko inprimaketako funtzioa erabiltzea

## Gailuaren eta datuen administratzailea

- 190 Gailua eguneratzea
- 191 Fitxategiak transferitzea telefonoaren eta ordenagailuaren artean
- 192 Segurtasun-kopiak egitea edo datuak berrezartzea
- 193 Datuak berrezartzea

## Doikuntzak

- 194 Doikuntzei buruz
- 194 DOIKUNTZA AZKARRAK
- 194 SAREKO KONEXIOAK
- 199 KONEKTATZEA ETA PARTEKATZEA
- 200 SOINUA ETA PANTAILA
- 204 PERTSONALIZAZIOA

- 206 MUGIMENDUA
- 207 SINKRONIZAZIOA ETA SEGURTASUN-KOPIA
- 208 SISTEMA
- 215 APLIKAZIOAK
- 222 GOOGLEREN DOIKUNTZAK

## Arazoak konpontzea

### Irisgarritasuna

- 223 Irisgarritasuna
- 224 Erabili hasierako botoia irisgarritasun-menuak irekitzeko
- 224 TalkBack
- 236 Letra-tipoaren tamaina aldatzea
- 236 Pantaila handitzea
- 236 Jakinarazpenen gogorazpenak zehaztea
- 237 Pantailaren koloreak alderantzikatzea
- 237 Kolorea doitzea
- 238 Flasharen jakinarazpena konfiguratzea
- 238 Soinu guztiak desaktibatzea
- 238 Azpтитuluen doikuntzak pertsonalizatzea
- 239 Soinuaren balantzea doitzea
- 239 Audio monofonikoa erabiltzea
- 239 Umeen negarraren detektagailua erabiltzea
- 240 Bibrazio automatiko bidezko erantzuna erabiltzea
- 240 Laguntza-menuak erabiltzea
- 242 Pantaila piztea Air gesture funtzioarekin
- 242 Smart Scroll funtzioa erabiltzea
- 243 Sakatzeko aukerak konfiguratzea
- 243 Interakzio-kontrolako modua erabiltzea
- 244 Deiak erantzutea edo bukatzea
- 244 Sakatze sinplearen modua erabiltzea
- 244 Irisgarritasun-doikuntzak konfiguratzea
- 246 Beste funtzio baliagarri batzuk erabiltzea

# Hasi aurretik, irakurri informazio hau

Gailu honek azken estandarretan eta Samsungen esperientzia teknologikoan oinarritutako komunikazio mugikorra eta multimedia-zerbitzuak eskaintzen ditu. Erabiltzailearen eskuliburu hau eta [www.samsung.com](http://www.samsung.com)-en eskuragarri dagoen informazioak gailuaren funtzioei buruzko xehetasunak dituzte.

- Gailua erabiltzen hasi aurretik, irakurri eskuliburu hau, erabilera zuzena eta segurua bermatzeko.
- Deskribapenak gailuaren aurrez zehaztutako doikuntzei buruzkoak dira.
- Baliteke eskuliburu honetako eduki batzuk eta gailuarenak bat ez etortzea, zerbitzu-hornitzailearen edo gailuaren softwarearen arabera.
- CPUaren eta RAM memoriaren erabilera handia eskatzen duten edukiek (kalitate handiko edukia) gailuaren errendimendu orokorrari eragiten diote. Baliteke edukari lotutako aplikazioek behar bezala ez funtzionatzea, gailuaren zehaztapenen eta erabiltzen den inguruaren arabera.
- Samsungek ez du bere gain hartzen bera ez den hornitzaile baten aplikazioek eragindako errendimendu-arazoak erantzukizunik.
- Samsungek ez du bere gain hartzen erregistro-doikuntzak editatzeagatik edo sistema eragilearen softwarea aldatzeagatik sortzen diren errendimendu-arazoak erantzukizunik. Sistema eragilea pertsonalizatzen saiatuz gero, baliteke gailuak edo aplikazioek ondo ez funtzionatzea.
- Softwareak, soinu-iturriek, pantaila-atzealdeek, irudiek eta gailuarekin batera datozen gainerako multimedia-edukiek erabilera-lizentzia mugatua dute. Material horiek helburu komertzialekin edo beste helburu batzuekin erabiltzea egile-eskubideen legeak urratzea da. Erabiltzaileak guztiz erantzule dira multimedia-baliabideak legez kanpo erabiltzen badituzte.
- Gerta liteke gastu gehigarriak izatea datu-zerbitzu hauek erabiltzeagatik, besteak beste: mezuak, kargatzea eta deskargatzea, sinkronizazio automatikoa edo kokapen-zerbitzuak. Kargu gehigarriak ez izateko, hautatu datu-plan egoki bat. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.
- Gailuarekin datozen aplikazio lehenetsiak eguneratu egin litezke, eta baliteke bateragarri izateari uztea, aurrez jakinarazi gabe. Gailuak dakarren aplikazioaren batekin zalantzaren bat badaukazu, jakinarazi Samsungeko zerbitzu-zentro bati. Erabiltzaileak instalatutako aplikazioen kasuan, berriz, jakinarazi dagokion zerbitzu-hornitzaileari.
- Gailuaren sistema eragilea aldatzen baduzu edo iturri ez-ofizialeko softwarea instalatzen baduzu, baliteke gailuak ondo ez funtzionatzea eta datuak kaltetzea edo galtzea. Hori eginez gero, Samsungekiko lizentzia-hitzarmena urratzen da, eta bermea ezeztatuta geratzen da.

## Jakinarazpen-ikonoak



**Abisua.** Zu zeu edo beste pertsona batzuk kaltetu ditzaketen egoerak.





**Kontuz.** Zure gailua edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak.



**Oharra.** Oharrak, erabilera-gomendioak edo informazio gehigarria.

# Hasteko

## Gailuaren diseinua







- Ez estali antena eskuekin edo beste objekturen batekin. Baliteke konektagarritasun-arazoak eragitea edo bateria agortzea.
- Ez erabili pantaila-babeslerik. Sentsoreko hutsegiteak eragiten ditu.




## Urarekiko eta hautsarekiko erresistentzia mantentzea


Baliteke gailuak kalteren bat izatea ura edo hautsa sartzen bazaio. Bete iradokizun hauek kontu handiz gailuak kalterik izan ez dezan eta hautsarekiko eta urarekiko erresistentzia mantendu dezan.

- Ez sartu gailua uretan, 1 m-tik gorako sakoneran, eta ez eduki urpean 30 minutuan baino gehiagoan.
- Ziurtatu atzealdeko estalkiak eta funtzio ugaritarako larakoa irmo itxita daudela. Bestela, baliteke ez babestea gailua uraren eta hautsaren aurrean.
- Ez sartu gailua uretan denbora luzez.
- Ez jarri gailua **ura mugitzen** ari den lekuetan: iturriko ura, itsasoko olatuak edota ur-jauzi bat, esaterako.
- Ez ireki gailuaren estalkiak gailua urpean edo leku oso hezeetan badago (igerilekuak edo bainugelak, adibidez).
- Ez ireki atzealdeko estalkia esku bustiekin edo gailua bustita badago.
- **Atzealdeko taparen inguruko gomazko zigilua** gailuaren parte garrantzitsu bat da. Kontuz ireki eta itxi atzeko estalkia, gomazko zigiluari kalterik ez egiteko. Gainera, ziurtatu gomazko zigiluak ez duela hondakinik (hondarra, hautsa), gailuak kalterik izan ez dezan.
- Ez kendu gailuaren funtzio ugaritarako larakoaren estalkia.
- **Gailua ur freskotan egon bada, lehortu kontu handiz zapi garbi eta leun batekin. Ur hotza ez den beste likidoren batean egon bada gailua, busti ur freskoarekin berehala, eta lehortu kontu handiz, zapi garbi eta leun batekin. Jarraibideetan adierazi bezala gailua ur freskoarekin busti eta gero lehortzen ez baduzu, baliteke eragiketa-erroreak edo akats estetikoak izatea.**
- **Gailua erortzen bazaizu edo kolperen bat hartzen badu**, baliteke atzeko estalkia eta funtzio ugariko larakoarena lasaitzea. Ziurtatu estalki guztiak ondo lerrokatuta eta itxita daudela.

- **Gailua uretan sartu baduzu edo mikrofonoa edo bozgorailua bustita badaude**, baliteke deietan soinua argi ez entzutea. Ziurtatu mikrofonoa eta bozgorailua garbi eta lehor daudela, zapi lehor batekin garbituta.
- Gailuak urari eusteko diseinua duenez, zenbait kondiziotan bibrazio suabe bat egingo du. Halako bibrazioak (adibidez, bolumen altua dagoenean egiten dituenak) ohikoak dira, eta ez diote eragiten gailuaren errendimenduari.
- Baliteke ukipen-pantaila eta gainerako funtzioak ondo ez ibiltzea **gailua uretan edo beste likido batzuetan sartuz gero**.
- Gailuari zenbait proba egin zaizkio giro kontrolatuan, eta frogatu da urari eta hautsari eusten diela egoera jakin batzuetan (IP67 sailkapen-irizpideak betetzen ditu, IEC 60529 nazioartean deskribatzen denari jarraikiz, karkasen babes-graduari dagokionez [IP kodea]; probaren baldintzak: 15-35 °C, 86-106 kPa, 1 metro, 30 minutu). Sailkapen hori eskuratu duen arren, gailuak ez die eusten urak egoera guztietan eragiten dituen kalteei.

## Botoiak

Botoia	Funtzioa
 <b>Pizteko botoia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Luze sakatu telefonoa pizteko eta itzaltzeko.</li> <li>• Sakatu teklatua blokeatzeko edo desblokeatzeko. Ukipen-pantaila itzaltzen denean, gailua blokeo-moduan geratzen da.</li> </ul>
 <b>Azkena erabilitako aplikazioak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ukitu hau aplikazio-zerrenda irekitzeko.</li> <li>• Luze sakatu uneko pantailako aukera gehigarrietara sartzeko.</li> </ul>
 <b>Hasierako botoia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sakatu gailua desblokeatzeko. Ukipen-pantaila itzaltzen denean, gailua blokeo-moduan geratzen da.</li> <li>• Sakatu pantaila nagusira itzultzeko.</li> <li>• Sakatu bi aldiz <b>S Voice</b> martxan jartzeko.</li> <li>• Luze sakatu <b>Google</b> abiarazteko.</li> </ul>
 <b>Atzera botoia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ukitu aurreko pantailara itzultzeko.</li> </ul>

Botoia	Funtzioa
 <b>Bolumen-botoia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sakatu gailuaren bolumena doitzeko.</li> </ul>

## Kaxaren edukiak

Elementu hauek dituzu produktuaren kaxan:

- Gailua
- Bateria
- Bizkor hasteko gida



- Gailuarekin batera datozen elementuak eta eskuragarri dauden osagarriak desberdinak izan litezke lekuaren edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Gailuarekin batera emandako elementuak gailurako berariaz diseinatuta daude, eta baliteke beste gailu batzuekin bateragarriak ez izatea.
- Itxura eta zehaztapenak aldatu egin litezke aurretik jakinarazi gabe.
- Hainbat osagarri eros ditzakezu Samsungen tokiko hornitzailearen bidez. Erosi aurretik, ziurtatu gailuarekin bateragarriak direla.
- Samsungek onartutako osagarriak soilik erabili. Baliteke gailu batzuek (oinarri-gailuek, adibidez) ez izatea urari edo hautsari eusteko ziurtagiri bera.
- Osagarrien eskuragarritasuna aldatu egin liteke, enpresa fabrikatzaileen arabera. Eskuragarri dauden osagarriei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Samsungen webgunea.


## SIM edo USIM txartela eta bateria sartzea

Sartu telefonia mugikorreko zerbitzu-hornitzaileak emandako SIM edo USIM txartela eta gailuak dakarren bateria.



- Gailuak microSIM txartelak soilik onartzen ditu.
- Baliteke LTE zerbitzuetako batzuk eskuragarri ez egotea zerbitzu-hornitzailearen arabera. Zerbitzuaren erabilgarritasunari buruzko xehetasun gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

1 Kendu atzeko estalkia.




Kontuz kendu atzeko estalkia, azazkaletan minik ez hartzeko.




Ez tolestu eta ez biratu gehiegi atzeko estalkia. Kaltetu egin liteke.

2 Sartu SIM edo USIM txartela urre-koloreko kontaktuak beherantz begira dituela.




- Ez sartu memoria-txartelik SIM txartelaren artean. Memoria-txartela SIM txartelaren zirrikituan katigatuta geratzen bada, Samsungen zerbitzu-zentro batera eraman beharko duzu gailua, memoria-txartela atera dezaten.
- Kontuz: ez galdu SIM edo USIM txartela, eta ez utzi beste inori erabiltzen. Samsungek ez du bere gain hartzen txartelak galtzearen edo lapurtzearen ondorioz sortutako kalte eta eragozpenen ardurarik.

3 Sartu bateria.



4 Jarri berriro atzeko estalkia.




- Ziurtatu estalkia itxita dagoela.
- Samsungek gailurako onartutako atzealdeko tapak eta osagarriak soilik erabili.


## SIM edo USIM txartela eta bateria kentzea

1 Kendu atzeko estalkia.

2 Kendu bateria.



3 Egin bultza apur bat SIM edo USIM txartelari hatzarekin, eta, gero, atera.



## Bateria kargatzea

Erabili kargagailua bateria kargatzeko lehen aldiz erabili aurretik. Ordenagailu batean ere kargatu dezakezu, USB kable baten bitartez.




Samsungek onartzen dituen kargagailuak, bateriak eta kableak soilik erabili. Onartu gabeko kargagailu edo kableek bateria leherrarazi edo gailua kaltetu lezakete.



- Bateria-maila txikia bada, bateriaren ikonoa hutsik egongo da.
- Bateria batere kargarik gabe badago, ezingo duzu gailua piztu kargagailua konektatu eta berehala. Utzi bateria deskargatua minutu batzuez kargatzen, gailua berriro piztu aurretik.
- Aplikazio bat baino gehiago erabiltzen badituzu aldi berean edo sareko aplikazioak edo beste gailu batekin konektatu beharreko aplikazioak erabiltzen badituzu, bateria azkar agortuko da. Saretik ez deskonektatzeko edo datu-transferentzia egin bitartean energiari ez galtzeko, bateria osorik kargatu ondoren erabili beti aplikazio horiek.

- 1 Konektatu USB kablea USB-elikadurako egokigailura.
- 2 Ireki funtzio ugariko larakoaren estalkia.
- 3 USB kable bat erabiltzen duzunean, konektatu USB kablea funtzio ugariko larakoaren eskuinean, hurrengo irudian azaltzen den bezala.



- Kargagailua gaizki konektatzen baduzu, baliteke gailuari kalte larriak eragitea. Okerreko erabilerak eragindako kalteak ez dira bermean sartzen.
- Ziurtatu atzealdeko estalkia eta funtzio ugariko larakoaren estalkia irmo itxita daudela, gailuan urik edo hautsik sar ez dadin. Estalkiak irekita edo solte egonez gero, baliteke ura edo hautsa sartzea gailura, eta kalteak eragitea.
- Ziurtatu funtzio ugariko larakoaren estalkia ez dagoela kaltetuta, eta ez iezaiozu kendu. Estalkia kaltetu egin bada edo irten egiten bada, baliteke gailuak kalteren bat izatea ura dela eta.

- 4 Konektatu USB elikadura-egokigailua elektrizitate-hargune batera.



- Gailua erabil dezakezu kargatzen ari dela, baina baliteke guztiz kargatzeko denbora gehiago behar izatea.
- Gailuak, kargatzen ari dela, elikadura ezegonkorra jasotzen badu, gerta liteke ukipen-pantailak ez funtzionatzea. Hori gertatzen bada, deskonektatu kargagailua gailutik.
- Kargatzen ari den bitartean, gerta liteke gailua berotzea. Hori normala da, eta ez du eraginik telefonoaren bizitza erabilgarrian edo errendimenduan. Bateria ohikoa baino gehiago berotzen bada, baliteke kargagailuak kargatzeari uztea.
- Gailua behar bezala kargatzen ez bada, eraman ezazu kargagailuarekin batera Samsungen zerbitzu-zentro batera.



5 Guztiz kargatu ondoren, deskonektatu gailua kargagailutik. Deskonektatu kargagailua; lehenengo gailutik, eta, gero, elektrizitate-hargunetik.




Ez kendu bateria aurrez kargagailua kendu gabe. Baliteke horrek gailua kaltetzea.



Kargagailuak ez du pizteko eta itzaltzeko etengailurik, eta, beraz, ez du elektrizitate-hornidura eteteko aukerarik; ondorioz, erabiltzaileak kendu behar du kargagailua saretik. Gainera, konektatuta dagoenean, entxufetik gertu egon behar du. Energia aurrezteko, deskonektatu kargagailua erabiltzen ari ez zarenean.

6 Itxi funtzio ugari larakoaren estalkia.



Ziurtatu funtzio ugari larakoaren estalkia guztiz itxita dagoela.

## Bateria-kontsumoa murriztea

Bateria aurrezten laguntzen duten zenbait funtzio ditu gailuak. Aukera horiek pertsonalizatu eta bigarren mailako funtzioak desaktibatuz gero, denbora gehiago irauko dizu gailuak karga batetik bestera.

- Gailua erabiltzen ari ez bazara, aldatu modu inaktibora, pizteko tekla sakatuta.
- Itxi behar ez dituzun aplikazioak, ataza-kudeatzailearen bidez.
- Desaktibatu bluetootharen funtzioa.
- Desaktibatu WiFi funtzioa.
- Desaktibatu aplikazioen sinkronizazio automatikoa.
- Murriztu atzealdeko argiztapeneko denbora.
- Murriztu pantailaren distira.

## Memoria-txartel bat sartzea

Gehienez ere 128 GB-ko gaitasuna duten memoria-txartelak onartzen ditu gailuak. Fabrikatzailearen eta memoria-txartel motaren arabera, baliteke txartel batzuk gailuarekin bateragarriak ez izatea.




- Baliteke memoria-txartel guztiak ez izatea guztiz bateragarriak gailuarekin. Bateragarria ez den memoria-txartel bat erabiltzen baduzu, baliteke gailua edo memoria-txartela hondatzea, baita txartelean gordetako datuak hondatzea ere.
- Ziurtatu memoria-txartela norabide egokian sartu duzula, gora begira.
- Gailu honetan FAT eta exFAT fitxategi-sistemak erabil daitezke memoria-txarteletarako. Fitxategi-sistema ezberdin batekin formateatu den txartel bat txertatzen baduzu, berriz formateatzeko eskatuko dizu gailuak.



- Datuak sarri idazten eta ezabatzen arituz gero, memoria-txartelaren bizitza erabilgarria murriztu egiten da.
- Gailuan memoria-txartel bat sartzen duzunean, memoria-txartelaren fitxategi-direktoria **Nire fitxategiak** → **SD txartela** karpetan agertuko da, barne-memoriaren barruan.

1 Kendu atzeko estalkia.

2 Sartu memoria-txartel bat, urre-koloreko kontaktuak beherantz begira dituela.



3 Jarri berriro atzeko estalkia.

## Memoria-txartela kentzea

Memoria-txartel bat kendu aurretik, desmuntatu, seguru erauzteko. Pantaila nagusian, ukitu **Menua** → **Ezarpenak** → **Memoria** → **Muntatu SD txartela**

- 1 Kendu atzeko estalkia.
- 2 Atera memoria-txartela.
- 3 Jarri berriro atzeko estalkia.



Ez kendu memoria-txartela gailua informazioa transferitzen edo informaziora sartzen ari den bitartean. Baliteke datuak galtzea edo kaltetzea, edo memoria-txartela edo gailua bera kaltetzea. Samsungek ez du bere gain hartzen memoria-txartelak gaizki erabili eta kaltetzearen ondorioz sortutako galeren (datu-galerak, adibidez) ardurarik.

## Memoria-txartela formateatzea

Baliteke ordenagailu batean formateatutako memoria-txartel bat ez izatea bateragarria gailuarekin. Formateatu memoria-txartela gailuan.

Pantaila nagusian, hautatu **Menua** → **Ezarpenak** → **Memoria** → **Formateatu SD txartela** → **Guztiak ezabatu**.




Memoria-txartela formateatu aurretik, gogoan izan gailuan gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopia egin behar dela. Fabrikatzailearen bermeak ez ditu estaltzen erabiltzaileen ekintzek eragindako datu-galerak.

## Gailua piztea eta itzaltzea

Gailua lehen aldiz piztean, jarraitu pantailako argibideei gailua konfiguratzeko.

Gailua pizteko, luze sakatu pizteko botoia segundo batzuez.

Gailua itzaltzeko, luze sakatu pizteko botoia, eta ukitu **Itzalita**.



Haririk gabeko gailuak debekatuta dauden eremuetan (hegazkinetan eta ospitaletan, adibidez) zaudenean, bete langile ofizialek egindako ohar eta argibide guztiak.


## Gailuari eustea

Ez estali antena eskuekin edo beste objektoren batekin. Baliteke konektagarritasun-arazoak eragitea edo bateria agortzea.

## Gailua blokeatzea eta desblokeatzea

Pizteko botoia sakatzen baduzu, pantaila itzali egingo da, eta gailua blokeo-modura igaroko da. Denbora jakin batez gailua erabili behar ez baduzu, blokeatu egingo da automatikoki.

Gailua desblokeatzeko, sakatu pizteko botoia edo hasierako botoia, eta mugitu azkar hatza edozein norabidetan pantailaren desblokeatze-eremuan.



Gailua desblokeatzeko kodea aldatu egin ahal izango duzu. Xehetasun gehiago jakiteko, ikusi [“Pantaila blokeatzeko funtzioa aldatzea”](#).

# Oinarrizko kontzeptuak

## Ukipen-pantaila erabiltzea




- Ukipen-pantailak ez du ukitu behar beste gailu elektrikorik. Deskarga elektrostati­koek ukipen-pantailaren funtzionamenduan eragin dezakete.
- Ukipen-pantailak kalterik izan ez dezan, ez ukitu objektu puntadunekin, eta ez sakatu gehiegi hatzekin.



- Pantailaren ertzetatik hurbil ukituz gero, baliteke gailuak ez ezagutzea, ukipen bidez idazteko eremutik kanpo dagoelako.
- Ukipen-pantaila denbora luzez inaktibo utziz gero, baliteke isla-irudiak (erretakoak) edo mamu-itxurakoak agertzea. Gailua erabili behar ez baduzu, itzali ukipen-pantaila.
- Ukipen-pantaila hatzez erabiltzea gomendatzen da.

## Ukitzea

Aplikazio bat irekitzeko, menuko elementu bat aukeratzeko, pantailako botoi bat sakatzeko edo pantailako teklatuarekin karaktere bat idazteko, ukitu pantaila hatzarekin.




## Luze sakatzea

Sakatu elementu bat 2 segundo baino luzaroago, eskuragarri dauden aukeren zerrenda irekitzeko.




## Arrastatzea

Ikono bat edo miniatura bat mugitzeko, luze sakatu elementua, eta arrastatu nahi duzun lekuraino.




## Bi aldiz sakatzea

Sakatu bi aldiz webgune bat edo irudi bat zooma handitzeko. Sakatu berriro bi aldiz jatorrizko tamainara itzultzeko.





## Lerratzea

Lerratu pantaila nagusia edo aplikazio-pantaila ezkerrera edo eskuinera, beste panel bat ikusteko. Lerratu pantaila gora edo behera webgune batean edo zerrenda batean mugitzeko; adibidez, kontaktu-zerrendan.



## Elkartzea eta bereiztea

Bereizi bi hatz webgune batean, mapa batean edo irudi batean, zoma handitzeko. Zoma txikitzeko, berriz, elkartu itzazu.










## Jakinarazpen-ikonoak

Egoera-barran ageri diren ikonoek gailuaren egoerari buruzko informazioa ematen dute. Taula honetan jasotzen dira ikono ohikoenak.



Aplikazio batzuetan, baliteke egoera-barra ez bistaratzea pantailaren goiko aldean. Egoera-barra bistaratzeko, arrastatu pantailaren goiko aldea beherantz.

Ikonoa	Esanahia
	Ez dago seinalerik
	Seinalearen intentsitatea
	Desplazamenduan (ohiko zerbitzu-eremutik kanpo)
	GPRS sarea konektatuta
	EDGE sarea konektatuta
	UMTS sarea konektatuta
	HSDPA sarea konektatuta
	HSPA+ sarea konektatuta
	LTE sarea konektatuta
	WiFi-a konektatuta
	Bluetootha aktibatuta
	GPSa aktibatuta
	Deia martxan
	Dei galdua
	Air browse funtzioa aktibatuta
	Smart stay edo Smart pause funtzioa aktibatuta
	Sarearekin sinkronizatuta
	Ordenagailu batekin konektatuta
	SIM eta USIM txartelik gabe
	Testu-mezu edo multimedia-mezu berria
	Alarma aktibatuta

Ikonoa	Esanahia
	Modu isila aktibatuta
	Bibrazio-modua aktibatuta
	Hegazkin-modua aktibatuta
	Errore bat gertatu da edo kontuz ibili behar da
	Bateriaren karga-maila


## Jakinarazpen-panela eta doikuntza azkarren panela

### Jakinarazpen-panela erabiltzea


Jakinarazpenak jasotzen dituzunean (mezuak edota dei galduak), ikonoak bistaratuko zaizkizu egoera-barran. Ikonoei buruzko informazio gehiago ikusteko, ireki jakinarazpen-panela, eta ikusi xehetasunak.

Jakinarazpen-panela irekitzeko, arrastatu behera egoera-barra.

Jakinarazpen-panela ixteko, arrastatu barra pantailaren beheko aldetik gora.



Jakinarazpen-panelean, funtzio hauek erabili ahal izango dituzu.



## Distira doitzea

Gailua konfiguratzeke distira automatikoki doitu dezan, aukeratu **Argitasun automatikoa**. Maila automatikotik abiatuta distira eskuz doitzeko, arrastatu distira doitzeko barra ezkerrera edo eskuinera.


Bateria-maila baxua bada, distira doitzeko barra desagertu egingo da jakinarazpen-paneletik.


## Lasterbideen panela erabiltzea

Jakinarazpen-panelean, doikuntza azkarretarako zenbait botoi dituzu. Doikuntza azkarretarako botoi gehiago ikusteko edo haietara sartzeko, ireki doikuntza azkarren panela. Doikuntza azkarren panela irekitzean, zenbait funtzio aktibatu edo desaktibatu edo doikuntzak konfiguratu ahal izango dituzu.

Doikuntza azkarren panela irekitzeko, arrastatu behera egoera-barra hatzak erabiliz.

Doikuntza azkarren panela ixteko, arrastatu barra pantailaren beheko aldetik gora.

Jakinarazpen-panelean doikuntza azkarren aukerak berrantolatzeko, ukitu , luze sakatu elementu bat, eta arrastatu beste leku batera.



Erabili aukera hauek:

- **Wi-Fi:** WiFi funtzioa aktibatzeke eta desaktibatzeke. Xehetasun gehiago eskuratzeko, kusi [WiFi sare batera konektatzea](#).
- **Kokapena:** GPS funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke.
- **Soinua / Bibrazioa / Isilarazi:** Soinu-modua eta modu isila aktibatzeke edo desaktibatzeke. Gailua konfiguratu ahal izango duzu modu isilean bibrazioa egin edo soinu guztiak desaktiba ditzan.
- **Pantailaren biraketa:** Gailua biratzen duzunean interfazea ere biratzeko funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko.



Aplikazio batzuek ez dute ematen pantaila biratzeko aukerarik.

- **Bluetooth:** Bluetootharen funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke.
- **Datu mugikorrak:** Datu-konexioa aktibatzeke edo desaktibatzeke.

- **Download booster:** Download booster funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke. Xehetasun gehiago jakiteko, ikusi [“Deskargak optimizatzeko funtzioa erabiltzea”](#).
- **Bateria aurrezteko ultramodua:** Energia asko aurrezteko modua aktibatzeke edo desaktibatzeke. Xehetasun gehiago jakiteko, ikusi [“Energia aurrezteko funtzioa erabiltzea”](#).
- **Multi window:** Gailua konfiguratzeko, multiwindow erabiltzeke. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Multiwindow”](#).
- **Tresna kutxa:** Erreminta-kaxaren ikonoa ezkutatzeko edo bistaratzeko. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Erreminta-kaxa”](#).
- **Wi-Fi berogun.:** WiFi-a ainguratzeko funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Ainguratzeko-gailuak eta WiFi eremu eramangarriak”](#).
- **Screen Mirroring:** Screen Mirroring funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Screen Mirroring”](#).
- **NFC:** NFC funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“NFC”](#).
- **Sinkron:** Aplikazioen sinkronizazio automatikoa aktibatzeke edo desaktibatzeke.
- **Smart stay:** Smart Stay funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke. Funtzio hau aktibatuz gero, pantaila piztuta egongo da zu begira zauden bitartean.
- **Eten adimenduna:** Smart Pause funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke. Funtzio hau aktibatuz gero, gailuak automatikoki geldiaraziko du erreprodukzioa pantailari begiratzeari uzten badiozu.
- **Energia aurrezteko modua:** Energia aurrezteko modua aktibatzeke edo desaktibatzeke. Xehetasun gehiago jakiteko, ikusi [“Energia aurrezteko funtzioa erabiltzea”](#).
- **Blokeo modua:** Blokeo-modua aktibatzeke edo desaktibatzeke. Blokeo-moduan, gailuak blokeatu egingo ditu jakinarazpenak. Zein jakinarazpen blokeatu nahi dituzun aukeratzeko, ukitu **Ezarpenak** → **Blokeo modua**.
- **Hegaldia modua** Hegazkin-modua aktibatzeke edo desaktibatzeke.
- **Auto modua:** Auto-modua aktibatzeke edo desaktibatzeke. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Auto-modua”](#).
- **Modu pribatua:** Modu pribatua aktibatzeke edo desaktibatzeke. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Modu pribatua”](#).
- **Touch sensitivity:** Ukipen-sentikortasunaren funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Ukipen-pantailaren sentsibilitatea handitzea”](#).

# Pantaila nagusia eta aplikazioak

## Pantaila nagusia

Gailuaren funtzio guztietara sartzeko abiapuntua da pantaila nagusia. Widgetak, aplikazioetarako lasterbideak eta beste funtzio asko ditu. Widgetak aplikazio txikiak dira, funtzio jakin batzuk martxan jartzen dituztenak, pantaila nagusian informazioa eta sarbideak izateko.

Pantaila nagusiak hainbat panel izan ditzake. Joan ezkerrera edo eskuinera, panel gehiago ikusteko. Pantaila nagusia pertsonalizatzeko, kontsultatu [“Pantaila nagusia eta aplikazioak administratzea”](#), xehetasun gehiago jakiteko.




## Pantaila nagusiaren aukerak


Luze sakatu eremu huts bat edo elkartu hatzak pantaila nagusian, eskuragarri dauden aukerak ikusteko.




## Nire magazinea erabiltzea

Ukitu  edo eraman eskuinera pantaila nagusian, **Nire magazinea** irekitzeko.

Sare sozialen eguneraketak eta zuri interesa dakizkizukeen albisteak bistaratzen ditu **Nire magazinea** aukerak.



Ikusi nahi duzun edukia aukeratzeko, ukitu  → **Ezarpenak**, eta, gero aukeratu interesatzen zaizkizun kategoriak.

**Nire Magazinea** irekitzen duzunean edukia automatikoki eguneratzeko, ukitu  → **Ezarpenak**, eta, gero, aukeratu **Eguneratu eduki guztia automatikoki**.


**Nire Magazinea** desaktibatzeko, pantaila nagusian, luze sakatu leku huts bat. Gero, ukitu **Pantaila nag. ezarpenak**, eta kendu **Nire Magazinea** atalean hautatua.




## Aplikazio-pantaila

Aplikazio-pantailan, aplikazio guztietako ikonoak daude; baita orain dela gutxi instalatutakoak ere.





Pantaila nagusian, ukitu **Menua**, aplikazio-pantaila irekitzeko. Beste panel batzuk ikusteko, joan ezkerrera edo eskuinera, edo aukeratu pantaila-adierazle bat pantailaren beheko aldean. Aplikazio-pantaila pertsonalizatzeko, kontsultatu ["Pantaila nagusia eta aplikazioak administratzea"](#), xehetasun gehiago jakiteko.



## Aplikazioak irekitzea

Pantaila nagusian edo aplikazio-pantailan, aukeratu aplikazio baten ikonoa, irekitzeko. Orain dela gutxi erabili dituzun aplikazioen zerrenda irekitzeko, ukitu , eta aukeratu aplikazio baten ikonoa, irekitzeko.

### Aplikazio bat ixtea

Ukitu  → , eta, gero, ukitu **Amaitu**, aplikazio baten alboan, ixteko. Aktibatuta dauden aplikazio guztiak ixteko, ukitu **Amaitu dena**. Bestela, ukitu  → .

## Aplikazioak instalatzea edo desinstalatzea

### Samsung Apps


Erabili aplikazio hau Samsungeko aplikazio espezifikoak erosteko eta deskargatzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Samsung Apps**.




Baliteke aplikazio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

### Aplikazioak instalatzea

Bilatu aplikazioak kategoriaren arabera edo ukitu , hitz gako bat bilatzeko.

Aukeratu aplikazio bat, hari buruzko informazioa ikusteko. Doako aplikazioak deskargatzeko, ukitu **Doan**. Ordaintzeko aplikazioak erosteko eta deskargatzeko, ukitu aplikazioaren prezioa adierazten duen botoia.



Konfigurazio lehenetsiaren arabera, gailuak automatikoki eguneratuko ditu instalatutako aplikazio guztiak bertsio berri bat eskuragarri badago. Doikuntza lehenetsia aldatzeko edo aplikazioak eskuz eguneratzeko, ukitu  → **Ezarpenak** → **Eguneratu aplikazioak automatikoki**, eta, gero hautatu aukera bat.

## Play Store

Erabili aplikazio hau gailuan exekutatzeko aplikazioak eta jokoak erosteko eta deskargatzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Play Store**.



Baliteke aplikazio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

### Aplikazioak instalatzea

Bilatu aplikazioak kategoriaren arabera edo ukitu 🔍 , hitz gako bat bilatzeko.

Aukeratu aplikazio bat, hari buruzko informazioa ikusteko. Doako aplikazioak deskargatzeko, ukitu **INSTALATU**. Ordaintzeko aplikazioak erosteko eta deskargatzeko, ukitu prezioa, eta bete pantailako jarraibideak.



Konfigurazio lehenetsiaren arabera, gailuak automatikoki eguneratuko ditu instalatutako aplikazio guztiak bertsio berri bat eskuragarri badago. Doikuntza lehenetsia aldatzeko edo eskuz eguneratzeko, ukitu ☰ → **Ezarpenak** → **Eguneratu aplikazioak automatikoki**, eta, gero hautatu aukera bat.

### Aplikazio gomendatuak deskargatzea

Galaxy gailuetarako berriazko aplikazioak ikusi eta deskargatu ditzakezu.

Aplikazio-pantailan, ukitu ☰ → **GALAXY-rako aplikazioak**. Bestela, pantaila nagusian, ukitu **GALAXY Essentials** edo **GALAXY Gifts** widgeta, eta ukitu 📶 , aplikazio baten alboan.

Zerrendako aplikazio guztiak deskargatzeko, ukitu **Deskargatu denak**.

### Aplikazioak administratzea

#### Aplikazioak desinstalatzea edo desgaitzea

Aplikazio-pantailan aplikazio lehenetsiak desgaitzeko, ukitu ☰ → **Desinstalatu/desgaitu aplik.** 🚫 bistaratuko da desgaitu ditzakezun aplikazioen gainean. Hautatu aplikazio bat eta ukitu **Ezgaitu aplikazioa**.

Deskargatutako aplikazioak desinstalatzeko, aplikazio-pantailan, ukitu ☰ → **Deskargatutako aplikazioak** → ☰ → **Desinstalatu**. Bestela, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** ☰ → **Aplikazio kudeatzailea**, aukeratu aplikazio bat, eta, gero, ukitu **Desinstalatu**.

## Aplikazioa aktibatzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **☰** → **Erakutsi desgaitu aplik.**, aukeratu aplikazio bat, eta, gero, ukitu **Amaitu**.

Bestela, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Aplikazio kudeatzailea**, joan **DESAKTIBATU** aukeraraino, hautatu aplikazio bat, eta, gero, ukitu **Gaitu**.




- Aplikazioak ezkutatu: Aplikazioak pantailan soilik ezkutatzeko. Ezkutatutako aplikazioak erabiltzen jarraitu ahal izango duzu.
- Aplikazioak desgaitu: Gailuan desinstalatu ezin diren zenbait aplikazio lehenetsi desgaitzeko. Desgaitutako aplikazioak ezingo dituzu erabili.
- Aplikazioak desinstalatu: Deskargatutako aplikazioak desinstalatzeko.

## Testua idaztea

Mezuak bidaltzeko, oharrak sortzeko edo beste aukeraren baterako testua idazteko, teklatua bistaratuko da automatikoki.




Testua sartzeko moduak ez du funtzionatzen hizkuntza batzuetan. Testua idazteko, hizkuntza bateragarrietako batera aldatu behar duzu idazteko hizkuntza.




## Sarrerako hizkuntzak zehaztea



Ukitu **⚙️** → **Hizkuntza eta sarrera**, eta, gero, aukeratu erabili nahi dituzun hizkuntzak. Bi hizkuntza edo gehiago aukeratzeko badituzu, hizkuntza alda dezakezu, zuriune-barra ezkerreko edo eskuinera eramanda.

## Teklatuaren diseinua aldatzea


Ukitu , aukeratu **HIZKUNTZA** aukeraren azpiko hizkuntzetako bat, eta, gero, hautatu teklatu-diseinu bat, erabiltzeko.


 **3x4 teklatuan**, tekla bakoitzak hiru edo lau karaktere ditu. Karaktere bat sartzeko, sakatu tekla behin baino gehiagotan, dagokion karaktereraino iritsi arte.

## Teklatuaren funtzio gehigarriak erabiltzea

Luze sakatu  funtzio hauek erabiltzeko.  ez beste ikonoak bistaratuko dira, erabili duzun azken funtzioaren arabera.


-  : Testua ahots bidez sartzeko.








 Ziurtatu WiFi sarea edo mugikor-sarea aktibo dagoela funtzio hau erabili aurretik. Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea aplikazio hau sare mugikorraren bidez erabiliz gero.


-  : Eskuz idazteko modura aldatzeko.







 Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

-  : Transferentzia-eremu bat txertatzeko.
-  : Teklatuaren aukerak konfiguratzeko.
-  : Aurpegierak txertatzeko.
-  : Teklatu mugikorrera aldatzeko. Teklatua beste leku batera eraman dezakezu,  arrastatuz.

Teklatu estandarrera aldatzeko.



## Kopiatzea eta itsastea

- 1 Luze sakatu testu bat.
- 2 Arrastatu  edo , nahi duzun testua aukeratzeko, edo ukitu **Hautatu guztia**, testu osoa aukeratzeko.
- 3 Hautatu **Kopiatu** edo **Moztu**. Hautatutako testua transferentzia-eremuan gordeko da.
- 4 Jarri kursora testua txertatu nahi duzun lekuan, eta ukitu  → **Itsatsi**. Kopiatutako testua itsasteko, ukitu  → **Arbela**, eta aukeratu testua.

## Energia aurrezteko funtzioa erabiltzea

### Energia aurreztea

Aurreztu bateria, gailuaren funtzioak murriztuz.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Energia aurrezteko** → **Energia aurrezteko modua**, eta, gero, arrastatu **Energia aurrezteko modua** etengailua eskuinera. Bestela, ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Energia aurrezteko modua**, aktibatzeke.

Hautatu aukera hauetako bat:

- **Mugatu atzealdeko datuak:** Bigarren mailan exekutatzen ari diren aplikazioek datu mugikorren konexioa erabil ez dezaten konfiguratzeko.
- **Murriztu funtzionamendua:** Zenbait aukera mugatzeko, hala nola azkena erabilitako aplikazioen botoiaren eta atzera botoiaren atzeko argiztapena desaktibatzeke.
- **Grisen eskala modua:** Pantailako koloreak tonu grisetan bistaratzeko.

### Energia asko aurrezteko modua

Erabil modu hau gailuaren bateriak gehiago iraun dezan nahi baduzu. Energia asko aurrezteko moduan, gailuak hauek egingo ditu:

- Pantailako koloreak tonu grisetan bistaratuko dira.
- Oinarrizko aplikazioak eta aukeratutakoak soilik egongo dira eskuragarri.
- Pantaila itzaltzen denean, datu mugikorren konexioa desaktibatu egingo da.
- WiFi-a eta bluetootha desaktibatu egingo dira.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Energia aurrezteko modua** → **Bateria aurrezteko ultramodua**, eta, gero, arrastatu **Bateria aurrezteko ultramodua** etengailua eskuinera. Bestela, ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Aurrezteko ultramodua** aktibatzeke.



Pantaila nagusiari aplikazio bat gehitzeko, ukitu **+**, eta aukeratu aplikazio bat.

Pantaila nagusiko aplikazio bat ezabatzeko, ukitu **⋮** → **Ezabatu**, aukeratu aplikazio bat **⊖** erabiliz, eta, gero, ukitu **OK**.

Sarearen konektagarritasuneko doikuntzak beste hainbat doikuntza aldatzeko, ukitu **⋮** → **Ezarpenak**.


Energia asko aurrezteko funtzioa desakibatzeke, ukitu **⋮** → **Desaktibatu bateria aurrezteko ultramodua**.



Gehienezko atsedeen-denbora zenbatetsiak adierazten du zenbat denbora igaroko den bateria agortu arte gailua erabiltzen ez baduzu. Itxarote-denbora aldatu egin liteke, gailuaren doikuntzen eta eragiketaren baldintzen arabera.



## Laguntza-informaziora sartzea

Aplikazio bat erabili bitartean haren laguntza-informaziora sartzeko, ukitu  → **Laguntza**.

Laguntza-informaziora sartzeko eta gailua eta aplikazioak erabiltzen ikasteko, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Laguntza**.



- Gerta liteke beste osagarri batzuk ez izatea bateragarriak funtzio honekin.
- Ziurtatu WiFi sarea edo mugikor-sarea aktibo dagoela funtzio hau erabili aurretik. Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea aplikazio hau sare mugikorraren bidez erabiliz gero.

# Pertsonalizatzea


## Modu errazera aldatzea


Modu errazarekin, erabiltzaileak errazago molda daitezke mugikorrarekin, formatu sinpleagoa baitu, eta, pantaila nagusian, ikono handiagoak. Aplikazio ezagunenetara sar zaitezke, maiz erabiltzen dituzun doikuntzetara, eta zure gogoko kontaktueterako lasterbideak gehitu ditzakezu.



Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Modu erraza** → **Modu erraza**, aukeratu antolaketa sinpleagoa jarri nahi diezun aplikazioak, eta ukitu **Amaituta**.

Modu estandarerra itzultzeko, pantaila nagusian, ukitu **Ezarpen errazak** → **Modu erraza** → **Modu estandarra** → **Amaituta**.

## Lasterbideak administratzea

Pantaila nagusian aplikazio baterako lasterbide bat gehitzeko, joan ezkerrera, ukitu  , eta, gero, aukeratu aplikazio bat.

Pantaila nagusian kontaktu baterako lasterbide bat gehitzeko, joan eskuinera, eta ukitu .

Pantaila nagusitik lasterbide bat ezabatzeko, ukitu  → **Editatu**, eta aukeratu aplikazio bat edo kontaktu bat,  erabiliz.

## Pantaila nagusiak eta aplikazioak administratzea

### Pantaila nagusia administratzea

#### Elementuak gehitzea

Aplikazio-pantailan, luze sakatu aplikazio bat eta karpeta bat. Gero, arrastatu pantaila nagusiraino.

Widgetak gehitzeko, luze sakatu pantaila nagusiko leku huts bat, ukitu **Widgets**, luze sakatu widget bat, eta arrastatu pantaila nagusiraino.

## Elementu bat mugitzea eta ezabatzea


Luze sakatu elementu bat pantaila nagusian, eta, gero, arrastatu beste leku bateraino.

Elementua beste panel batera eramateko, arrastatu pantailaren alboetako bateraino.

Aukera duzu, halaber, sarrien erabiltzen dituzun aplikazioak lasterbideen eremura eramateko (pantaila nagusiaren beheko aldean).

Elementu bat ezabatzeko, luze sakatu. Gero, eraman **Ezabatu** aukeraraino (pantailaren goiko aldean dago).

## Karpeta bat sortzea

- 1 Pantaila nagusian, luze sakatu aplikazio bat, eta arrastatu **Karpeta sortu** aukeraraino (pantailaren goiko aldean dago).
- 2 Sartu karpetarako izen bat.
- 3 Ukitu , aukeratu karpetara eraman nahi dituzun aplikazioak, eta ukitu **Amaituta**.

## Panelak administratzea

Pantaila nagusian, luze sakatu leku huts bat panel bat gehitzeko, mugitzeko edo ezabatzeko.

Panel bat gehitzeko, joan ezkerrera, azken paneleraino iritsi arte, eta ukitu .

Panel bat mugitzeko, luze sakatu panel baten aurrebista, eta, gero, arrastatu beste kokapen bateraino.

Panel bat kentzeko, luze sakatu panelaren aurrebista, eta arrastatu **Ezabatu** aukeraraino (pantailaren goiko aldean dago).

Panel bat pantaila nagusiko panel nagusi gisa konfiguratzeko, ukitu .

## Aplikazio-pantaila administratzea

### Bistaratzeko modua aldatzea

Aplikazio-pantailan, ukitu  → **Nola ikusi**, eta hautatu sailkapen-metodo bat.


### Aplikazioak ezkutatzea

Ezkutatu aplikazio-pantailan ikusi nahi ez dituzun aplikazioak.

Aplikazio-pantailan, ukitu  → **Ezkutatu aplikazioak**, aukeratu aplikazio bat, eta, gero, ukitu **Egina**.

Ezkutatutako aplikazioak bistaratzeko, ukitu  → **Erakutsi ezkut. Apl.**, aukeratu aplikazio bat, eta, gero, ukitu **Egina**.




### Elementuak mugitzea

Aplikazio-pantailan, ukitu  → **Editatu**. Luze sakatu elementu bat, eta arrastatu kokaleku berri batera.

Elementua beste panel batera eramateko, arrastatu pantailaren alboetako bateraino.

Elementu bat beste panel batera mugitzeko, arrastatu **Sortu orria** aukeraraino (pantailaren goiko aldean dago).

### Karpetak sortzea

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu  → **Karpeta sortu**. Bestela, ukitu  → **Editatu**, luze sakatu aplikazio bat, eta arrastatu **Karpeta sortu** aukeraraino (pantailaren goiko aldean dago).
- 2 Sartu karpetarako izen bat.
- 3 Ukitu  , aukeratu karpetara eraman nahi dituzun aplikazioak, eta ukitu **Egina**.

## Pantaila blokeatzeko funtzioa aldatzea

Pantaila blokeatzeko modua aldatu egin dezakezu, beste inor zure datu pertsonaletara sar ez dadin.


Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Blokeatu pantaila** → **Pantailaren blokeoa**, eta, gero, aukeratu blokeatzeko metodo bat. Gailuak kode bat eskatuko du desblokeatzen saiatzen zaren bakoitzean.



Desblokeatzeko kodea ahazten baduzu, eraman gailua Samsungen zerbitzu-zentro batera, berrezar dezaten.

### Eredua

Marraztu eredu bat, lau puntu edo gehiago elkartuz, eta, gero, marraztu berriro, berresteko. Definitu segurtasuneko PIN bat, eredu ahazten baduzu pantaila desblokeatzeko.



### Hatz-marka

Erregistratu zure hatz-markak, pantaila desblokeatzeko. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu ["Eskanerra"](#).

### PINa

PINak zenbakiak bakarrik ditu. Idatzi gutxienez lau zenbaki, eta, gero, idatzi berriro pasahitza, berresteko.

## Pasahitza

Pasahitzek karaktereak eta zenbakiak izaten dituzte. Idatzi gutxienez lau karaktere (zenbakiak eta ikurrak erabiliz), eta, gero, idatzi berriro pasahitza, berresteko.

## Pantaila-atzealde bat definitzea

Definitu gailuan gordeta daukazun irudi bat edo argazki bat pantaila nagusirako edo blokeo-pantailarako atzealde gisa.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Pantaila atzealdea**. Bestela, pantaila nagusian, luze sakatu leku huts bat, eta ukitu **Pantaila atzealdea**.
- 2 Aukeratu pantaila bat, pantaila-atzealde bat aldatzeko edo aplikatzeko.
- 3 Joan ezkerrera edo eskuinera pantailaren beheko aldean dauden irudietatik.  
Gailuaren kamerarekin ateratako argazkiak edo beste irudi batzuk aukeratzeko, ukitu **Irudi gehiago**.
- 4 Ukitu **Ezarri hor. pap.** edo **Egina**.

## Melodia aldatzea

Aldatu sarrerako deien eta jakinarazpenen melodiak.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Soinua**.

Sarrerako deietarako melodia bat zehazteko, ukitu **Dei doinuak**, aukeratu melodia bat, eta ukitu **Onartu**. Gailuan edo zure kontuan melodia gisa gordetako abesti bat erabiltzeko, ukitu **Gehitu**.

Jakinarazpenetarako melodia bat zehazteko, ukitu **Jakinarazpenak**, aukeratu melodia bat, eta ukitu **Onartu**.

## Kontuak konfiguratzea


### Kontuak gehitzea

Gailuak erabiltzen dituen aplikazioetako batzuetarako kontu bat erregistratua izan behar da. Sortu kontuak, gailua ahalik eta gehiena aprobetxatzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Kontuak** → **Kontua gehitu**, eta hautatu kontu-zerbitzu bat. Gero, bete pantailan agertzen diren jarraibideak, kontuaren konfigurazioa osatzeko.

Edukiak zure kontuekin sinkronizatzeko, aukeratu kontu bat, eta aukeratu sinkronizatu nahi dituzun elementuak.

### Kontuak ezabatzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Kontuak**, hautatu kontu bat, eta ukitu  → **Eliminar cuenta**.

## Kontaktuak beste gailu batzuetatik zurera ekartzea

### Kontaktuak mugitzea Samsung Smart Switch erabiliz

Aurreko gailutik berrira kontaktuak ekar ditzakezu Smart Switch erabiliz (gailu mugikorretarako eta ordenagailuetarako). Sartu [www.samsung.com/smartswitch](http://www.samsung.com/smartswitch) webgunean informazio gehiago eskuratzeko.



Samsung Smart Switch ez da bateragarria gailu edo ordenagailu batzuekin.

### Smart Switch Mobile erabiltzea

Erabili aplikazio hau zure iPhone-tik edo Android gailutik gailu berrira kontaktuak ekartzeko. **Samsung Apps**-etik edo **Play Store**-tik deskargatu dezakezu aplikazioa.

- 1 Gailuan, ukitu **Smart Switch Mobile**.
- 2 Gailuan, hautatu aukera bat, lehen zeneukan gailu-motaren arabera, eta bete pantailako jarraibideak.  
Lehen zeneukan gailua Android erakoa bada, ziurtatu Smart Switch Mobile aplikazioa instalatuta dagoela gailuan. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu laguntza-atala.

## Smart Switch Mobile erabiltzea ordenagailuetan erabiltzea

Erabili funtzio hau zure kontaktuen (fabrikatzaile batzuetako gailu mugikorretakoak) segurtasun-kopia bat inportatzeko ordenagailu batetik gailura. Hemen deskargatu dezakezu aplikazioa: [www.samsung.com/smartswitch](http://www.samsung.com/smartswitch).

- 1 Egin gailu zaharreko kontaktuen segurtasun-kopia ordenagailuan. Xehetasun gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan gailuaren fabrikatzailearekin.
- 2 Ordenagailuan, jarri martxan Smart Switch.
- 3 Konektatu gaur egungo gailua ordenagailura USB kable baten bidez.
- 4 Ordenagailuan, aukeratu lehen zeneukan gailuaren fabrikatzailearen izena, eta bete pantailan bistaritzen zaizkizun jarraibideak, gailura kontaktuak transferitzeko.

## Kontaktuak mugitzea Samsung Kies erabiliz

Inportatu zure kontaktuen segurtasun-kopiako fitxategi bat ordenagailutik Samsung Kies erabiliz, gailuan kontaktuak berrezartzeko. Ordenagailuan kontaktuen segurtasun-kopia egiteko ere erabil dezakezu Samsung Kies. Xehetasun gehiago eskuratzeko, kontsultatu "[Samsung Kiesekin konektatzea](#)".



# Sare-konektagarritasuna

## Sare batera konektatzea

WiFi sarerik erabilgarri ez dagoenean Internet erabiltzeko, konektatu gailua sare mugikor batekin.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Datuen erabilera**, eta, gero, aukeratu **Datu mugikorrak**. Bestela, ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Datu mugikorrak**, aktibatzeko.

## WiFi sare batera konektatzea

Konektatu gailua WiFi sare batera, Internet erabiltzeko edo beste gailu batzuekin multimedia-fitxategiak partekatzeko. Aukera gehiagoren berri jakiteko, kontsultatu ["WiFi-a"](#).



- Bateratu gabeko frekuentzia erabiltzen du gailuak, eta Europako herrialde guztietan erabiltzeko diseinatuta dago. WLAN sarea mugarik gabe erabil daiteke Europar Batasuneko eraikinen barruan; ezin da erabili, ordea, handik kanpora.
- Erabili behar ez baduzu, desaktibatu WiFi funtzioa, bateria aurrezteko.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Wi-Fi**. Bestela, ireki doikuntza azkarren panela, eta luze sakatu **Wi-Fi**.
- 2 Arrastatu **Wi-Fi** etengailua eskuinera.
- 3 Aukeratu sare bat detektatutako WiFi sareen zerrendan. Pasahitza eskatzen duten sareek giltzarrapoformako pasahitz bat izango dute.
- 4 Ukitu **Konektatu**. Gailua WiFi sare bati lotzen zaionean, automatikoki konektatuko da eskuragarri dagoen guztietan.

## WiFi sareak gehitzea

Konektatu nahi duzun sarea ez badago sare-zerrendan, ukitu **Gehitu Wi-Fi sarea** (zerrendaren beheko aldean dago). Sartu sarearen izena **Red SSID** eremuan, aukeratu segurtasun-mota, sartu pasahitza (sare irekia ez bada), eta ukitu **Konektatu**.

## Wi-Fi Passpoint aktibatzea

Wi-Fi Passpoint erabiliz, erabiltzaileak WiFi sare ziurtatu bat bila dezake, eta hara konekta daiteke. Passpoint funtzioa erabili dezakezu kautotze automatikoa onartzen duten WiFi sare publikoetara konektatzeko. Leku horretatik alde egiten baduzu, beste WiFi sare ziurtatu bat bilatuko du, eta hara konektatuko da.



Baliteke aukera hau erabilgarri ez egotea herrialde batzuetan. Ukitu **☰** → **Aurreratua**, eta, gero, aukeratu **Passpoint**.

## WiFi sareak ahaztea

Erabili duzun edozein sarea ahaztu dezakezu (baita unekoa ere), gailua automatikoki konekta ez dadin. Aukeratu sarea sare-zerrendatik, eta, gero, ukitu **Ahaztu**.

## Deskargak optimizatzeko funtzioa erabiltzea

Erabili funtzio hau fitxategi handiak azkarrago deskargatzeko, WiFi-a eta sare mugikorrek aldi berean erabiliz. Funtzio hori erabili aurretik, ziurtatu sare mugikorreko konexioa eta WiFi funtzioa aktibatuta daudela. Zenbat eta WiFi sare indartsuagoa izan, orduan eta abiadura handiagoan egingo dituzu deskargak.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Download booster**, eta, gero, arrastatu **Download booster** etengailua eskuinera. Bestela, ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Download booster**, aktibatzeko.



- Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea sare mugikor baten bidez fitxategiak deskargatuz gero.
- Fitxategi handiak deskargatzean, gerta liteke gailua berotzea. Gailuak tenperatura jakin bat gainditzen badu, funtzioa desaktibatu egingo da.
- Sarearen seinaleak ezegonkorrak badira, baliteke funtzio honen abiadura eta errendimendua txikiagoak izatea.
- WiFi sareko konexioak eta sare mugikorrekoak datuan transferitzeko oso abiadura desberdinak badituzte, baliteke gailuak konexiorik azkarrena soilik erabiltzea.
- Funtzio honek 1.1 hipertestua transmititzeko protokoloa (HTTP) soilik onartzen du. Ezin da erabili beste protokolo batzuekin, hala nola HTTPS ed FTPrekin.

## Smart network etengailua erabiltzea

Erabili funtzio hau sare-konexioa egonkorra izateko webguneetan nabigatzean, edukiak deskargatzean eta beste hainbat gauza egitean. Funtzio hori erabili aurretik, ziurtatu sare mugikorreko konexioa eta WiFi funtzioa aktibatuta daudela.



- Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea funtzio hau sare mugikorraren bidez erabiliz gero.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Wi-Fi**, eta aukeratu **Sare adimendunaren tekla**. Gailua automatikoki aldatuko da WiFi saretik sare mugikor batera WiFi sarea ahula edo ezegonkorra bada. WiFi-aren seinalea berriro indartsua bada, gailua sare mugikorretik WiFi-ra aldatuko da berriz.

# Ainguratze-gailuak eta WiFi eremu eramangarriak

## Ainguratze-funtzioei eta WiFi eremu eramangarriei buruz

Erabili funtzio hau Interneteko konexiorik eskuragarri ez badago gailuaren datu mugikorren konexioa partekatzeko ordenagailuekin eta beste gailu batzuekin. WiFi, USB edo bluetooth funtzioen bidez ezarri ahal izango dituzu konexioak.





Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea funtzio hau erabiltzeagatik.

## WiFi eremu eramangarria erabiltzea

Erabili gailua WiFi eremu eramangarri gisa, beste gailu batzuekin datu-konexioa partekatzeko.


### Funtzio hau erabili aurretik

- Ziurtatu WiFi funtzioa desaktibatuta dagoela.
- Egiaztatu zure gailuko datu mugikorren konexioa aktibatuta dagoela.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Aingur. eta Wi-Fi b. guneak** → **Wi-Fi bero gune ibiltaria**.
- 2 Arrastatu **Wi-Fi bero gune ibiltaria** etengailua eskuinera.
  -  bistaratuko da egoera-barran. Gainerako gailuek zurea aurkitu ahal izango dute WiFi sareen zerrendan.
  - WiFi eramangarriaren eremurako pasahitz bat ezartzeko, ukitu  → **Konfiguratu**, eta aukeratu segurtasun-maila bat. Gero, idatzi pasahitza, eta ukitu **Gorde**.
- 3 Beste gailuaren pantailan, bilatu eta aukeratu zurea WiFi sareen zerrendan.
- 4 Gailua konektatuta dagoela, erabili datu mugikorren konexioa Internetera sartzeko.

## Tethering USB funtzioa erabiltzea

Partekatu gailuaren datu mugikorren konexioa ordenagailu batekin, USB kable bat erabiliz.



- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Aingur. eta Wi-Fi b. guneak**.
- 2 Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.
- 3 Aukeratu **USB ainguraketa**.  
 bistaratuko da egoera-barran, bi gailu konektatuta daudenean.
- 4 Ordenagailuan, erabili gailuaren datu mugikorren konexioa.

## Bluetooth ainguratze-funtzioa erabiltzea

Partekatu gailuaren datu mugikorren konexioa konektatutako ordenagailuekin eta beste gailu batzuekin bluetooth bidez.

### Funtzio hau erabili aurretik

- Ziurtatu gailua beste gailu bati lotuta dagoela bluetooth bidez. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu "[Bluetootha](#)".
- Ziurtatu konektatzen ari zaren ordenagailuak bluetootha onartzen duela.

- 1 Gailuan, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Aingur. eta Wi-Fi b. guneak**.
- 2 Aukeratu **Bluetooth ainguraketa**.
- 3 Konektatutako gailuan, ireki bluetootharen doikuntza-pantaila, eta ukitu  → **Internerako sarbidea**.  
 bistaratuko da egoera-barran, bi gailu konektatuta daudenean.
- 4 Gailua konektatuta dagoela, erabili datu mugikorren konexioa Internetera sartzeko.



Konektatzeko metodoak aldatu egin litezke konektatzen diren gailu-moten arabera.

# Mugimenduak eta irisgarritasun-funtzioak

## Kontrol-mugimenduak





Gehiegi astintzen baduzu edo kolperen bat ematen badiozu, baliteke nahi gabe zerbait mugitzea gailuan. Kontrolatu mugimenduak behar bezala.

### Air browse

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Mugimenduak eta keinuak** → **Air browse**, eta, gero, arrastatu **Air browse** etengailua eskuinera.

Mugitu orrialde edo zerrendetan, eskua zuk nahi duzun norabidean mugituz sentsorearen gainean.



## Direct call

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Mugimenduak eta keinuak** → **Zuzeneko deia**, eta, gero, arrastatu **Direct call** etengailua eskuinera.


Dei bat, mezu bat edo kontaktu baten datuak ikusten ari zarela, jarri gailua belarritik hurbil deia egiteko.



## Smart alert

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Mugimenduak eta keinuak** → **Smart alert**, eta, gero, arrastatu **Smart alert** etengailua eskuinera.

Denbora batez inaktibo egon ondoren edo pantaila itzalita egon ondoren gailua altxatzen baduzu, bibratu egingo du dei galduren bat edo mezu berriren bat dagoenean.



## Isilaraztea/geldiaraztea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Mugimenduak eta keinuak** → **Mututu/eten**, eta, gero, arrastatu **Mututu/eten** etengailua eskuinera.


### Pantaila eskuarekin estaltzea

Estali pantaila esku-ahurrarekin sarrerako deiak edo alarmak isilarazteko edota multimedia-erreprodukzioa geldiarazteko.



### Gailua iraultzea


Iraultu gailua sarrerako deiak edo alarmak isilarazteko edo multimedia-erreprodukzioa geratzeko.





## Smart pause

Erreproduzioa automatikoki geldituko da pantailara begiratzeari uzten badiuzu. Erreproduzioa martxan jarriko da berriz pantailara begiratzen duzunean.




## Esku-ahurra mugitzea irudi bat egiteko

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Mugimenduak eta keinuak** → **Irristatu esku-azpia kapturat.**, eta, gero, arrastatu **Irristatu esku-azpia kapturat.** etengailua eskuinera.

Jarri eskuaren alde bat pantailarengainean, eta mugitu pantailan, eskuinetik ez kerrera edo alderantziz, pantaila-irudi bat egiteko. Irudia karpeta honetan gordeko da: **Galeria** → ☰ → **Albumak** → **Screenshots**.




Zenbait aplikazio erabili bitartean ezin da hartu pantaila-irudirik.



## Air view

Erabili funtzio hau zenbait ekintza egiteko pantailaren gainean hatz bat mugituta. Seinalatu pantaila edukia aurrez ikusteko edo informazioa leiho gainerakor batean ikusteko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Air view**, eta, gero, arrastatu **Air view** etengailua eskuinera.



## Multi window


### Multi window funtzioari buruz

Erabili funtzio hau pantailan bi aplikazio aldi berean exekutatzeko. Funtzio hau erabil dezakezu bideo bat erreproduzitzen ari den bitartean mezu elektronikoak irakurtzeko edo Internet erabiltzeko.

### Multi window abiaraztea


- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Multiwindow**, eta, gero, arrastatu **Multiwindow** etengailua eskuinera. Bestela, ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Multi window**, desaktibatzeke.

2 Ukitu > (pantailaren ezkerreko aldean dago), Multi window panela irekitzeko.




3 Luze sakatu aplikazio baten ikonoa, Multi window paneletik abiarazteko. Gero, arrastatu bi leihoetako bateraino.

Ikonoan > marka duten aplikazioak pantailako leiho berezietan abiaraz daitezke aldi berean.



## Multi window funtziorako konbinazio bat sortzea


Erabili funtzio hau gaur egun Multi window bidez exekutatzen ari diren aplikazioen konbinazioa gordetzeko.

- 1 Abiarazi bi aplikazio Multi window zatitu batean.
- 2 Ireki Multi window panela, eta ukitu  → **Sortu**.
- 3 Sartu izenburu bat, eta ukitu **Ados**.

Unean exekutatzen ari den Multi window konbinazioa Multi window panelera gehituko da.


## Leihoaren tamaina doitzea

Leihoen tamaina doitzeko, arrastatu zirkulua aplikazio-leihoen artean, gora edo behera.




## Multi window aplikazioak erabiltzea

Multi window aplikazioak erabiltzean, aukeratu aplikazioaren leihoa, eta marko zuri bat bistaratuko da haren inguruan. Ukitu aplikazioen leihoen arteko zirkulua, aukera hauetara sartzeko:



- : Multi window aplikazioen kokapena txandakatzeko.

- : Testua edo irudiak leiho batetik bestera arrastatu eta askatzeko. Luze sakatu elementu bat aukeratutako leihoan, eta arrastatu beste leiho bateraino.




Gerta liteke aplikazio batzuk ez izatea bateragarriak funtzio honekin.

- : Aplikazioa ixteko.


## Multi window paneleko aplikazioak berrantolatzea

Multi window paneleko aplikazioak berrantolatu egin ditzakezu.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Multi window**, eta, gero, arrastatu **Multi window** etengailua eskuinera. Bestela, ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Multiwindow**, desaktibatzeko.
- 2 Ireki Multi window panela, eta ukitu  → **Editatu**.

Multi window panelean erabili ahal izango dituzun aplikazioak bistaratuko ditu gailuak.

3 Luze sakatu aplikazio bat, eta arrastatu Multi window paneleraino.



4 Ukitu Hecho.

## Erreminta-kaxa

Zenbat aplikazio erraz-erraz abiaraz ditzakezu erreminta-kaxaren ikonoaren bitartez, beste aplikazio batzuk erabiltzen ari zaren bitartean.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Tresna kutxa**, eta, gero, arrastatu **Tresna kutxa** etengailua eskuinera. Ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Tresna kutxa**, aktibatzeko. ☰ bistaratuko da pantailan.

Aplikazio bat abiarazteko, ukitu ☰, eta aukeratu aplikazio bat.

Erreminta-kaxaren ikonoa mugitzeko, ukitu ☰, eta arrastatu beste leku bateraino.

Erreminta-kaxako aplikazioak aldatzeko, luze sakatu ☰, eta arrastatu **Editatu** aukeraraino.


Erreminta-kaxaren ikonoa ezkutatzeko, luze sakatu ☰, eta arrastatu **Ezabatu** aukeraraino.

## Esku bakarrarekin erabiltzea

Esku bakarrarekin erabiltzeko modua aktiba dezakezu, erosoago erabil dezazun gailua esku bakarrarekin.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Esku bakarreko eragiketa**, eta, gero, arrastatu **Esku bakarreko eragiketa** etengailua eskuinera.






Esku bakarrarekin erabiltzeko modura aldatzeko, eutsi gailuari esku bakarrarekin. Gero, arrastatu hatz lodia azkar-azkar pantailaren ertzetik erdialdera, eta, gero, berriz ertzera.





## Kontaktueta edo aplikazioeta lasterbideak administratzea

Kontaktu edo aplikazioeta lasterbideak administra ditzakezu alboko menua irekita.

- 1 Ukitu  edo  alboko menua irekitzeko.
- 2 Ukitu , alboko menuaren behealdean.
- 3 Luze sakatu kontaktu baten edo aplikazio baten irudia, eta, gero, arrastatu alboko menuraino.  
Kontaktu baten irudirako edo aplikazio baterako lasterbidea ezabatzeko, ukitu .
- 4 Ukitu .

## Ukipen-pantailaren sentsibilitatea handitzea

Erabili funtzio hau eskularruak jantzita dauzkazula pantaila erabiltzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Pantaila**, eta aukeratu **Handitu ukimen sentsib.**. Bestela, ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Ukimen sentsib.** aktibatzeke.



- Erabili larruzko eskularruak pantaila ukitzean gailuak hobeto uler dezan. Baliteke gailuak ez ezagutzea bestelako materialak.
- Eraitza hobeak eskuratzeko, tinko ukitu pantaila eskularruekin erabili behar baduzu.
- Baliteke pantailak ez erantzutea eskularruak jantzita badauzkazu gailua S View leiho baten bidez erabiltzean.

# Telefonoa

## Deiak egitea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Telefonoa**.


Ukitu **Teklatua**, idatzi telefono-zenbaki bat, eta ukitu 📞 ahots-dei bat egiteko, edo ukitu 📷 bideo-dei bat egiteko. **Erregistroak**, **Gogokoenak**, eta **Kontaktuak** ataletan dauden telefono-zenbakietara ere deitu dezakezu.



## Erregistro- edo kontaktu-zerrenda erabiliz deiak egitea

Ukitu **Erregistroak** edo **Kontaktuak**, eta arrastatu kontaktu bat edo telefono-zenbaki bat eskuinera, deia egiteko.

Ikono bat eskuinera arrastatuz deia desaktibatzen, ukitu **☰** → **Ezarpenak** → **Kontaktuak**, eta, gero, desgaitu **Irristatu deitzeko/mez. bi.** aukera.



## Gogoko-zerrendatik deiak egitea

Sarri hitz egiten duzun kontaktuei erraz-erraz deitu diezaiezu, gogoko kontaktuen zerrendara gehituta.


Gogoko-zerrendari kontaktuak gehitzeko, ukitu **Kontaktuak**, aukeratu kontaktu bat, eta ukitu **★**.

Para llamar a un contacto favorito, ukitu **Gogokoenak**, eta aukeratu kontaktu bat.

## Zenbakiak auresatea

Ukitu Teklatua.

Teklatuarekin zenbakiak idatzi ahala, aurreikuspen automatikoak bistaratuko dira. Aukeratu bat, dei bat egiteko.



## Markaketa bizkorreko zenbakiak

Ukitu Teklatua.

Markaketa bizkorreko zenbakiak erabiltzeko, luze sakatu dagokion digitua.

Markaketa bizkorreko zenbaki bati kontaktu bat esleitzeko, luze sakatu teklatuan eskuragarri dagoen markaketa bizkorreko zenbaki bat, ukitu **Ados**, eta aukeratu kontaktu bat. Bestela, ukitu **Kontaktuak** → **☰** → **Markaketa azkarra**, hautatu zenbaki bat, eta, gero, kontaktu bat.

## Nazioarteko dei bat egitea


Ukitu Teklatua.

Luze sakatu 0, + ikurra bistaratu arte. Idatzi herrialde-kodea, lurralde-kodea eta telefono-zenbakia; eta, ondoren, sakatu **☎**.

Nazioarteko irteerako deiak blokeatzeko, ukitu **☰** → **Ezarpenak** → **Deitu** → **Ezarpen gehigarriak** → **Dei murrizketa**. Gero, aukeratu dei-mota bat, eta desgaitu **Nazioa. dei her. Sal.** aukera.

## Deiak jasotzea

### Dei bati erantzutea

Dei bat jasotzen duzunean, arrastatu  zirkulu handitik kanpora.

Aplikazio bat erabiltzen ari zarela dei bat jakinarazteko leiho gainerakorra bistaratzen bada, ukitu **Erantzun**, leiho gainerakorrean.


Deiak zain uzteko zerbitzua aktibatuta badago, beste dei bat egin ahal izango duzu. Bigarren solaskideak erantzuten duenean, lehen deia zain geratuko da.

### Dei bat ez onartzea


Dei bat jasotzen duzunean, arrastatu  zirkulu handitik kanpora.

Aplikazio bat erabiltzen ari zarela dei bat jakinarazteko leiho gainerakorra bistaratzen bada, ukitu **Ukatu**, leiho gainerakorrean.


Sarrerako dei bat onartzen ez duzunean mezu bat bidaltzeko, arrastatu gorantz ez onartzearen mezuaren barra.

Zenbait errefusate-mezu sortzeko, aplikazio-pantailan, ukitu **Telefonia** →  → **Ezarpenak** → **Deitu** → **Dei ukatzea** → **Konfiguratu dei ukatze mezu.** → **Sortu.**

### Deirik jaso nahi ez den zenbakien deiak automatikoki ez onartzea

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Telefonia**.
- 2 Ukitu  → **Ezarpenak** → **Deitu** → **Dei ukatzea** → **Ukatze automatiko modua** → **Ukatze autom. zenbakiak**.
- 3 Ukitu **Ukatze automatikoen zerren.** → **Sortu**, idatzi zenbaki bat, eta, gero, esleitu kategoria bat.
- 4 Ukitu **Gorde**.








### Dei galduak


Dei bat galtzen baduzu,  bistaratuko da egoera-barran. Dei galduen zerrenda ikusteko, ireki jakinarazpen-panela. Bestela, aplikazio-pantailan, ukitu **Telefonia** → **Erregistroak**, dei galduak ikusteko.

# Dei bat martxan dagoenean

## Ahots-dei bat martxan dagoenean

Aukera hauek dituzu:

- : Bolumena igotzeko.
- **Gehi. deia:** Bigarren dei bat markatzeko.
- **Teklatua:** Teklatua irekitzeko.
- **Deia am.:** Uneko deia amaitzeko.
- **Bozgor.:** Bozgorailua aktibatzen edo desaktibatzen. Bozgorailua erabiltzen ari zarela, hitz egin mikrofonotik hurbil (gailuaren goiko aldean), eta jarri gailua belarrietatik urrun.
- **Isilarazi:** Mikrofonoa desaktibatzen, beste solaskideak ez diezazun entzun.
- **Bluetooth:** Bluetooth entzungailu batera aldatzeko, halakorik badago gailuari konektatuta.
-  → **Egonean jarri:** Dei bat atxikitzen. Ukitu **Berreskuratu deia**, atxikitako deia berreskuratzen.
-  → **Kontaktuak:** Kontaktu-zerrenda irekitzeko.
-  → **Oroigarriak:** Ohar bat sortzeko.
-  → **Mezuak:** Mezu bat bidaltzeko.
-  → **Pertsonalizatu deien soinua:** Aukeratu dei-soinu bat, entzungailuekin erabiltzeko.
-  → **Ezarpenak:** Deien doikuntzak aldatzeko.

Dei batean aplikazioak abiaraziz gero, dei-pantailako leiho gainerakorra bistaratuko da (). Telefono bidezko elkarriketarekin jarraitu dezakezu aplikazioak erabiltzen ari zaren bitartean.











Leiho gainerakorra mugitzeko, arrastatu beste leku bateraino.

Leiho gainerakorra ezabatzeko, luze sakatu, eta ukitu **Ezabatu**.

Dei-pantailara itzultzeko, ukitu leiho gainerakorra.

## Bideo-dei bat martxan dela

Aukera hauek dituzu:

-  → **Ezkutatu:** Solaskideak zure irudia ikus ez dezan.
-  → **Irteerako irudia:** Solaskideari erakusteko irudi bat hautatzeko.
-  → **Irudia kapturatu:** Solaskideari argazki bat ateratzeko.
-  → **Grabatu bideoa:** Solaskidearen irudien bideo bat grabatzeko.
-  → **Oroigarriak:** Ohar bat sortzeko.
-  → **Mezuak:** Mezu bat bidaltzeko.
-  → **Teklatua:** Teklatua irekitzeko.
-  → **Bozgorailua desaktibatuta:** Bozgorailua aktibatzeko edo desaktibatzeko. Bozgorailua erabiltzen ari zarela, hitz egin mikrofonotik hurbil (gailuaren goiko aldean), eta jarri gailua belarrietatik urrun.
-  → **Entzungailua desaktibatuta:** Bluetooth entzungailu batera aldatzeko, halakorik badago gailuari konektatuta.
-  → **Gaitu kamera duala:** Kamera dualaren funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko. Erabili aurrealdeko eta atzealdeko kamera solaskideak zu eta zure ingurukoak ikusteko aukera izan dezan.



Kamera bikoitzaren moduan, 3 minuturainoko bideo-deiak egin ahal izango dituzu. 3 minutu igaro ondoren, gailuak atzealdeko kamera itzaliko du, errendimendurik onena lortzeko.

Ukitu pantaila aukera hauek erabiltzeko:

- **Aldatu:** Aurreko kameraren eta atzekoaren artean aldatzeko.
- **Isilarazi:** Mikrofonoa desaktibatzeko, beste solaskideak ez diezazun entzun.
- **Deia am.:** Uneko deia amaitzeko.

# Kontaktuak

## Kontaktuak gehitzea


### Beste gailu batzuetatik kontaktuak ekartzea

Kontaktuak beste gailu batzuetatik zurera ekar ditzakezu. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Kontaktuak beste gailu batzuetatik zurera ekartzea”](#).

#### Kontaktuak eskuz sortzea

1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**.

2 Ukitu **+**, eta idatzi kontaktu bati buruzko informazioa.

-  : Irudi bat gehitzeko.
- **+** / **-** : Kontaktua eremu bat gehitzeko edo ezabatzen.

3 Ukitu **Gorde**.

Teklatua erabiliz kontaktu-zerrendari telefono-zenbaki bat gehitzeko, ukitu **Teklatua**, idatzi zenbakia, eta ukitu **Gehitu kontaktuetara**.

### Kontaktuak sortzea negozio-txartelak erabiliz




Atera argazkia negozio-txartel bati, eta atera datuak.

1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Kontaktuak** > **Kontaktuak**.

2 Ukitu **⋮** → **Bisita txartelak** → **+**.


Gailuak ezagutuko dituen hizkuntzak aukeratzeko edo gehitzeko, ukitu **⋮** → **Helburu hizkuntza**.



- 3 Jarri negozio-txartel bat gainazal lau baten gainean, eta jarri gailua horizontalean.
- 4 Doitu gailua, txartela pantailaren markoen barruan gera dadin. Markoa berde jartzen denean, gailuak argazki bat aterako du automatikoki. Gailuak negozio-txarteleko datuak irakurriko ditu, eta kontaktu bihurtuko ditu.
  - Gailuak argazkia automatikoki ateratzen ez badu, ukitu .
  - Negozio-txartelei argazkiak automatikoki ateratzeko, ukitu  → **Auto kapturatu** → **Desaktibatuta**.
  - Gordetako irudi baten testua ateratzeko, ukitu  → **Kargatu irudia**.
- 5 Editatu edo gehitu datu gehiago, eta ukitu **Gorde**.

## Kontaktuak administratzea


### Kontaktu bat editatzea

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**.
- 2 Hautatu kontaktu bat editatzeko, eta, gero, ukitu .
- 3 Editatu kontaktuaren datuak edo ukitu **Gehitu eremua**, datu gehiago sartzeko.
- 4 Ukitu **Gorde**.

### Kontaktu bat ezabatzea

Aukeratu ezabatu nahi duzun kontaktu bat, eta ukitu  → **Ezabatu**.


### Kontaktu bat partekatzea

Aukeratu partekatu nahi duzun kontaktu bat, ukitu  → **Partekatu bisita txartela**, eta, gero, aukeratu partekatzeko metodo bat.


## Taldeak administratzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**. Ukitu .

### Talde berri bat sortzea

Ukitu , idatzi izen bat taldearentzat, eta, gero, ukitu **Gorde**.


### Talde bati kontaktuak gehitzea

Hautatu talde bat, eta, ondoren, ukitu . Aukeratu gehitu nahi dituzun kontaktuak, eta ukitu **Egina**.


### Talde bat ezabatzea

Ukitu  → **Ezabatu taldea**, aukeratu erabiltzaileak gehitutako taldeak, eta, gero, ukitu **Egina**.

### Mezu bat edo mezu elektronikoa bidaltzea talde bateko kideei

Aukeratu talde bat, ukitu  → **Bidali mezua edo mezu elektr.** → **Mezua** edo **Posta elektronikoa**, aukeratu kideak, ukitu **Egina**, idatzi mezu bat, eta, gero, ukitu bidaltzeko botoia.


## Kontaktuak kontuekin konbinatzea

Konbinatu gailuan gordetako kontaktuak beren kontuekin. Aplikazio-pantailan, ukitu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**. Ukitu  → **Bateratu kontuak** → **Google** edo **Samsung account**.

## Kontaktuak inportatzea eta esportatzea

Inportatu kontaktuak gailuan biltegitzeko zerbitzuetan, edo esportatu kontaktuak gailutik biltegitze-zerbitzuetara.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**.

Ukitu  → **Ezarpenak** → **Kontaktuak** → **Inportatu/esportatu**, eta, gero, hautatu inportatzeko edo esportatzeko aukera bat.

## Kontaktuak bilatzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**. Erabili bilaketa-metodo hauetako bat:


- Mugitu gora edo behera kontaktu-zerrendan.
- Arrastatu hatz bat kontaktu-zerrendaren eskuinean dagoen aurkibidean, azkar mugitzeko.
- Ukitu bilaketa-eremua (kontakto-zerrendaren goiko aldean dago), eta sartu bilaketa-irizpideak.

Kontaktu bat aukeratu ondoren, aukeratu hauetako bat.

- ★ : Gogoko kontaktuei gehitzeko.
- 📞 / 📷 : Ahots-dei bat edo bideo-dei bat egiteko.
- ✉ : Mezu bat idazteko.
- ✉@ : Mezu elektronikoa bat idazteko.

## Pantaila nagusiko kontaktuei lasterbideak gehitzea

Gehitu sarrien hitz egiten duzun kontaktuen lasterbideak pantaila nagusian.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**.
- 2 Hautatu kontaktu bat.
- 3 Ukitu  → **Geh. laster. pant. nagusira**.

# Mezuak eta posta elektronikoa


## Mezuak


### Mezuak bidaltzea

Testu-mezuak (SMS) edo multimedia-mezuak (MMS) bidaltzea.



Litekeena da tokiko zerbitzu-eremutik kanpo zaudenean mezuak bidali edo jasotzeagatik kargu osagarriak izatea.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Mezuak**.
- 2 Ukitu .
- 3 Gehitu hartzaileak, eta idatzi mezu bat.




- 4 Ukitu  mezua bidaltzeko.

Mezu bat idatzi bitartean, ukitu , eta erabili aukera hauetako bat.

- **Erantzun azkarrak:** Mezu-txantiloia bat aukeratu eta mezu bat idazteko.
- **Gehitu emotikonoa:** Aurpegierak txertatzeko.
- **Gaia gehitu:** Gai bat txertatzeko.
- **Gehitu diapositiba:** Mezuari diapositibak gehitzeko.
- **Programa mezua:** Mezua bidaltzeko egun eta ordu jakin batzuk zehazteko.
- **Baztertu:** Sortzen ari zaren mezua ezeztatzeko.
- **Letraren tamaina:** Letra-tipoaren tamaina aldatzeko testu-eremuan.

### Mezu programatuak bidaltzea


Mezu bat idatzi bitartean, ukitu  → **Programatu mezua**. Definitu egun bat eta ordu bat, eta, gero, ukitu **Egina**.




- Zehaztutako orduan itzalita badago gailua, ez badago sarera konektatuta edo sarea ezegonkorra bada, mezua ez da bidaliko.
- Funtzio hori gailuan programatutako datan eta orduan oinarritzen da. Ordu-eremuz aldatuz gero, sareak datuak eguneratzen ez baditu, baliteke eguna eta ordua okerrak izatea.

### Kontaktuak gehitzea lehenetsuen zerrendara

Zehaztu sarrien hitz egiten duzun kontaktuak kontaktu lehenetsi gisa. Bidali iezazkiezu mezuak, kontaktu baten ikonoa aukeratu mezu-zerrendaren goiko aldean.

Ukitu **Lehenetsitako bidaltzaileak gehitzeko** → **Sarrerako ont.** edo **Kontaktuak**, aukeratu gehitzeko kontaktuak, eta ukitu **Egina**. Kontaktua gehiago gehitzeko, ukitu .

Lehenetsun-zerrendatik kontaktuak kentzeko, luze sakatu, eta, gero, ukitu **Editatu bidal. leh. zerr.** →  → **Egina**.

## Sarrerako mezuak ikustea

Kontaktuen arabera katetan elkartzen dira mezuak. Aukeratu kontaktu bat, pertsona horren mezua ikusteko.



Litekeena da tokiko zerbitzu-eremutik kanpo zaudenean mezuak bidali edo jasotzeagatik kargu osagarriak izatea.

Mezu bat irakurri bitartean, ukitu , eta erabili aukera hauetako bat.

- **Bideo-deia:** Kontaktuarekin harremanetan jartzeko bideo-dei baten bidez.
- **Kontaktua ikusi:** Kontaktuaren datuak ikusteko.
- **Kontaktuetara gehitu:** Kontaktua kontaktu-zerrendara gehitzeko.
- **Erantzun azkarrak:** Mezu-txantilo bat erabiliz mezu bat txertatzeko.
- **Hartzailea gehitu:** Mezua bidaliko zaien hartzaileak gehitzeko.
- **Gehitu emotikonoa:** Aurpegierak txertatzeko.
- **Gaia gehitu:** Gai bat txertatzeko.
- **Gehitu diapositiba:** Mezuari diapositibak gehitzeko.
- **Programatu mezua:** Mezua bidaltzeko egun eta ordu jakin batzuk zehazteko.
- **Gehitu bidaltzaile lehenetsiei / Kendu leh. bidaltzaileetatik** Lehenetsuneko bidaltzaileen zerrendan kontaktuak gehitzeko edo kentzeko.
- **Gehitu spam zerbakieta / Kendu spam zerbakietatik.** Telefono-zenbaki bat gogoko ez diren artean sailkatzeko edo hala sailkatutako telefono-zenbaki bat ezabatzeko.
- **Baztertu:** Sortzen ari zaren mezua ezeztatzeko.
- **Letraren tamaina:** Letra-tipoaren tamaina aldatzeko testu-eremuan.

## Mezuak administratzea

Mezu-zerrenda bat ikusi bitartean, ukitu , eta erabili aukera hauetako bat.

- **Aukeratu:** Mezuak aukeratu eta ezabatzeko edo jaso nahi ez den mezu gisa identifikatzeko.
- **Ezabatu:** Mezu guztiak edo aukeratutakoak ezabatzeko.
- **Zirriborro mezuak:** Beste noizbait bidaltzeko gordetako mezuak ikusteko.
- **Blokeatutako mezuak:** Blokeatutako mezuak ikusteko.
- **Programatutako mezuak:** Programatutako mezuak ikusteko.
- **Spam mezuak:** Jaso nahi ez diren mezuak ikusteko.
- **Letraren tamaina:** Letra-tipoaren tamaina aldatzeko testu-eremuan.
- **Ezarpenak:** Mezuen doikuntzak aldatzeko.
- **Laguntza:** Mezuak bidaltzeko eta administratzeko informaziora sartzeko.



## Posta elektronikoa

### Posta elektronikoko kontuak konfiguratzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Posta elektronikoa**.


Posta elektronikoa lehen aldiz irekitzen duzunean, konfiguratu kontu bat.

Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza. Posta elektronikoko kontu pribatu baterako (Google Mail, esaterako), ukitu **Hurrengoa**; enpresa-kontu baterako, ukitu **Eskuzko konfigurazioa**. Gero, segi pantailako jarraibideei, konfigurazioa amaitzeko.


Posta elektronikoko beste kontu bat konfiguratzeko, ukitu  → **Kontuak kudeatu** → .

### Mezuak bidaltzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Posta elektronikoa**.

Ukitu  (pantailaren behealdean). Idatzi hartzaileak, gaia eta mezua, eta, gero, ukitu .

Kontaktu-zerrendako hartzaile bat gehitzeko, ukitu .

Ukitu  irudiak, bideoak eta beste datu batzuk eransteko.

Ukitu  →  mezuan irudiak, gertaerak eta beste zenbait datu gehitzeko.

## Mezu programatuak bidaltzea



Mezu bat idatzi bitartean, ukitu  → **Progr. Mezu elektr.** Aukeratu **Progr. Mezu elektr.**, definitu data bat eta ordu bat, eta, gero, ukitu **Amaituta**.




- Zehaztutako orduan itzalita badago gailua, ez badago sarera konektatuta edo sarea ezegonkorra bada, mezua ez da bidaliko.
- Funtzio hori gailuan programatutako datan eta orduan oinarritzen da. Ordu-eremuz aldatuz gero, sareak datuak eguneratzen ez baditu, baliteke eguna eta ordua okerrak izatea.

## Mezuak irakurtzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Posta elektronikoa**.

Ukitu  , aukeratu erabili nahi duzun posta-kontua, eta mezu berriak berreskuratuko dira. Mezu berriak eskuz berreskuratzeke, ukitu  .

Ukitu mezu bat, irakurtzeko.





## Kontaktuak gehitzea lehenetasunen zerrendara

Zehaztu sarrien hitz egiten duzun kontaktuak kontaktu lehenetsi gisa.

Ukitu ☰ → **Lehentasunezko igorlea** → **Ukitu lehenetsitako bidaltzaileak gehitzeko** → **Ad. H. elek.** edo **Kontaktuak**, idatzi helbide elektronikoak edo aukeratu gehitu nahi dituzun kontaktuak, eta ukitu **Onartu** edo **Amaituta**.

Lehentasunezko kontaktuen zerrendari kontaktuak gehitzeko, ukitu ⊕.

Lehentasunezko kontaktuen zerrendatik kontaktuak ezabatzeko, luze sakatu kontaktu bat, ukitu **Editatu bidaltzaile lehenetsien zerrenda**, ukitu ⊖ kontaktu bakoitzean, eta ukitu **Amaituta**.

## Google Mail

Erabili aplikazio hau Google Mail zerbitzura zuzenean eta azkar sartzeko. Aplikazio-pantailan, ukitu **Google Mail**.




- Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Baliteke aplikazioak beste izen bat edukitzea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Mezuak bidaltzea

Ukitu ✉, gehitu hartzaileak, gaia eta mezu bat, eta, gero, ukitu ▶.

## Mezuak irakurtzea

Ukitu mezu bat, irakurtzeko.



# Kamera


## Argazkiak edo bideoak egitea

### Nola egin argazkiak edo bideoak

Erabili aplikazio hau argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko.

**Galeria** aplikazioak gailuaren kameraz hartutako argazkiak eta bideoak ikusteko aukera ematen du. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu "[Gailuan edukia ikustea](#)".



#### Kamera erabiltzeko arauak


- Ez egin inori argazkirik edo ez grabatu bideorik baimenik gabe.
  - Ez egin argazkirik eta ez grabatu bideorik legez debekatuta dagoen lekuetan.
  - Ez egin argazkirik eta ez grabatu bideorik inoren pribatutasunari eragin diezaiokezun lekuetan.
-  • Kamera automatikoki itzaliko da erabiltzen ari ez bazara.
- Begiratu lentea garbi dagoen. Garbi ez badago, baliteke gailuak ondo ez funtzionatzea bereizmen handia behar duten modu batzuetan.
  - Kameraren aurrealdeko kameraren lentea aldatu egin dezakezu angelu zabaleko argazkiak ateratzeko. Baliteke angelu zabaleko argazkietan distortsio txikiagoa egotea; horrek ez du esan nahi gailuak funtzionamendu-arazoak dituenik.

1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Kamera**.

2 Aurrebistako pantailan, ukitu kamerarekin fokuratu nahi duzun irudia. Irudia fokuratuta dagoenean, fokuratze-markoak kolore berdea izango du.

### 3 Ukitu argazki bat ateratzeko, edo ukitu bideo bat grabatzeko.

- Bideo bat grabatzen ari zarela fokua aldatzeko, ukitu pantaila fokuratu nahi duzun puntuan. Pantailaren erdian fokuratzeko, ukitu .
- Grabatu bitartean bideoko irudi bat gorde nahi baduzu, ukitu .




## Argazkiak eta bideoak ikustea

Argazkiak eta bideoak egin eta berehala ikus ditzakezu, kameraren pantailako miniaturako aurrebista irekita.

Ukitu miniaturako aurrebista, pantailaren beheko eskuineko aldean.

## HDR efektua erabiltzea (tonu aberatsak)

Kolore biziko argazkiak atera eta xehetasun guztiak erreproduzitu ditzakezu eremu oso argi edo ilunetan. Aplikazio-pantailan, ukitu **Kamera** →  eta, gero, atera argazki bat.



Efekturik gabe



Efektua aplikatuta

## Fokuratze selektiboaren modua erabiltzea

Erabili fokutik kanpoko efektua atzealdean zirriborro-efektua aplikatu eta zuk atera nahi duzuna nabarmentzeko.



Efekturik gabe






Efektua aplikatuta

## Modu hau erabili aurretik

- Atera nahi duzuna gailutik 10-50 cm-ra jartzea gomendatzen da. Jarri fokuratu nahi dituzun horiek gailutik hurbil.
- Argazkiak ateratzean, ziurtatu nahikoa tarte dagoela subjektuaren eta atzealdearen artean. Gailuaren eta atera nahi duzunaren arteko distantziaren bikoitza izan behar du tarte horrek.
- Gailuak ateratzen dituen argazkien kalitatean eragina izan dezakete egoera hauek:
  - Mugitzen ari diren helburuen argazkiak.
  - Gailua mugitzen ari dela ateratako argazkiak.
  - Barnealdeetan ateratako argazkiak, argi gutxirekin ateratakoak edo helburuaren atzean argi indartsu bat dagoela ateratakoak.
  - Atzealdea eta helburua bereizten ez diren argazkiak (itzalak, kolore lauak dituzten hormak).

1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Kamera**.

2 Ukitu  pantailaren ezkerreko aldean.

 bistaratzen ez bada, ukitu  → **Fokuratze selektiboa**, aktibatzeko.

3 Aurrebistako pantailan, ukitu kamerarekin fokuratu nahi duzun irudia. Irudia fokuratuta dagoenean, fokuratze-markoak kolore berdea izango du.

4 Sakatu , argazkia ateratzeko.

5 Ukitu miniaturako aurrebista, pantailaren beheko eskuineko aldean, argazkia editatzeko.




6 Ukitu , eta hautatu aukera hauetako bat:

- **Fokatu gertu:** Helburua nabarmentzeko eta atzealdea lausotuta bistaratzeko haren inguruan.
- **Fokatu urrutira:** Helburua lausotuta ikus dadin eta atzealdea nabarmendu dadin haren inguruan.
- **Panorama fokua:** Helburua eta atzealdea nabarmentzeko.

7 Ukitu **Egina**.

## Kamera martxan jartzea pantaila blokeatuan



Une berezietan argazkiak azkar-azkar ateratzeko, abiarazi **Kamera** pantaila lokeatuan.

- 1 Pantaila blokeatuta dagoela, arrastatu  zirkulu handitik kanpora.
- 2 Aurrebistako pantailan, ukitu kamerarekin fokuratu nahi duzun irudia. Irudia fokuratuta dagoenean, fokuratze-markoak kolore berdea izango du.
- 3 Ukitu  argazki bat ateratzeko, edo ukitu  bideo bat grabatzeko.

## Argazkiak ateratzeko modua erabiltzea


Argazki-efektu ugari erabili ahal izango dituzu.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Kamera** → **MODUA**.

- **Auto:** Erabili funtzio hau kamerak ingurua aztertu eta argazkirako modurik onena zehaztu dezan.
- **Aurpegi ederra:** Argazki bat ateratzeko aurpegiak argizatuz, irudi leunagoak ateratzeko.
- **Atera eta geh.:** Argazki ugari atera eta efektuak aplikatzeko. Gailuak  ikurra jarriko die argazkiei **Galeria** barruan.
- **Panorama:** Argazki ugari elkartuz argazki bat osatzeko. Gailuak  ikurra jarriko dio argazkiari **Galeria** barruan.

Irudirik onena eskuratzeko, jarraitu aholku hauei.

- Mugitu kamera, poliki, norabide batean.
- Mantendu kameraren bisorea gidako markoaren barruan.
- Saiatu ez ateratzen argazkirik subjektua atzealde ezagutezinen aurrean dela (zeru hutsa, kolore bakarreko hormak...).

- **Ibilb. birtual. ate.:** Espazio baten argazkiak ateratzeko, gailua mugituz eta zenbait angelutatik argazkiak ateraz, gero irudi estereoskopiko bat sortzeko. Gailuak  ikurra jarriko dio argazkiari **Galeria** barruan.
- **Kamera duala:** Argazki edo bideo horizontalak ateratzeko aurrealdeko edo atzealdeko kamerarekin. Aurrealdeko kamerak ateratzen duen argazkia atzealdekoak ateratako irudian egongo den leihotxo batean bistaratuko da, edo alderantziz.
- **Deskargatu:** **Samsung Apps**-etik argazkiak ateratzeko modu gehiago deskargatzeko.

## Argazkia ateratzeko modua erabiltzea eta beste zenbait

### Argazkia ateratzeko modua erabiltzeari buruz

Erabili modu hau argazki batzuk atera eta aldatzeko, argazkiak ateratzeko moduarekin zenbait efektu aplikatuz.



Zoomaren funtzioa ez dago eskuragarri modu honekin argazkiak ateratzean.


1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Kamera**.

2 Ukitu **MODUA** → **Atera eta geh..**

3 Ukitu .

Gailuak zenbait argazki aterako ditu, eta eskuragarri dauden argazkiak ateratzeko moduak bistaratuko ditu.

4 Aukeratu argazkia ateratzeko modu bat, eta aplikatu efektu bat argazkiei.

- **Argazkirik onen.:** Argazki ugari atera eta onena gordetzeko. Joan ezkerrera edo eskuinera, serieko gainerako argazkiak ikusteko. Gailuak argazkirik onena gomendatuko dizu, eta  ikurrarekin identifikatuko du.



- **Aurpegi ederra:** Taldeko argazki ugari atera eta konbinatuz ahalik eta irudi onena sortzeko. Ukitu aurpegi bakoitzaren marko zuria, eta aukeratu pertsona bakoitzaren irudirik onena pantailaren beheko aldean ageri direnetatik. Gero, konbinatu irudiak, argazki bat ateratzeko. Gailuak argazkirik onena gomendatuko dizu, eta 🗑️ ikurrarekin identifikatuko du.
- **Drama ateraldia:** Argazki ugari atera eta, haiek konbinatuz, mugimendua erakusten duen irudi bat sortzeko.
- **Borratzekoa:** Atzealdean mugitzen ari diren objektu guztiak ezabatzeko. Ukitu ➖ mugitzen ari diren objektuak ezabatzeko. Ukitu ➕ jatorrizko argazkira itzultzeko.
- **Ateraldi panoramikoa:** Atzealdeari efektu bat aplikatzeko, helburua azkar mugitzen ari den itxura izateko. Helburu bat aukeratzeko, ukitu **Objektuak**. Atzealdeari aplikatzeko lauso-efektuaren angelua aldatzeko, ukitu **Mug. laus.** Ukitu ● eta marraztu zirkulu bat hatzarekin zirkulu handiaren inguruan, lauso-efektuaren angelua doitzeko. Atzealdeko lauso-efektuaren maila doitzeko, arrastatu pantaila ezkerrera edo eskuinera.

5 Ukitu 📄.

## Argazki-ateratze dramatikoa

1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Kamera**.

2 Ukitu **MODUA** → **Atera eta geh..**

3 Ukitu 📷.

Gailuak zenbait argazki aterako ditu, eta eskuragarri dauden efektuak bistaratuko ditu.

4 Argazkiak atera ondoren, ukitu **Drama ateraldia**.

5 Aukeratu erabili nahi dituzun mugimendu-arrastoak dituzten argazki gehiago, pantailaren beheko aldean.

Aukeratutako argazkietan mugimendu-arrastoak editatzeko, ukitu ✎, eta aukeratu argazki bat.

Ukitu 🗑️ helburu baten mugimendu-arrastoak bistartzeko, edo ukitu 📄, ezabatzeko. Editatu argazkia nahi duzun bezala, eta ukitu **Egina**.

## 6 Ukitu , gordetzeko.






Irudirik onena eskuratzeko, jarraitu aholku hauei. Baliteke gailuak argazkiak ondo ez ateratzea beste baldintza batzuetan.

- Eutsi tinko kamerari, eta egon geldi argazkiak ateratzean.
- Norabide batean mugitzen ari diren subjektuei atera argazkiak.
- Atzealdean objekturik mugitzen ari ez denean atera argazkiak.
- Argazkiak ateratzean, subjektuak eta atzealdeak ez ditzatela antzeko koloreak izan.

## Kamera dualaren modua erabiltzea

Atzeko kamerarekin paisaia baten argazkia ateratzean, aurreko kamerarekin ateratako argazkia edo bideoa leiho batean bistaratuko da, eta alderantziz. Erabili funtzio hau paisaia ederrei argazkiak ateratzeko eta, aldi berean, zeure buruari argazkia ateratzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Kamera** → **MODUA** → **Kamera duala**, kamera bikoitzaren modura aldatzeko. Ukitu  argazki bat ateratzeko, edo ukitu  bideo bat grabatzeko.




- Kamera bikoitzaren moduan, 5 minuturainoko bideoak grabatu ahal izango dituzu Full HD moduan, eta 10 minuturainokoak HD edo VGA moduan.
- Modu horretan bideoak grabatu bitartean, barneko mikrofonoak soinua grabatuko du.

## Ibilbide birtualaren modua erabiltzea


### Ibilbide birtualaren moduari buruz

Erabili argazkiak ateratzeko modu hau argazkiak ateratzeko leku batean aurrera joanez edo ezkerrera edo eskuinera biratuz. Gailuak zenbait angelutatik aterako ditu lekuaren argazkiak. Argazkiak diapositiba-aurkezpen batean ikus ditzakezu, leku horretan bertan mugitzen ari bazina bezala.


- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Kamera**.
- 2 Ukitu **MODUA** → **Ibilb. birtual. Aterald.**
- 3 Mugitu gailuarekin, aurrebistako pantailaren erdian dagoen zirkulu handiaren barruan gera dadin puntua. Gailuak detektatu egingo du noiz gelditzen zaren, eta argazkiak ateratzen hasiko da.



- 4 Mugitu, pixkanaka aurrera, edo biratu ezkerrera edo eskuinera, argazkiak ateratzen dituzun bitartean. Puntua zirkulu handiaren erdian geratzen den bakoitzean, gailuak argazkiak aterako ditu automatikoki.



5 Mugitu gailua, pixkanaka, geziak adierazten duen norabidean. Puntua zirkulu handiaren erdian dagoenean, gailua argazkiak ateratzen hasiko da. Errepikatu pauso hori argazki gehiago ateratzeko.

Argazkiaren aurrebista bat ikusteko, ukitu , pantailaren beheko ezkerreko aldean. Argazkiak zer norabidetan atera ziren ikusiko da aurrebista bakoitzaren miniaturan.

Ateratako azken argazkia ezabatzeko, ukitu **Desegin**.

6 Bukatzeko, ukitu  .

## Argazkiak ikustea


Ikusi zenbait lekutatik eta zenbait norabidetan ateratako argazkiak.

1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Galeria**.

2 Aukeratu miniaturan  ikonoa duen irudi bat.

3 Ukitu .

Gailuak diapositiba-aurkezpen batean bistaratuko ditu argazkiak.




## Iragazki-efektuak aplikatzea

Erabili iragazki-efektuak argazki edo bideo bereziak egiteko.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Kamera**.
- 2 Ukitu **⚙️** → **Efektuak**, eta aukeratu aplikatu nahi duzun efektu bat.  
Efektu gehiago deskargatzeko, ukitu **Deskargatu**.  
Efektuen ordena aldatzeko edo zerrendako efektuak ezkutatzeko, ukitu **Kudeatu efektuak**.

## Zoomaren funtzioa erabiltzea

Handitu edo txikitu argazkiak edo bideoak egitean pantailak duen zooma.




Bereizi bi hatz pantailan zooma handitzeko, eta elkartu txikitzeko.





Zoom-efektua erabil dezakezu bideo bat grabatu bitartean zoom-funtzioa aukeratuz gero.

## Urruneko bisorearen modua erabiltzea

Erabili gailua beste gailu baterako bisore gisa. Gailua urrunetik kontrolatu dezakezu, argazkiak edo bideoak urrunetik egiteko. Konektatutako gailuko irudi bera bistaratuko du zure gailuak.




- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Kamera**.
- 2 Ukitu  → **Urrut. ikus. bilatzailea**
- 3 Ukitu **Erraz konektatu NFC bidez** edo **Wi-Fi Direct ezarpenak**, beste gailuarekin konektatzeko.
  - **Erraz konektatu NFC bidez:** Bi gailuetan NFC funtzioa aktibatzeke.
  - **Wi-Fi Direct ezarpenak:** Bi gailuetan Wi-Fi Direct funtzioa aktibatzeke.
- 4 Aurrebistako pantailan, ukitu gailuarekin fokuratu nahi duzun irudia.
- 5 Ukitu  konektatutako gailuaren bisorean bistaratzen den argazkia ateratzeko.




Ziurtatu konektatu nahi duzun gailuak onartzen duela urruneko bisorearen funtzioa.


## Kameraren doikuntzak aldatzea

### Kameraren lasterbideak berrantolatzea

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Kamera** → .
- 2 Luze sakatu elementu bat, eta arrastatu pantailaren ezkerreko aldean dagoen zirrikituraino. Kameraren lasterbideak berrantola ditzakezu, aurrebista-panelera azkar eta erraz sartzeko.



### Doikuntzak konfiguratzeko

Aplikazio-pantailan, ukitu **Kamera** → . Baliteke aukeretako batzuk eskuragarri ez egotea kamera-eta bideokamera-moduetan. Eskuragarri dauden aukerak desberdinak dira erabiltzen den moduaren arabera.

- **Arg. neurria:** Bereizmena aukeratzeko. Erabili bereizmen handiagoa kalitate handiagoa izateko. Zenbat eta handiagoa aukeratu, orduan eta leku handiagoa hartuko da memorian.
- **Jarraikako ateraldiak:** Mugitzen ari diren helburuen argazki-serie bat ateratzeko.
- **Irudi egonkortzea:** Gailua konfiguratzeko automatikoki detekta ditzan kondiziorik ilunenak eta argazkiaren distira doitu dezan flashik gabe.



Aukera hau ez dago eskuragarri bideoak grabatzean.

- **Aurpegi detekzioa:** Gailua definitzeko jendearen aurpegia araka dezan eta argazkiak ateratzen lagundu diezazun.
- **ISO:** ISO balio bat hautatzeko. Kamerak argirako duen sentsibilitatea kontrolatzen du. Film-kamera baliokidetan neurtzen da. Balio txikiak objektu finkoetarako edo ondo argiztatuetarako erabiltzen dira. Balio handienak argi gutxiko objektuetarako edo azkar mugitzen direnetarako dira egokiak.
- **Neurketa moduak:** Neurketa-metodo bat aukeratzeko. Argiztapen-balioak nola kalkulatu zehazten du. **Zentratuta** aukerak eszenaren erdialdeko atzeko argia neurtzen du. **Puntua** aukerak, berriz, leku espezifiko bateko argi-balioa neurtzen du. **Matrizea** aukerak eszena guztia orekatzen du.
- **Ukitu argazkiak ater.:** Aurrebistaren pantailako irudia ukitzeko, argazkiak ateratzeko.
- **Fokuratze selektiboa:** Erabil aukera hau argazkiak fokutik kanpoko efektuarekin ateratzeko.
- **Bideoaren neurria:** Bereizmena aukeratzeko. Erabili bereizmen handiagoa kalitate handiagoa izateko. Zenbat eta handiagoa aukeratu, orduan eta leku handiagoa hartuko da memorian.
- **Grabaketa modua:** Grabazio-modua aldatzeko.
- **Bideo egonkortzea:** Mugimenduaren aurkako funtzioa aktibatze edo desaktibatze. Funtzio horrek helburua fokuratzen laguntzen du kamera mugitzen ari dela.
- **Audio zooma:** Grabaketan handitutako helburuaren soinua handitzeko.
- **Efektuak:** Eskuragarri dauden argazki-efektuen artean aukeratzeko.
- **Flasha:** Flasha aktibatze edo desaktibatze.
- **Tenporiz.:** Erabili doikuntza hau argazkia denbora-tarte jakin batera atzeratzeko.
- **HDR (Rich tone):** Argazkietako kontrastearen tarte hobetzeko. HDR funtzioak hobetu egiten ditu argi gehiegi edo gutxiegi dagoen lekuetako xehetasunak.
- **Kokapen etiketa:** Argazkiari GPS kokapen-etiketa bat eranste.



- GPS seinalea hobetzeko, ez atera argazkirik seinalea oztopatu litekeen tokietan edo egoeretan, besteak beste, eraikinen artean, eremu baxuetan edo eguraldi txarra egiten duenean.
- Zure kokapena argazkietan ager liteke Interneten kargatzean. Halakorik ez gertatzeko, indargabetu GPS etiketaren doikuntza.




- **Memoria:** Memoriako zer kokapenetan gorde aukeratzeko.
- **Berrikusi argazkiak/bid.:** Gailua konfiguratzeko, argazkiak edo bideoak egin ondoren bistaratu ditzan.
- **Urrut. ikus. bilatzailea:** Gailua konfiguratzeko, bisore gisa erabili eta beste gailua kontrolatzeko argazkiak eta bideoak ateratzean.
- **Zurien balantzea:** Aukeratu zurien balantze egoki bat, irudiek errealitateko kolorearen antzekoa izan dezaten. Argi-egoera espezifikoetarako diseinatuta daude doikuntzak. Kamera profesionaletan zurien balantzearen esposizioarako egon ohi den bero-tartearen antzekoak dira doikuntza horiek.
- **Esposizio balioa:** Esposizioaren balioa aldatzeko. Kameraren sentsoareak jasotzen duen argi-kantitatea zehazteko. Argi gutxi dagoen lekuetan, esposizio handiagoa erabili behar da.
- **Gidari lerroak:** Bisorean gidak agertzeko, helburuak hautatzean argazkia osatzen laguntzeko.
- **Ahots kontrola:** Gailua konfiguratzeko, ahots-komandoak erabiliz argazkiak atera ditzan.
- **Laguntza:** Kamera erabiltzeko laguntza-informaziora sartzeko.
- **Berrezar.:** Kameraren doikuntzak leheneratzeko.

# Galeria

## Gailuan edukia ikustea

### 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Galeria**.



### 2 Hautatu irudi bat.


- Zenbait irudi hautatzeko:

Irudi bat luze sakatzuz gero, ✓ bistaratuko da irudian bertan. Gero, ukitu irudiak, gehiago aukeratzeko.

- Irudi guztiak hautatzeko:

Irudi bat luze sakatzuz gero, ✓ bistaratuko da irudian bertan. Gero, ukitu (...) **1 aukeratuta** → **Hautatu**.

### 3 Hautatu aukera bat.



### Beste gailu batzuetan gordetako edukia ikustea

Samsung Linkekin erregistratutako beste gailu batzuetan erregistratutako edukiak ikus ditzakezu. Hasi saioa zure Samsung account-ean, edukiak eskuragarri dituzten gainerako gailuen zerrenda ikusteko. Ziurtatu erregistratutako gailuak piztuta eta WiFi sare batera edo sare mugikor batera konektatuta daudela. Sartu [link.samsung.com](http://link.samsung.com) webgunean informazio gehiago eskuratzeko.



Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea beste gailu batzuetan gordetako edukira sartzen bazara sare mugikor baten bidez. Kargu gehigarririk ez izateko, erabili WiFi-a.

Ukitu , aukeratu **ESKURA DAUDEN GAILUAK** ataleko gailu bat, eta, gero, aukeratu edukiak.

## Gailuan edukia aldatzea

### Estudio-modua erabiltzea

Irudiak edo bideoak ikusten dituzun bitartean, estudio-moduko edizio-funtzioak erabil ditzakezu edukia editatzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Galeria** → ☰ → **Estudioa**.

- **Argazki estudioa:** Irudiak editatzeko, zenbait efektu aplikatuz.
- **Collage estudioa:** Zenbait irudi konbinatuz collage bat sortzeko.
- **Atera eta geh.:** Ateratako irudiei zenbait efektu aplikatzeko.
- **Bideo klip estudioa:** Zenbait irudirekin bideoak editatzeko edo sortzeko.
- **Bideoa moztekoa:** Bideo baten zatiak mozteko.


### Irudiak editatzea

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Galeria**.
- 2 Ukitu ☰ → **Estudioa** → **Argazki estudioa**, eta, gero, aukeratu irudi bat.
- 3 Editatu irudia, zenbait efektu aplikatuz.




4 Ukitu **Gorde honela** → .

5 Aukeratu gordetzeko aukera bat, eta ukitu **Onartu**.

Editatutako irudia **Estudioa** karpetan gordeko da. Karpeta irekitzeko, ukitu **Galeria** →  → **Estudio** → **Argazki estudioa**.

## Bideoak editatzea

1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Galeria**.

2 Ukitu  → **Estudioa** → **Bideo klip estudioa**.


3 Hautatu bideoak editatzeko, eta ukitu **Egina**. Bestela, hautatu irudiak bideo bat sortzeko.

4 Editatu bideoa, zenbait efektu aplikatuz.




5 Ukitu .

6 Aukeratu gordetzeko aukera bat, eta ukitu **Egina**.

Editatutako bideoa **Estudioa** karpetan gordeko da. Karpeta irekitzeko, ukitu **Galeria** →  → **Estudioa** → **Argazki estudioa**.

## Aukera gehigarrietara sartzea

Erabili aukera osagarriak, hala nola edukiak ordenatzea, diapositiba-aurkezpenak ikustea eta beste hainbat.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Galeria** → , eta, gero, erabili aukera hauek:

- **Hautatu:** Irudiak edo bideoak aukeratzeko.
- **Ezabatu:** Irudiak edo bideoak ezabatzeko.
- **Sailkatu zaharrenaren arabera:** Gailuko irudi eta bideo zaharrenak ordenatzeko.
- **Albuma sortu:** Album berri bat sortzeko.
- **Erakusteko edukia:** Bistaratu nahi dituzun irudiak edo bideoak aukeratzeko.
- **Aurkezpena:** Uneko karpetako irudiekin diapositiba-aurkezpena abiarazteko.
- **Estudioa:** Estudio-moduan irudiak edo bideoak editatzeko.
- **Ezarpenak:** Galeriaren doikuntzak aldatzeko.
- **Laguntza:** Galeriaren erabilerari buruzko laguntza-informaziora sartzeko.

## Aurpegiak etiketatzea

Irudiko argazkiak erregistratzeko aurpegi-etiketa gisa.

1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Galeria**.

2 Ukitu  → **Ezarpenak**, eta, gero, hautatu **Aurpegi-etiketa**. Marko zuri bat bistaratuko da ezagutzen dituen aurpegien inguruan.

3 Ukitu aurpegia, eta ukitu **Izena gehitu**.

4 Aukeratu edo gehitu edukiak etiketari.

Irudi batean aurpegiaren etiketa bistaratzen denean, ukitu etiketa, eta erabili eskuragarri dauden aukerak (deiak egitea edo mezuak bidaltzea, adibidez).



Hainbat arrazoiengatik huts egin lezake aurpegia ezagutzeak: angelua, tamaina, azalaren kolorea, aurpegiera, argia, pertsona horrek dituen osagarriak...


## Tag Buddy erabiltzea

Tag buddy erabiliz, argazkiak etiketatu ditzakezu informazioa gehituz, adibidez, jendearen izena eta datak.

Tag buddy aktibatzeko, aplikazio-pantailan, ukitu **Galeria** →  → **Ezarpenak** → **Tag buddy**, eta, gero, arrastatu Tag buddy etengailua eskuinera.

Hautatu etiketa-aukera hauetako bat:


- **Data:** Eguna eta ordua gehitzeko. Etiketaturako informazioa gailuaren uneko datan eta orduan oinarritzen da.
- **Kokalekua:** Ateratako argazkietan kokapenari buruzko xehetasunak gehitzeko. Funtzio hau erabili aurretik, aktibatu GPS funtzioa **kameran**.
- **Kategoria:** Irudiei kategoriak esleitzeko. Gailuak kategoriak esleituko dizkie irudiei, automatikoki.
- **Etiketak:** Etiketak gehitzeko, argazkietan bistaratu daitezten. **Aurpegi-etiketa** doikuntza erabiliz ere etiketatu ditzakezu jendearen aurpegiak. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Aurpegiak etiketatzea”](#).


Tag buddyrekin sartutako datuak edita ditzakezu. Etiketak dituen irudi bat ikusten ari zaren bitartean, ukitu etiketaren datuak (pantailaren beheko aldean dago). Gero, ukitu  , editatu xehetasunak, eta ukitu **Egina**.

# Internet eta sare sozialak

## Internet

### Webguneetan nabigatzea

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Internet**.
- 2 Ukitu helbide-eremua. Bilaketa-motorra aldatzeko, ukitu bilaketa-motorraren ikonoa (web-helbidearen eremuaren alboan).
- 3 Idatzi web-helbidea edo hitz gako bat, eta ukitu **Ir**. Webgunean ahots bidez bilatzeko, ukitu  .  
Tresna-barrak ikusteko, arrastatu hatza behera, pixkanaka.







## Gogoko webguneak administratzea

Maiz erabiltzen dituzun webguneak gogoko orrialde gisa zehaztu ditzakezu, eta haietara azkar-azkar sartu.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Internet**.


Ukitu  lasterbide-zerrenda ikusteko.

Lasterbide-zerrendari webgune bat gehitzeko, webgune bat ikusten ari zarela, ukitu  → **Gehitu sarbide azkarrera**.

Webgune bat lasterbide-zerrendatik ezabatzeko, luze sakatu webgunearen ikonoa, eta arrastatu **Ezabatu** aukeraraino (pantailaren goiko aldean).

## Webguneen historia administratzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Internet**.

Ukitu  → **Historia**, azkenaldian ikusitako orrialdeen zerrendako web-orri bat irekitzeko.

Historia ezabatzeko, ukitu  → **Garbitu historia**.

Historiatik webguneak ezabatzeko, ukitu  → **Ezabatu**, aukeratu ezabatzeko webguneak, eta ukitu **Amaituta**.

## Chrome

Erabili aplikazio hau webguneetan informazioa bilatzeko eta nabigatzeko. Aplikazio-pantailan, ukitu **Chrome**.



Baliteke aplikazio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Ukitu helbidearen eremua, idatzi web-helbidea edo hitz gako bat, eta, gero, ukitu **Joan**.

## Hangouts

Erabili aplikazio hau lagunekin hitz egiteko, banaka edo taldeka.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Hangouts**.



Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Hautatu lagun bat lagunaren zerrendan, edo sartu bilatzeko datuak eta hautatu lagun bat emaitzetan, elkarrizketa hasteko.

## ChatON


Erabili aplikazio hau lagunekin hitz egiteko, banaka edo taldeka. Zure Samsung account-en saioa hastean, erregistratutako gailuetatik bidalitako elkarrizketen historia osoa ikus dezakezu.

Aplikazio-pantailan, ukitu **ChatON**.





Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Segitu pantailan agertzen diren jarraibideei konfigurazioa osatzeko.



## Lagunekin hitz egitea

Ukitu  → **Start chat**, eta aukeratu lagun bat elkarrizketa hasteko. Gero, idatzi mezu bat testu-eremuan, eta ukitu .

Transmisio-mezu bat bidaltzeko, ukitu  → **Broadcast**.

Ahots- edo bideo-txata martxan jartzeko, ukitu  → **ChatON Voice Chat** edo **ChatON Video Chat**.



Kamera bikoitzaren moduan, 3 minuturainoko bideo-txatak egin ahal izango dituzu. 3 minutu igaro ondoren, gailuak atzealdeko kamera itzaliko du, errendimendurik onena lortzeko.

# S Health

## S Healthi buruz

Erabili aplikazio hau kaloria-kontsumoa eta erretako kaloria-maila zehazteko zure estatistika fisikoen arabera. Zenbat kaloria jaten eta zenbat erretzen dituzun erregistratzeko erabil dezakezu. Gainera, aplikazioak ariketak eta osasun-iradokizunak gomendatuko dizkizu, bizimodu osasungarria izan dezazun laguntzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **S Health**.

## S Healthen funtzioak

S Healthekin, funtzio hauetara ere sar zaitezke:

- **Podometroa:** Ematen dituzun pausoak zenbateko.
- **Ariketa:** Egin nahi dituzun ariketak konfiguratzeko eta administratzeko. Ariketei buruzko informazioa erregistra eta egiazta dezakezu, esaterako, kantitatea, abiadura eta erretako kaloriak. Gainera, aire librean kirola egiten ari zarenean, Ejercicio funtzioa erabil dezakezu argazkiak ateratzeko, musika entzuteko eta zure kokapena aurkitzeko.
- **Elikagaiak:** Kaloria-kontsumoa administratzen laguntzen dizu.

## S Health erabiltzen hastea

Aplikazio hau lehen aldiz exekutatzan duzunean, irakurri eta onartu terminoak eta baldintzak, eta konfiguratu erabiltzaile-profil bat.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **S Health**.
- 2 Irakurri pantailan ageri den aplikazioari buruzko informazioa, eta ukitu **Hurr..**
- 3 Irakurri eta onartu terminoak eta baldintzak, eta ukitu **Hurr..**
- 4 Hasi saioa zure Samsung Account-en. Bestela, ukitu **Pasatu**, prozedura horri kasurik egin gabe aurrera jarraitzeko.
- 5 Idatzi erabiltzaile-izen bat eta jaiotza-data, aukeratu genero bat, eta ukitu **Hurr..**  
S Healthen beste erabiltzaile batzuek zure profila ikusi ez dezaten, aukeratu **Ezkatatu nire profileko informazioak beste S Health erabiltzaileei**
- 6 Sartu zure estatistika fisikoak, eta ukitu **Hurr..**
- 7 Aukeratu jarduera-maila bat, eta ukitu **Hurr..**

Profila konfiguratzan bukatzen duzunean, zuk sartutako datuak bistaratuko dira.



Zure estatistika fisikoen arabera, zure tarte metaboliko basala kalkulatu du gailuak, eta egunean zenbat kaloria jatea komeni zaizun esango dizu. Baliteke haren gomendioa ez izatea egokia adin, gorputz-mota eta elikadura-behar guztietarako.

- 8 Begiratu zure profilaren datuak, eta ukitu **Hasi**.

S Healthen pantaila nagusia bistaratuko da.


## S Healthen pantaila nagusia pertsonalizatzea

Ikusi gaur egungo pauso-kontaktaren laburpena eta zenbat kaloria erre edo jan dituzun. Bestalde, lasterbideak berrantolatu ditzakezu S Healthen menuetara erraz sartzeko eta S Healthen pantaila nagusiaren atzealdeko irudia aldatzeko.

S Healthen pantaila nagusian, ukitu  → **Editatu gogokoak**, eta ukitu  S Healthen pantaila nagusiari lasterbideak gehitzeko.

Lasterbideak ezabatzeko, ukitu .

S Health aplikazioaren menu-pantailara sartzeko.



Aukera gehigarrietara sartzeko.

Pauso-kopuruaren laburpenak, erre nahi dituzun kaloriak eta kontsumitutakoak.

S Healthen menuetarako lasterbideak.


Aplikazioak bilatzeko eta deskargatzeko.

Ukitu , eta erabili funtzio hauek:

- **Editatu gogokoak:** S Healthen menurako lasterbideak gehitzeko edo editatzeko.
- **Ezarri hondoa:** Atzealdeko irudi bat aukeratzeko.
- **Ezarpenak:** S Healthen doikuntzak konfiguratzeko.
- **Laguntza:** S Health aplikazioaren erabilerari buruzko informazioa ikusteko.

## S Healthen menuak erabiltzea

Ukitu ☰ zenbait menutara sartzeko.



- **Podometroa:** Kontatu pausoak eta begiratu zenbat kaloria kontsumitu dituzun. Xehetasun gehiago ikusteko, kontsultatu [“Pauso-kopurua neurtzea”](#).
- **Ariketa:** Ariketaren iraupena erregistratu eta zenbat kaloria erre diren ikusteko. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Ariketen datuak erregistratzea”](#).
- **Elikagaiak:** Kaloria-kontsumoa erregistratzeko eta administratzeko. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Jandako elikagaiak erregistratzea”](#).
- **Apl. geh.:** S Healthekin sinkronizatuko diren aplikazioak bilatzeko eta deskargatzeko.



**Apl. geh.** aukeraren bidez deskargatu dezakezu S Healthetik deskargatutako funtzio edo aplikazioei buruzko informazio gehiago. Funtzio edo aplikazio bati buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ireki ezazu. Gero, ukitu ☰ → **Laguntza**, aukeratu gai bat, eta ukitu **Erabiltzailearen eskuliburua**.


## Pauso-kopurua neurtzea

Egin dituzun pausoak kontatuko ditu gailuak, eta egindako distantzia neurtuko du. Erre dituzun kaloriak ere neurtzen ditu, sentsoare baten bidez.

1 Ukitu **☰** → **Podometroa**.

2 Ukitu **Hasi**, eta hasi oinez.


Gailuak emandako pauso-kopurua, egindako distantzia eta erretako kaloriak neurtuko ditu, eta denbora errealean emango ditu datuak.



3 Neurketa geldiarazteko, ukitu **Eten** → **Ados**.

Neurketak gorde egingo dira.




Ukitu , eta erabili funtzio hauek:

- **Ezarri helburua:** Egin nahi duzun pauso-kopurua aldatzeko.
- **Berrezarri eguneko datuak:** Eguneroko pauso-kontaketa berrezartzeko.
- **Partekatu honela:** Uneko orrialdea beste batzuei bidaltzeko.
- **Ezarpenak:** S Healthen doikuntzak konfiguratzeko.
- **Laguntza:** S Health aplikazioaren erabilerari buruzko informazioa ikusteko.



- Baliteke atzerapen apur bat izatea podometroak zure pausoak kontrolatu eta pauso-kontaketa bistaratu bitartean.
- Autoan edo trenean zoazela erabiltzen baduzu podometroa, baliteke bibrazioak pauso-kontaketari eragitea.

## Pauso-kontaktako datuak grafiko batean ikustea

Ikusi grafiko batean zenbat kaloria erre dituzun denbora-tarte jakin batean. Podometroaren pantaila nagusian, ukitu  .

S Health aplikazioaren menu-pantailara sartzeko.




## Eguneko pausoen erregistroak berrezartzea

Gailuak metatu egiten ditu egun bakoitzeko pausoen erregistroak.

Eguneko pausoen kontaketa berrezartzeko, ukitu  → **Berrezarri eguneko datuak** → **Ados**.

## Ariketen datuak erregistratzea

Erregistratu zure ariketa-datuak eta erretako kaloriak, S Health ariketa-funtzioarekin. Grafiko batean ikus ditzakezu egindako ariketak eta erretako kaloriak, eta beste batzuekin parteka ditzakezu.

Ukitu  → **Ariketa**.





- Funtzio hau erabili aurretik, haurdun dauden emakumeek, adineko pertsonak, ume txikiek eta zenbait arazo dituzten erabiltzaileek (hala nola bihotzeko gaixotasunak edo arteria-presio altua) mediku ziurtatu bati galdetu behar diote.
- Zorabiatuta sentitzen bazara, mina badaukazu edo kirola egitean arnasa hartzea kostatzen bazaizu, utzi funtzio hau erabiltzeari, eta galdetu mediku ziurtatu bati.


## Kirola egiten hastea

- 1 Ejercicio aukeraren pantaila nagusian, zehaztu ariketa-mota, aktibatu edo desaktibatu ahots-gida, hautatu atzealdeko musika, eta ukitu **Hasi**.

Gailuak ariketa-denbora erregistratuko du, eta helbururako aurrerapena erakutsiko du.

## 2 Hasi ariketa egiten, eta erabili pantailaren funtzioak.

Ukitu  pantaila blokeatzeko eta ariketari buruzko informazioa soilik bistaratzeko. Pantaila desblokeatzeko, luze sakatu .



## 3 Kirola egiteari uzteko, ukitu **Eten** → **Eten**.

Ariketari buruzko informazioa, egindako distantzia eta ateratako argazkiak izango dituzu ikusgai pantailan.

## 4 Sartu datu osagarriak, eta ukitu **Egina**. Gailuak gorde egingo du ariketari buruzko informazioa.

Ukitu , eta erabili funtzio hauek:


- **Bihotz frek.:** Gailua konfiguratzeko, automatikoki konfigura dezan bihotzaren erritmoa zure profilaren eta aurreko neurketen arabera. Aukera ematen du, halaber, bihotzaren erritmoa konfiguratzeko, gero eguneratu eta eskuz sartzeko.
- **Berrezarri eguneko datuak:** Eguneroko ariketen erregistroak berrezartzeko.
- **Ezarpenak:** S Healthen doikuntzak konfiguratzeko.
- **Laguntza:** S Health aplikazioaren erabilerari buruzko informazioa ikusteko.

## Entrenatzailearen funtzioa erabiltzea ariketa-moduan lasterka zabiltzala

Erabili entrenatzaile pertsonalaren funtzioa, modu seguru eta eraginkorrean kirola egiteko. Entrenatzaile baten aholkularitza jasoko duzu denbora errealean, kirola modu seguru eta eraginkorrean egin dezazun, sasoiari egoteko.

Konektatu gailua bihotzaren erritmoaren neurgailura, entrenatzailearen funtzioa erabiltzeko.



Bihotzaren erritmoaren kontrolatzaileak ikusteko, ukitu  → **Ezarpenak** → **Osagarri bateragarriak** → **Ariketa**.

## Entrenatzailearen funtzioari buruz


Entrenatzailearen funtzioak barnean hartzen du Firstbeat teknologia, zeinak laguntza pertsonalizatua ematen baitu kirola egiteko. Firstbeat teknologiak entrenamenduaren eraginaren azterketa (TE) erabiltzen du: ariketa-saio batean metatutako karga fisikoa neurtzeko, eta ariketaren eragina neurtzen du. Entrenamenduaren eraginaren mailan erabiltzailearen profil fisikoan oinarritzen dira, eta bihotzaren erritmoaren datuak erregistratuta geratzen dira erabiltzailea kirola egiten ari dela. Entrenamenduaren eragina handitu egingo da ariketa eginez gero, eta entrenatzailearen funtzioak entrenamendu-eragina erabiliko du iruzkinak egiteko.


Funtzioak iruzkinak egiten ditu, hala nola "handitu abiadura", "mantendu erritmoa" eta "murriztu abiadura". Entrenatzailearen funtzioa erabiltzen hasten zarenean, zure profilaren arabera entrenamendu-eragina kalkulatuko dizu. Kirola egiten jarraitu ahala, funtzioak zure entrenamendu-historia aztertuko du, eta laguntza pertsonalizatua emango dizu. Ohiko ariketa-programa bat intentsitate baxutik hasi eta handitzen joan liteke.

Sartu [www.firstbeat.fi/te](http://www.firstbeat.fi/te) webgunean informazio gehiago eskuratzeko.




Kirola egiten ari zarela, baliteke bihotzaren erritmoaren kontrolagailuak ondo ez funtzionatzea izerdi gehiegi badu inguruan edo lekuz mugitzen bada.

- 1 Jarri soinean bihotzaren erritmoaren kontrolagailua.
- 2 Ariketa aukeraren pantaila nagusian, ukitu  → **Eskaneatzen.**



- 3 Aukeratu bihotzaren erritmoaren neurgailua, detektatutako gailuen zerrendan.
- 4 Jarraitu pantailako argibideei, bihotzaren erritmoaren kontrolagailua gailuarekin konektatzeko.

5 Konexioa ezarri ondoren, ukitu **Korrika**, Ariketa aukeraren pantaila nagusian.




6 Ukitu **Oinarrizko entrenamendua** → **Ezarri entrenamendu helb..**

7 Ukitu **Auto**, leiho gainerakorrean, bihotzaren gehieneko erritmoa automatikoki konfiguratzeko.




Bihotzaren gehieneko erritmoa da pertsona bat kirola egiten ari dela izan dezakeen erritmorik azkarrena. Zure bihotzaren gehieneko erritmoa zein den badakizu, idatzi eskuz. Bihotzaren gehieneko erritmoa automatikoki neurtzeko konfiguratzen baduzu, gailuak formula honekin kalkulatu du: "210-0,65 x adina".

## 8 Zehaztu ariketaren intentsitatea, eta ukitu **Hurr.**




Doitu entrenamenduaren intentsitatea eskuragarri dauden hiru mailetako batean.

## 9 Zehaztu ariketaren denbora, eta ukitu **Egina.**

 Gomendatutako ariketa-denbora baino laburragoa zehazten baduzu, ariketaren intentsitatea handitu egingo da, entrenamenduaren eraginaren helburua lortzeko.

10 Ejercicio aukeraren pantaila nagusian, aktibatu edo desaktibatu ahots-gida, hautatu atzealdeko musika, eta ukitu **Hasi.**

11 Kirola egiten hasteko.

 Gorputzean arazoren bat nabaritzen baduzu entrenatzailearen funtzioa erabiltzen ari zarela, utzi funtzioa erabiltzeari.


12 Kirola egiteari uzteko, ukitu **Eten** → **Eten.**

13 Ikusi zenbat denbora eman duzun kirola egiten, zer distantzia egin duzun eta zenbat kaloria erre dituzun, eta ukitu **Egina**, ariketaren datuak gailuan gordetzeko.

## Erretako kalorien erregistroa ikustea

Alderatu denbora-tarte jakin batean erre dituzun kalorien erregistroak, grafiko batean ikusiz.



Ejercicio aukeraren pantaila nagusian, ukitu  .






## Jandako elikagaiak erregistratzea

Erregistratu egunean kontsumitzen dituzun elikagaiak, eta administratu kaloria-kontsumoa.

- 1 Ukitu  → **Elikagaiak**.
- 2 Ukitu , (janariaren alboan dago).
- 3 Idatzi jatorduen ordutegiari buruzko datuak, eta ukitu **Egina**.
  - Jatordu bat bilatzeko, ukitu **Bilatu**, eta aukeratu dagokion janaria bilaketaren emaitzetan.
  - Kategoriaren arabera ordenatutako janari-zerrenda batetik aukeratzeko, ukitu **Kategoria**.
  - Maiz jaten dituzun jakietako bat aukeratzeko, ukitu **Ohikoak**.
  - Mi lista de comidas aukeratik hautatzeko, ukitu **Nire elikagaiak**.
- 4 Idatzi janariari buruzko datu osagarriak, eta ukitu **Gorde**.

Janariari buruzko datuak kaloria-kontsumo gisa erregistratuko dira.



Ukitu , eta erabili funtzio hauek:


- **Eguneko kaloria helburuak:** Egunean jan nahi duzun kaloria-kopurua aldatzeko.
- **Nire elikagaiak:** Maiz jaten dituzun elikagaiak gehitzeko.
- **Berrezarri eguneko datuak:** Jandako kaloriei buruzko datuak berrezartzeko.
- **Partekatu honela:** Uneko orrialdea beste batzuei bidaltzeko.
- **Ezarpenak:** S Healthen doikuntzak konfiguratzeko.
- **Laguntza:** S Health aplikazioaren erabilerari buruzko informazioa ikusteko.




Zeuretzako erreferentzia gisa soilik erabil ditzakezu **Elikagaiak** atalean ageri diren kaloriei buruzko datuak. Baliteke emandako datuak zehatzak ez izatea, eta aldatu egin litezke. Baliteke elikagaiei buruzko datuak eta egiazko kaloria-mailak desberdinak izatea.

## Kontsumitutako kalorien datuak grafiko batean ikustea

Alderatu denbora-tarte jakin batean kontsumitu dituzun kalorien erregistroak, grafiko batean ikusiz.

Comida aukeraren pantaila nagusian, ukitu  .



## Maiz jaten dituzun elikagaiei buruzko informazioa gehitzea

Gorde maiz jaten dituzun elikagaiei buruzko informazioa. Azkar eguneratu dezakezu kaloria-kontsumoa, gordetako elikagai-informazioa gehituz jaten duzun bakoitzeko informazioa gehitu ordez.

- 1 Ukitu **+** → **Nire elikagaiak**.
- 2 Ukitu **Gehitu elikagaia**, idatzi elikagaiaren izena eta kaloriei buruzko informazioa, eta ukitu **Gorde**.
- 3 Idatzi jan duzun kantitatea, eta ukitu **Ados**.  
Elikagaiari buruzko informazioa Mi lista de comidas atalera gehituko da.
- 4 Maiz jaten dituzun elikagaien zerrendatik elikagai-kontsumoari buruzko informazioa erregistratzeko, ukitu **Nire elikagaiak**, aukeratu gehitutako elikagaia, eta ukitu **Egina**.
- 5 Ukitu **Gorde**.

## Menu gehigarriak erabiltzea

Aplikazio honekin bateragarriak diren zenbait instalazio deskargatzeko eta instalatzeko aukera duzu.


- 1 Ukitu **≡** → **Apl. geh.**
- 2 Ukitu **Gehiago**, eta hautatu aplikazio bat.
- 3 Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei aplikazioa instalatzeko.

## S Healthen doikuntzak konfiguratzeko

S Healthen pantaila nagusian, ukitu  → **Ezarpenak**, eta, gero, hautatu aukera hauetako bat:

- **Profila:** Zure estatistika fisikoak editatzeko.
- **Kontuak:** Hasi saioa zure Samsung account-en, S Healthen datuak online administratzeko.
- **Pasahitza:** PIN bat ezartzeko S Health blokeatu edo desblokeatu ahal izateko.
- **Unitate ezarpenak:** Unitate-aukerak definitzeko.
- **Jakinarazpena:** Gailua konfiguratzeko, gertaera eta lorpen berriak bistaratu ditzan.
- **Nire osagarriak:** Gailu osagarrien konexioak ikusteko eta administratzeko.
- **Osagarri bateragarriak:** Gailuarekin bateragarriak diren osagarriak ikusteko edo konektatutako osagarriak administratzeko.
- **Berrezarri datuak:** S Healthen datuak berrezartzeko.
- **Eguneratzerik dauden begiratu:** S Healthen uneko bertsioa zein den ikusteko.
- **Baldintzak:** Terminoak eta baldintzak ikusteko, datu pertsonalak eta datuen atxikipeneko politika barne.
- **S Health-i buruz:** S Healthi buruzko informazioa ikusteko.



- S Healthen sartzen dituzun datu pertsonalak informazio-helburuetarako soilik geratuko dira gordeta gailuan. Samsungek ez ditu zure datu pertsonala jasoko, biltegitratuko edo transmitituko. (Edonola ere, S Healthetik Samsung account-en saioa hasten baduzu, baliteke zure datuak zerbitzarian gordeta geratzea, datuen segurtasun-kopia egiteko.) Baliteke datu pertsonalak gordeta geratzea helburu horiek bete bitartean. S Healthek gordetako datu pertsonalak ezaba ditzakezu Ajustes menuan Restablecer datos aukera erabiliz edo aplikazioa desinstalatu. Datuak berrezartzen badituzu, zerbitzarian gordetako informazio guztia ezabatu egingo da. Sare sozialetan partekatu duzun edo biltegitratze-gailuetara bideratu duzun daturen bat ezabatzeko, bereiz egin behar duzu.
- Sare sozialetan partekatzen dituzun edo beste pertsona batzuei transmititzen dizkiezun datuen erabilera desegokiagatik erantzule bakarra zeu zara. Kontuz ibili zure datu pertsonalak beste pertsona batzuekin partekatzean.
- Zure datu pertsonalak babesteko, S Healthen pantaila nagusian, ukitu  → **Ezarpenak** → **Pasahitza**, eta zehaztu pasahitz bat.
- Gailua neurketa-gailuekin konektatuta badago, begiratu komunikazio-protokoloa, ondo dabilela ziurtatzeko. Haririk gabeko konexio bat erabiltzen baduzu (bluetootha edota ANT+), baliteke gailuak beste gailu batzuen interferentzia elektronikoa jasotzea. Saiatu ez erabiltzen gailua irrati-uhinak igortzen dituzten beste gailu batzuetatik hurbil.
- Baliteke S Health aplikazioan erabiltzen den edukia desberdina izatea aplikazioaren softwarearen bertsioaren arabera. Aplikazioarekin batera ematen diren zerbitzuak aldatu edo ezeztatu egin ditzake laguntza teknikoak aurrez jakinarazi gabe.


# Ahots-funtzioak

## S Voice

### S Voiceri buruz

Erabili aplikazio hau gailuari aginduak ahots bidez emanaz erabiltzeko zenbat funtzio.

Aplikazio-pantailan, ukitu **S Voice**. Bestela, sakatu bi aldiz hasierako botoia.

Hasierako botoia sakatuta sarbidea desaktibatzeko, ukitu  → **Settings**, eta desgaitu **Open via the home key** aukera.



Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

### Hizkuntza zehaztea

Ukitu  → **Settings** → **Language**, eta, gero, aukeratu hizkuntza bat.



Aukeratutako hizkuntza **S Voiceri** soilik aplikatuko zaio; gailuaren pantailako hizkuntza ez da aldatuko.

### S Voice erabiltzea

**S Voice** abiarazten duzunean, gailua ahotsa ezagutzen hasiko da, eta mikrofonoaren ikonoa gorri jarriko da.

Esan ahots-komando bat.

Komando bat esaten duzunean, gailuak ulertzen badu, pantailaren behealdean dagoen mikrofonoaren ikonoa berde jarriko da, eta keinuko ariko da. Gero, gailuak komandoa exekutatu du.

Ahots-ezagutzak hobeto funtzionatzeko iradokizunak

- Argi hitz egin.
- Leku isiletan hitz egin.
- Ez erabili hitz iraingarri edo jergarik.
- Ez erabili dialektorik.

Baliteke gailuak komandoak ez ezagutzea edo nahi ez dituzun ekintzak egitea, zu zauden ingurua edo hitz egiteko modua dela eta.

### S Voice aktibatzea atsedeen-moduan

Denbora-tarte batez S Voice erabiltzen ez baduzu, funtzioa atsedeen-modura aldatuko da automatikoki.


Ukitu mikrofonoaren ikonoa, eta esan "Hola Galaxy" gailutik hurbil, ahots bidezko ezagutza berriz martxan jartzeko.

### Aktibazio-komandoa aldatzea

Aktibazio-komandoa aldatu egin dezakezu, eta "Hola Galaxy" ez den beste bat ezarri. Gailua atsedeen-moduan dagoenean S Voice martxan jartzeko erabiltzen da aktibazio-komandoa.

Ukitu  → **Settings** → **Voice wake-up** → **Set wake-up command**.

### Ahots bidezko erantzunak desgaitzea

Ukitu  → **Disable voice prompt**. Komandoak esaten dituzunean ahots bidezko erantzunak emateari utziko dio gailuak.

### Nahi ez diren ahots-komandoak zuzentzea





Ahots-komandoak edita ditzakezu, gailuak ondo ezagutzen ez baditu.

Ahots-komando bat zuzentzeko, ukitu esandako testuaren azken elkarrizketa-bunbuiloa, eta editatu teklatuaren bidez.


# Grabagailua


## Ahots-oharrak grabatzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ahots Grabagailua**.

Ukitu , grabatzen hasteko. Mikrofonotik hurbil hitz egin. Ukitu  grabazioa gelditzeko. Grabazioa ezeztatzeko, ukitu . Ukitu  grabazioa bukatzeko.

Ahots-ohar bat grabatzean, ukitu  markagailu txertatzeko.





Gailua konfiguratzeko atzealdeko zarata ezaba dezan, ukitu  → **Ezarpenak**, eta, gero, aukeratu **Zarata murrizketa**.




## Testuinguru-etiketak dituzten fitxategiak gordetzea







Gehitu testuinguru-etiketak -hala nola kokapenak eta datak- fitxategien izenei, ahots-oharrak gordetzean.

Ukitu  → **Ezarpenak**, eta, gero, hautatu **Fitxategi izen kontestuala**. Gailuak grabaketa-eguna gehituko dio fitxategiaren izenari. Ahots-oharra grabatu zen lekua gehitzeko, ukitu  → **Ezarpenak**, eta, gero, aukeratu **Kokapen etiketak**.

## Ahots-oharrak erreproduzitzea


Aplikazio-pantailan, ukitu **Ahots Grabagailua**.

Ukitu , eta aukeratu ahots-ohar bat, erreproduzitzeko.


- : Ahots-oharra ebakitzeko.
- : Ahots-oharraren zati bat zehazteko, jarraian erreproduzitzeko.
- **x1.0**: Erreprodukzioaren abiadura doitzeko.
- : Ahots-oharraren zati bat ez entzuteko, soinurik ez egiteko.
- : Ahots-oharrea markagailuak txertatzeko.
- : Erreprodukzioa gelditzeko edo berrabiarazteko.
- : Aurreko edo hurrengo oharrera joateko.


## Markagailu-zerrenda erabiltzea


Ahots-oharretan puntu zehatz batzuk markatu ditzakezu markagailuen bidez. Markagailu bakoitzak ikono bat du ahots-oharrea.


Ahots-ohar bat erreproduzitzean markagailu baten xehetasunak ikusteko, ukitu  → **Gogokoak**. Aukeratu zerrendako markagailu bat, ahots oharra puntu horretatik aurrera erreproduzitzeko.

## Ahots-oharrak administratzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ahots Grabagailua** .


Ukitu , ahots-oharrak bilatzeko.

Ukitu , ahots-oharrak ezabatzeko.

Ukitu →, eta hautatu aukera hauetako bat:


- **Aukeratu:** Ahots-oharrak aukeratu eta partekatu edo ezabatzeko.
- **Sailkatu honela:** Oharrak egunaren, izenburuaren edo kategoriaren arabera ordenatzeko.
- **Iragazi kategoriaren arabera:** Oharrak kategoriaren arabera iragazita ikusteko.
- **Editatu kategoriak:** Kategoriak gehitzeko, ezabatzeko edo haien izena aldatzeko.
- **Ezarpenak:** Ahots-grabagailuaren konfigurazioa aldatzeko.


## Ahots-oharrak desplazamenduan

Luze sakatu ahots-oharra, ukitu → **Berrizendatu**, idatzi ahots-oharrerako izena, eta ukitu **Onartu**.

## Kategoriak administratzea

Ukitu → **Editatu kategoriak** → , idatzi kategoria baten izena, aukeratu kolore bat, eta ukitu **Egina**.

Ahots-oharrei kategoriak aldatzeko edo esleitzeko, ahots-oharren zerrendan, luze sakatu oharra. Gero, ukitu → **Aldatu kategoria**, eta aukeratu kategoria.

Ahots-oharrak kategoriaren arabera iragazteko, ukitu → **Iragazi kategoriaren arabera**, eta, gero, aukeratu kategoria.

## Ahots bidezko bilaketa

Erabili aplikazio hau webguneak ahots bidez bilatzeko. Aplikazio-pantailan, ukitu **Voice Search**.



Baliteke aplikazio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Pantailan **Speak now** bistaratzen denean, esan gako-hitz bat edo esaldi bat.

## Auto-modua

### Auto-moduari buruz

Erabili modu hau gidatzen ari zaren bitartean gailua kontrolatzeko. Ahots-komandoak erabiliz mezuak eta musika entzun ditzakezu, gailua ukitu ere egin gabe.

Ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Auto modua**, desaktibatzeko.



Ez begiratu pantailara eta ez egin ezer eskuekin gidatzen ari zaren bitartean.



- Baliteke nabigazio-mapak, zure uneko kokapena eta beste nabigazio-datu batzuk ez etortzea bat informazio errealekin. Arreta jarri behar diezu beti bidearen kondizioei, zirkulazioari eta zure bidaiari eragin diezaioketen beste faktore guztiei. Gidatu bitartean, jarraitu ohar eta segurtasun-arau guztiei.
- Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea nabigazio-funtzioa erabiltzeagatik.
- Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Hizkuntza batzuek ez dute onartzen modu hau.

### Modu hau erabili aurretik

- Ziurtatu gailuarekin konektatu duzun ibilgailuak bluetootharen funtzioa onartzen duela.
- Ziurtatu gailuaren bluetootha eta ibilgailuarena aktibatuta daudela ibilgailua gailuan erregistratzean.

## Auto-modua abiaraztea

Aplikazio hau lehen aldiz abiarazten duzunean, jarraitu pantailako argibideei konfigurazioa egiteko.

- 1 Ireki doikuntza azkarren panela eta ukitu **Auto modua**, desaktibatzeko.
- 2 S Voiceren leiho gainerakor bat bistaratzen bada, irakurri erantzukizunik ezaren oharra, ukitu **Open S Voice**, eta bete pantailako jarraibideak.
- 3 Auto-moduaren pantaila bistaratzen denean, ukitu **Next**.
- 4 Irakurri eta onartu terminoak eta baldintzak, eta ukitu **Next**.
- 5 Aukeratu ohar-edukia, eta ukitu **Next**.
- 6 Ukitu **Yes** gailua eta ibilgailua konektatzeko bluetooth bidez.

Gailuak ezin badu ibilgailua bilatu, gailuan, ukitu **Search from mobile device** eta erregistratu ibilgailua eskuz.


- 7 Erregistro-prozesua bukatu ondoren, ukitu **Next**.

- 8 Irakurri pantailako jarraibideak, eta ukitu **Start**.

Konfigurazio-prozesua bukatu ondoren, pantaila nagusian auto-modua bistaratuko da.

## Ibilgailu bat erregistratzea

Gailuan ibilgailu bat erregistratzen baduzu, ibilgailuaren ahots bidezko erantzunak entzun ditzakezu gailuaren bozgorailuetatik. Horrez gainera, gailua konfiguratu dezakezu auto-modua automatikoki aktibatzeke ibilgailuarekin konektatzean, eta beste gauza asko egiteko.

- 1 Ukitu  → **Settings** → **Register Car** → **Add car**.
- 2 Onartu bluetootharen baimen-eskaera, eta ukitu **Yes**, bluetootha aktibatzeke.

3 Bete pantailako jarraibideak, gailua ibilgailura konektatzeko.

Ibilgailuak ezin badu gailua detektatu, ukitu **Search from mobile device**, ibilgailua gailuan bilatzeko.



- Ibilgailua erregistratu aurretik, jarri martxan ibilgailua eta irratia.
- Ibilgailua gailuan erregistratzen duzun bitartean, jarri gailua ibilgailutik hurbil.

## Auto-modua automatikoki aktibatzea

Gailua konfiguratu dezakezu auto-modua aktibatzeko gailua eta ibilgailua bluetooth bidez konektatuta badaude.

Ibilgailua erregistratzen bukatzen duzunean, ukitu **☰** → **Settings** → **Register Car**, eta, gero, aukeratu **Auto Open via Bluetooth**.

## Maiz bisitatzeko dituzun lekuei lasterbideak gehitzea

Gorde maiz bisitatzeko dituzun lekuen lasterbideak, bideak erraz bilatzeko.

1 Ukitu **☰** → **Settings** → **Registered Places**.

2 Ukitu **Home**, **Work** edo **Car**.

Leku berriak gehitzeko, ukitu **+**, idatzi leku batean izena, zehaztu kokapena ezagutzeko metodo bat, eta ukitu **Done**.

3 Ukitu **Select method**, aukeratu ezagutza-metodo bat (adibidez, Mapas, WiFi-a edo bluetootha), eta, gero, ukitu **OK**.

4 Ukitu **Done**.

## Auto-moduaren menuak erabiltzea

Ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Auto modua**, desaktibatzeko.

Auto-moduaren pantaila nagusia bistaratzen denean, esan "Hola Galaxy", edo ukitu pantailaren goiko aldea, eta esan ahots-komando bat. Pantailako menuak ere erabil ditzakezu, ukituz.



- Auto-modua aktibo badago bigarren mailan, ahots-komando bat erabil dezakezu hura aktibatzeko. Funtzio hau ez da eskuragarri egongo "OK Google" esanda **Google** abiarazteko konfiguratuta badago gailua. Aplikazio-pantailan aktibazio-komandoa desaktibatzeko, ukitu **Google** → ☰ → **Settings** → **Voice**, eta aukeratu **Hotword detection**.
- Baliteke **Hotword detection** erabilgarri ezegotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.



Ukitu ☰ aukera hauek erabiltzeko:

- **Example commands:** Ahots-komandoen adibideak ikusteko.
- **Settings:** Auto-moduaren doikuntzak aldatzeko.
- **Help:** Auto-moduaren erabilerari buruzko informazioa ikusteko.

## Deiak egitea

Ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Auto modua**, desaktibatzeke.

### Ahots-komandoen bidez deiak egitea

- 1 Auto-moduaren pantaila nagusian, esan "Hola Galaxy", edo ukitu pantailaren goiko aldea.
- 2 Esan kontaktu baten izena duen ahots-komando bat. Hona hemen ahots-komando baten adibidea:  
"Call Charlie mobile"

### Menua ukituz dei bat egitea

- 1 Auto-moduaren pantaila nagusian, ukitu **Phone**.
- 2 Esan kontaktu baten izena duen ahots-komando bat, edo aukeratu kontaktu bat pantailaren beheko aldean proposatzen direnetatik.

Kontaktu bat bilatzeko, ukitu  , eta idatzi kontaktuaren izena.

## Mezuak bidaltzea

Ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Auto modua**, desaktibatzeke.

### Mezu bat bidaltzea ahots-komandoen bidez

- 1 Auto-moduaren pantaila nagusian, esan "Hola Galaxy", edo ukitu pantailaren goiko aldea.
- 2 Esan kontaktu baten izena duen ahots-komando bat.  
Hona hemen ahots-komando baten adibidea:  
"Text Katie message. Are you free tonight for dinner?"
- 3 Esan mezua, eta, gero, "**Send**", bidaltzeko.  
Mezua editatzeko, esan "**Replace**", eta, gero, esan berriz mezua.

## Testua idatziz mezu bat idaztea

- 1 Auto-moduaren pantaila nagusian, ukitu **Messages**.
- 2 Esan kontaktu baten izena, edo aukeratu kontaktu bat pantailaren beheko aldean proposatzen direnetatik.  
Kontaktu bat bilatzeko, ukitu **Q**, eta idatzi kontaktuaren izena.
- 3 Ukitu **⌨**, eta idatzi mezu bat teklatuarekin, edo esan mezua, idazteko.
- 4 Ukitu **Send**, mezua bidaltzeko.  
Mezua editatzeko, esan **“Replace”**, eta, gero, esan berriz mezua.

## Nabigazio-funtzioa erabiltzea

Ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Auto modua**, desaktibatzeko.

## Aurrez zehaztutako helburu batera nabigatzea

Zehaztutako helbururaino gidatuko zaitu gailuak. Funtzio hau erabili aurretik, gorde maiz bisitatzen dituzun lekuen lasterbideak, bideak erraz bilatzeko. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Maiz bisitatzen dituzun lekuei lasterbideak gehitzea”](#).

- 1 Auto-moduaren pantaila nagusian, esan **“Hola Galaxy”**, edo ukitu pantailaren goiko aldea.
- 2 Esan **“Navigation”** eta aurrez zehaztutako helburua, ahots-komando baten bidez. Bestela, ukitu **Navigation**, eta hautatu gogoko helburu bat, adibidez, **Home**, **Work**, edo **My Place**.



## Helburu batera nabigatzea

Aukeratu kokapen zehatz bat, mapa luze sakatuz. Edo erabili ahots-komando bat helburu bateraino nabigatzeko.

- 1 Auto-moduaren pantaila nagusian, esan "Hola Galaxy", edo ukitu pantailaren goiko aldea.
- 2 Esan "**Navigation**", edo ukitu **Navigation**.
- 3 Esan hitz gako bat edo lekuaren helbidea ahots-komando baten bidez. Bestela, ukitu **Map**, eta idatzi hitz gako bat edo lekuaren helbidea.  
Leku bat bilatzeko, ukitu bilaketa-eremua.
- 4 Esan "**Route**", edo ukitu **Route**.

## Musika entzutea

Ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Auto modua**, desaktibatzeko.

## Musika erreproduzitzea ahots-komandoak erabiliz


- 1 Auto-moduaren pantaila nagusian, esan "Hola Galaxy", edo ukitu pantailaren goiko aldea.
- 2 Esan abesti baten hitz gako bat duen ahots-komando bat. Hona hemen ahots-komando baten adibidea: "**Play music**"
- 3 Musika-erreproduzitzailearen pantaila bistaratzen denean, esan ahots-komando bat, erreprodukzioa kontrolatzeko.

## Musika erreproduzitzea pantaila ukituz

- 1 Auto-moduaren pantaila nagusian, ukitu **Music**.
- 2 Esan abesti baten hitz gako bat duen ahots-komando bat.
- 3 Kontrolatu erreprodukzioa, botoiak ukituz. Abesti bat bilatzeko, ukitu **Q**, eta idatzi abesti baten hitz gakoak.

## Doikuntzak konfiguratzea

Ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Auto modua**, desaktibatzen.

Ukitu  → **Settings**, eta aldatu doikuntza hauek:

- **Language:** Texto a voz funtziorako hizkuntza bat hautatzeko.
- **Register Car:**
  - **Auto Open via Bluetooth:** Gailua konfiguratu dezakezu auto-modua aktibatzen, gailua eta ibilgailua bluetooth bidez konektatuta badaude.
  - **Add car:** Gailura bluetooth bidez konektatutako ibilgailu bat erregistratzeko.
- **Reject message:** Gailua konfiguratzeko, sarrerako dei bat onartzen denean mezu bat bidal dezan. Ez onartzeko mezua sortu edo editatu ahal izango duzu.
- **Edit suggested contacts:**
  - **Auto recommend:** Gailua konfiguratzeko, kontaktu-zerrendako kontaktuak proposa ditzan.
  - **Set favourites:** Gogokoen zerrendari kontaktuak gehitzeko. Ukitu **Add contact**, gogoko kontaktuak gehitzeko.
- **Registered Places:** Zure kokapena bilatzeko GPS, WiFi eta bluetooth funtzioak erabiltzean leku espezifiko batzuk zehazteko.
- **Terms of Service:** Auto-moduaren erabilera-terminoak ikusteko.

# Multimedia

## Musika

### Musika erreproduzitzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Musika**.

Aukeratu musika-kategoria bat, eta, gero, hautatu abesti bat, erreproduzitzeko.




Abestiak bolumen-maila beretan entzuteko, ukitu  → **Ezarpenak** → **Bolumen adimenduna**



**Bolumen adimenduna** aktibatuz gero, gailuaren bolumen-maila baino altuagoa izan daiteke bolumena. Kontuz ibili, eta ez entzun bolumen altuko soinua denbora luzez, entzumenean kalterik ez izateko.



Baliteke **Bolumen adimenduna** aukera ez aktibatzea fitxategi batzuetan.


Entzungailu batetik abestiak entzuteko soinua pertsonalizatu bat definitzeko, ukitu  → **Ezarpenak** → **Adapt Sound** → **Aktibatuta**.

Aukera hau lehen aldiz aktibatzean, ukitu **Hasi**, soinua doitzeko. Gailuak zenbait soinua-proba egingo ditu, soinua-maila doitzeko, eta soinua egiten hasiko da. Ukitu **Bai** soinua entzun baduzu, eta ukitu **Ez** entzun ez baduzu. Errepikatu pauso hori proba bakoitzean, soinua-doikuntza bukatu arte. Gero, aukeratu **Musika soinua**, aukera hori aplikatzeko musika entzuten ari zarela.



Bolumen-maila 14raino edo gorago igotzen bada, soinua egokituaren aukera ez da aplikatuko musika-erreprodukzioan. Bolumena 13 mailaraino edo beherago jaisten bada, aukera hori berriro aplikatuko da.


## Abesti bat melodia gisa edo alarma-tonu gisa definitzea


Erreproduzitzen ari den abestia melodia gisa edo alarma-tonu gisa erabiltzeko, ukitu  → **Set as** → **From the beginning** edo **Auto recommendations**, hautatu aukera bat, eta ukitu **Done**.

## Erreprodukzio-zerrendak sortzea

Aukeratu nahi dituzun abestiak.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Musika**.

Ukitu **Errep. zerr.** →  → **Sortu erreprodukzio zerrenda**. Sartu izenburu bat, eta ukitu **Onartu**. Ukitu **+**, aukeratu sartu nahi dituzun abestiak, eta ukitu **Egina**.

Erreproduzitzen ari den abestia erreprodukzio-zerrenda bati gehitzeko, ukitu  , eta aukeratu erreprodukzio-zerrenda.

## Zure gogo-aldartearen arabera musika erreproduzitzea

Erabili funtzio zure gogo-aldartearen arabera erreproduzitzeko musika.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Musika**.

Ukitu **Music square**. Abestiak automatikoki ordenatuko dira gogo-aldartearen arabera. Ukitu gogo-aldarte adierazten duen gelaxka bat edo arrastatu zenbait gelaxka, dagokion musika entzuteko.



Abestiari buruz eskuragarri dagoen informazioan oinarrituko dira abestien kategoriak. Baliteke abesti batzuk ez egotea gogo-aldarte adierazten duten gelaxketan sailkatuta.

## Beste gailu batzuetan biltegitratutako informazioa erreproduzitzea

Bilatu beste gailu batzuetan gordetako musika, eta erreproduzitu zurean. Aplikazio-pantailan, ukitu **Musika**.

### Erregistratutako gailu bateko musikara sartzea

Musikara sartu eta erreproduzitzeko, ukitu **Gailuak**, eta aukeratu **ERREGISTRATUTAKO GAILUAK** aukerako gailu bat. Samsung linken erregistratutako gailuetan erreproduzitu dezakezu abestia. Sartu [link.samsung.com](http://link.samsung.com) webgunean informazio gehiago eskuratzeko. Ziurtatu erregistratutako gailuak piztuta eta WiFi sare batera edo sare mugikor batera konektatuta daudela.



Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea beste gailu batzuetan gordetako edukira sartzen bazara sare mugikor baten bidez. Kargu gehigarriak ez izateko, erabili WiFi-a.

### Hurbileko gailu bateko musikara sartzea

Musikara sartu eta erreproduzitzeko, ukitu **Gailuak**, eta aukeratu **ERREGISTRATUTAKO GAILUAK** aukerako gailu bat. Partekatze funtzioa aktibatuta daukaten gailuetan, abesti bat erreproduzitu dezakezu.


Funtzioa aktibatzeke, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Gertuko gailuak**, eta, gero, arrastatu **Gertuko gailuak** etengailua eskuinera. Doikuntza gehigarrien berri izateko, kontsultatu "[Hurbileko gailuak](#)".

# Bideoa

## Bideoak erreproduzitzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Bideoa**.

Hautatu erreproduzitu nahi duzun bideoa.



Erreprodukzioa martxan dela kontrol-panelaren kokapena pertsonalizatzeko, ukitu **Ezarpenak**, aukeratu **Mini Kontrolagailua**, eta ukitu **Itxi**. Gero, ukitu **◀** edo **▶**, panel-kontrola pantailaren aldeetako edozeinetara eramateko.




Funtzio hau modu horizontalean bakarrik dago eskuragarri.

## Bideo-erreproduzitzailerako gainerakorra erabiltzea

Erabili funtzio hau beste aplikazio batzuk erabiltzeko bideo-erreproduzitzailerako itxi gabe. Bideo bat ikusten ari zarela, ukitu **🔍** bideo-erreproduzitzailerako gainerakorra erabiltzeko.

Bereizi bi hatz pantailan erreproduzitzailerako handitzeko, eta elkartu txikitzeko. Erreproduzitzailerako mugitzeko, arrastatu beste leku bateraino.



## Argazkiak ateratzea


Funtzio hau erabiltzeko, erreprodukzioa martxan dela, ukitu  → **Ezarpenak**, aukeratu **Kapturatu**, eta ukitu **Itxi**.

Ukitu  erreprodukzioa martxan dela bideotik argazki bat ateratzeko.

## Bideoak partekatzea edo ezabatzea


Aplikazio-pantailan, ukitu **Bideoa**.

Ukitu  → **Aukeratu**, aukeratu bideoak, ukitu  → **Partekatu honen bidez**, eta aukeratu partekatzeko metodo bat.

Ukitu  → **Ezabatu**, aukeratu bideoak, eta, gero, ukitu **Egina**.

## Bideoak editatzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Bideoa**.

Aukeratu bideo bat, eta ukitu  → **Editatu** → **Bereizi**. Mugitu hasierako kortxetea zuk nahi duzun hasiera-punturaino, mugitu bukaerako kortxetea nahi duzun amaiera-punturaino, eta, ukitu **Egina**. Idatzi fitxategiarentzako izena, eta ukitu **Ados**, bideoa gordetzeko.

Bideoak editatzeko aplikazioa erabiliz bideoak editatzeko, ukitu **Bideo editorea**.

## Beste gailu batzuetan biltegitratutako bideoak erreproduzitzea

Bilatu beste gailu batzuetan gordetako bideoak, eta erreproduzitu zurean. Aplikazio-pantailan, ukitu **Bideoa**.

## Erregistratutako gailu bateko bideo batera sartzea

Bideora sartu eta erreproduzitzeko, ukitu **Gailuak**, eta aukeratu **ERREGISTRATUTAKO GAILUAK** aukerako gailu bat. Samsung linken erregistratutako gailuetan erreproduzitu dezakezu bideoa. Sartu [link.samsung.com](http://link.samsung.com) webgunean informazio gehiago eskuratzeko. Ziurtatu erregistratutako gailuak piztuta eta WiFi sare batera edo sare mugikor batera konektatuta daudela.



Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea beste gailu batzuetan gordetako edukira sartzen bazara sare mugikor baten bidez. Kargu gehigarririk ez izateko, erabili WiFi-a.

## Hurbileko gailu bateko bideo batera sartzea

Bideora sartu eta erreproduzitzeko, ukitu **Gailuak**, eta aukeratu **GERTUKO GAILUAK** aukerako gailu bat. Partekatze funtzioa aktibatuta daukaten gailuetan, erreproduzitu dezakezu bideoa.

Funtzioa aktibatu eta edukiak partekatzeko, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Gertuko gailuak**, eta, gero, arrastatu **Gertuko gailuak** etengailua eskuinera. Doikuntza gehigarrien berri izateko, kontsultatu “[Hurbileko gailuak](#)”.

## YouTube



Erabili aplikazio hau YouTuberen webgunean bideoak ikusteko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **YouTube**.




Baliteke aplikazio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

### Bideoak ikustea

Ukitu , eta aukeratu kategoria bat. Hitz gako bat idatziz bideo bat bilatzeko, ukitu . Biratu gailua ikuspegi horizontala ikusteko eta bideoa pantaila osoan bistaratzeko.

### Bideoak partekatzea

Aukeratu ikusi nahi duzun bideoa, ukitu , eta, gero, aukeratu partekatzeko metodo bat.

### Bideoak kargatzea

Ukitu  → **Igotako bideoak** → , aukeratu bideo bat, idatzi bideoaren datuak, eta, gero, ukitu .



## Flipboard

Erabili aplikazio hau zure aldizkari pertsonalizatuetara sartzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Flipboard**.



Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Flipboard martxan jartzeko, lerratu orrialde nagusia gora, aukeratu albisteen gaiak, eta, gero, ukitu **Build your Flipboard**.

Aukeratu historia bat edo gai bat, lerratu Flipboardeko orrialdeak, eta aukeratu artikulua bat, irakurtzeko.

## Google+

Erabili aplikazio hau beste pertsona batzuekin konektatuta egoteko Googleren sare sozialaren bitartez.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Google+**.



Baliteke aplikazio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Ukitu **All** kategoria aldatzeko, eta, gero, zoaz gora edo behera, zure lagun-taldeko argitalpenak ikusteko.

## Argazkiak

Erabili aplikazio hau gailuan gordetako eta **Google+** sarera kargatutako argazkiak, albumak eta bideoak administratzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Photos**.



Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Play Games

Erabili aplikazio hau jokoak deskargatu eta haietan ibiltzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Play Games**.



Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Play Music

Erabili aplikazio hau gailutik musika entzuteko edo Googleren hodeiko zerbitzutik musika transmititzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Play Music**.



Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Play Kiosco

Erabili aplikazio hau azken albiste-artikuluak irakurtzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Play Newsstand**.



Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

# Segurtasuna

## Hatz-eskanerra

### Gailuak zure hatz-markak hobeto ezagutzeko

Hatzak gailuaren gainean jartzen dituzunean, kontuan izan funtzioaren errendimenduari eragin diezaioketen baldintza hauek.


- Hasierako botoiak hatz-markak ezagutzeko sentsore bat du. Kontuz ibili, hasierako botoia ez dadin marratu edo kaltetu metalezko objektuekin, hala nola txanponak, giltzak edo lepokoak.
- Hatz-markak ezagutzeko sentsoreak gaizki funtzionatzea eragin lezake gailuak dakarren pantaila-babesleak. Kendu pantaila-babeslea hatz-markak ezagutzeko sentikortasuna hobetzeko.
- Ziurtatu hatz-markak ezagutzeko eremua eta zure hatzak garbi eta lehor daudela.
- Baliteke gailuak hatz-markak ez ezagutzea, zimurrak edo orbainak badituzte.
- Baliteke gailuak ez ezagutzea hatz txiki edo finen markak.
- Hobeto ezagutzeko, erregistratu gailuko lanak egiteko sarrien erabiltzen duzun eskuko hatzen markak.
- Ez arrastatu hatza motelegi edo azkarregi. Arrastatu tarteko abiadura batean, gailuak ezagut dezan.
- Inguru lehorretan, baliteke elektrizitate estatikoa pilatzea gailuan. Ahal dela, ez erabili funtzio hau leku lehorretan. Bestela, funtzioa erabili aurretik, deskargatu elektrizitate estatikoa metalezko objektu bat ukituz.

## Hatz-markak erregistratzea

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Hatz eskanerra** → **Hatz aztar. Kudeatzailea**.
- 2 Marka gehiago erregistratu nahi badituzu, hatz-markak ezagutzeko leiho gainerakor bat bistaratuko da. Jarri gailuan erregistratutako hatz-marka bat, eta ukitu **+**.
- 3 Jarri hatza hatz-marken eremuan, pantailaren beheko erdiko aldean.
- 4 Luze sakatu pantaila hatz-marken eremuan, eta arrastatu hatza behera, hasierako botoiaren gainean. Errepikatu pauso hori hatz berarekin, hatz-marka erregistratuta geratu arte.



Hatza tolesten baduzu edo hatz baten punta erabiltzen baduzu, baliteke gailuak ez ezagutzea zure hatz-markak.



- 5 Pasahitza eskatzen duen leiho gainerakor bat bistaratzen bada, idatzi ordezeko pasahitza, ukitu **Jarraitu**, idatzi berriz ordezeko pasahitza, baieztatzeko, eta ukitu **Egina**. Zure hatz-marken ordeze erabil dezakezu ordezeko pasahitza.
- 6 Hatz-markak blokeatzeko leiho gainerakorra bistaratzen bada, ukitu **Onartu** → **Hatz aztarnaren blokeoa**. Zure hatz-markak erabil ditzakezu pantaila desblokeatzeko.

## Erregistratutako hatz-markak administratzea

Erregistratuta dauzkazun hatz-marken izenak ezabatu edo alda ditzakezu.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Hatz eskanerra** → **Hatz aztar. kudeatzailea**.

Hatz-markak ezabatzeko, ukitu  → **Kendu erregistroa**, aukeratu hatz-markak, eta ukitu  → **Onartu**.

Hatz-marka bati izena aldatzeko, ukitu  → **Aukeratu**, aukeratu hatz-marka bat, ukitu  , eta, gero, **Onartu**.

## Ordezko pasahitza aldatzea

Hatz-markak irakurri ordez erabiltzeko ezarrita daukazun pasahitza aldatu egin dezakezu.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Hatz eskanerra** → **Aldatu ordezko pasahitza**.
- 2 Idatzi uneko ordezko pasahitza, eta ukitu **Jarraitu**.
- 3 Idatzi pasahitz berria, eta ukitu **Jarraitu**.
- 4 Sartu pasahitza berriro, eta hautatu **Onartu**.

## Pantaila desblokeatzea zure hatz-marken bidez

Pantaila desblokeatu dezakezu zure hatz-marken bidez.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Hatz eskanerra** → **Pantailaren blokeoa** → **Hatz aztarnak**.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Blokeatu pantaila** → **Pantailaren blokeoa** → **Hatz aztarna**.

## Samsung account pasahitza egiaztatzea

Erabili hatz-markak Samsung account-eko pasahitza egiaztatzeko. Hatz-marka bat erabil dezakezu pasahitza idatzi ordez, adibidez, **Samsung Apps**-eko edukiak erostean.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Hatz eskanerra** → **Egiaztatu Samsung account**, eta, gero, arrastatu **Egiaztatu Samsung account** etengailua eskuinera. Sartu berriz zure Samsung account-eko pasahitza berriro, eta ukitu **Egiazt. kontua**.

## Hatz-markak erabiltzea PayPal bidez erosteko

Erosketak egin ditzakezu zure hatz-markak erabiliz.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Hatz eskanerra** → **Ordaindu PayPal erabiliz**.
- 2 Ukitu **Instalatu, FIDO™** protokoloa aukeran.
- 3 Ukitu **Esteka, PayPal kontua** aukeran.
- 4 Jarraitu pantailako jarraibideei PayPalen webgunean saioa hasteko, eta erregistratu zure hatz-markak.

## Modu pribatua

### Modu pribatuari buruz


Erabili modu hau beste inork eduki batzuk erabil ez ditzan edo haietara sar ez dadin, esaterako, gailuan gordetako irudi eta dokumentuetara. Elementuak modu seguruan ezkutatzeko, gorde edukiak leku jakin batean, eta desaktibatu modu pribatua.


### Edukia nola ezkutatu

1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Modu pribatua**, eta, gero, arrastatu **Modu pribatua** etengailua eskuinera. Bestela, ireki doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Modu pribatua**, aktibatzeke.

Modu pribatua lehen aldiz aktibatzen duzunean, zehaztu desblokeatzeko kode bat eta segurtasun-kopiarako PINa.

2 Idatzi modu pribatua desblokeatzeko kodea.

Modu hori aktibatuz gero,  bistaratuko da pantailaren goiko aldean.

3 Ezkutatzeko elementuak aukeratzeko, luze sakatu zerrendako elementu bat, markatu hautatu nahi dituzun elementuak, eta ukitu  → **Mugitu pribatura**, edo ukitu **Mugitu** → **Pribatua** → **Mugitu hona**.

Modu pribatura eramandako elementuek  marka izango dute.

4 Ezabatu nahi dituzun elementuak aukeratu ondoren, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Modu pribatua**, eta, gero, arrastatu **Modu pribatua** etengailua ezkerredera. Bestela, ireki jakinarazpen-panela edo doikuntza azkarren panela, eta ukitu **Modu pribatua**, desaktibatzeke.

Aukeratutako elementuak desagertu egingo dira pantailatik.



Ziurtatu fitxategi guztiak ondo gorde edo lekualdatu dituzula modu pribatua desaktibatu aurretik.

## Ezkutuko edukiak ikustea

Modu pribatua aktibatuta badago soilik ikus ditzakezu ezkutatutako elementuak.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Modu pribatua**, eta, gero, arrastatu **Modu pribatua** etengailua eskuinera. Bestela, ireki doikuntza azkarren panela, eta desaktibatu **Modu pribatua**.
- 2 Idatzi modu pribatua desblokeatzeko kodea.
- 3 Aplikazio-pantailan, ukitu **Nire fitxategiak** → **Pribatua**.

Modu pribatura eramandako elementuak pantailan bistaratuko dira.



# Segurtasuna

## Larrialdi-modua

### Larrialdi-moduari buruz

Erabili modu hau gailuaren atsedeen-denbora luzatzeko larrialdi-egoeraren batean zaudenean. Modu hau aktibatuz gero, pantailaren distira murriztu egingo da, eta bateria-kontsumoa jaitsi egingo da, funtzio batzuk murriztuta. Aukera izango duzu flasha pizteko, alarmak martxan jartzeko eta zure kokapen-datuak beste pertsona batzuei bidaltzeko mezu gisa.

### Larrialdi-modua aktibatzea

Luze sakatu pizteko tekla, eta, gero, ukitu **Larrialdi modua**. Bestela, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Segurtasun laguntza** → **Enable Segurtasun laguntza**, eta, gero, arrastatu **Larrialdi modua** etengailua eskuinera.



Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea mezuak bidali edo sare mugikorra erabiliz gero.



Gehienezko atseden-denbora zenbatetsiak adierazten du zenbat denbora igaroko den bateria agortu arte gailua erabiltzen ez baduzu. Itxarote-denbora aldatu egin liteke, gailuaren doikuntzen eta eragiketaren baldintzen arabera.

## Larrialdi-modua desaktibatzea

Larrialdi-modua aktibatzeko, luze sakatu pizteko botoia, eta ukitu **Larrialdi modua**. Bestela, ukitu **Ezgaitu larrialdi modua**. Larrialdi-modua desaktibatu egingo da.

## Laguntza-mezuak bidaltzea

### Laguntza-mezuak bidaltzeari buruz

Aurrez zehaztu ditzakezu larrialdi-egoeretan mezu bat bidaltzeko kontaktuak. Bidali mezuak kontaktu nagusiei, pizteko botoia hiru aldiz azkar sakatuta.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Segurtasun laguntza**.

### Kontaktu nagusiak gehitzea

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Segurtasun laguntza**.
- 2 Ukitu **Manage primary contacts** → **Sortu kontaktu nagusia**.
- 3 Ukitu **Sortu kontaktu nagusia**, eta idatzi kontaktu baten informazioa. Bestela, ukitu **Kontaktuetatik aukeratu**, lehendik dagoen kontaktu bat gehitzeko kontaktu nagusi gisa.

### Nola konfiguratu larrialdi-mezuak

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Segurtasun laguntza** → **Bidali laguntza mezuak**, arrastatu **Bidali soinua grabaketa** etengailua eskuinera, eta aukeratu laguntza-mezuetan gehitu nahi duzun edukia.

### Laguntza-mezuak bidaltzea

Larrialdi-egoera batean bazaude, sakatu hiru aldiz, azkar-azkar, pizteko botoia. Gailuak mezuak bidaliko dizkie zure kontaktu nagusiei. Mezu horietan, zure kokapen-datuak ere bidaliko zaizkie.



Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea mezuak bidali edo sare mugikorra erabiliz gero.

## Muturreko eguraldiगतिको jakinarazpena (albiste geografikoak)

### Muturreko eguraldiगतिकo jakinarazpenari buruz (albiste geografikoak)

Erabili funtzio hau zu zauden lekutik hurbil muturreko eguraldia badago.



- Funtzioak zure kokapena identifikatuko du, eta han gertatzen diren hondamendi naturalei buruzko informazioa emango dizu. Ematen den informazioa aldatu egin liteke, zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Muturreko eguraldiari eta informazioa eskuragarri dagoen herrialde eta hizkuntzei buruzko informazioa ikusteko, sartu [www.samsung.com/geonews](http://www.samsung.com/geonews) webgunean.

- Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea eguraldi-iragarpeneko jakinarazpenak jasotzen badituzu desplazamenduan zabiltzala.

### Jakinazpenak jasotzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Segurtasun laguntza** → **Geo News**, eta, gero, arrastatu **Geo News** etengailua eskuinera.

### Ohar-jakinazpenak

Aukeratu **Jakinazpen agerkariak**.

Eguraldiak okerrera egiten badu, gailuan jakinarazpena bistaratuko da, leiho gainerakor batean. Leiho gainerakor horretatik, larrialdi-deiak egin ditzakezu, edo aurrez zehaztutako kontaktuei larrialdi-mezuak bidali.

## Alerta-jakinazpenak

Hain larriak ez diren hondamendi naturalei buruzko jakinarazpenak egoera-barran bistaratuko dira, pantailaren goiko aldean. Emandako informazioa **Geo News** widgetean bistaratuko da.

## Albiste geografikoen widgeta erabiltzea

**Geo News** widgetean, zure uneko kokapena eta hango hondamendi naturalei buruzko informazioa ikus dezakezu.

Pantaila nagusian, joan ezkerrera, eta ukitu **Geo News** widgeta.



# Tresnak


## S Finder

Erabili aplikazio hau informazioa bilatzeko, gailuan nahiz Internet bidez. Zenbait iragazki aplikatu eta bilaketa-historia ikus dezakezu.

Ireki jakinarazpen-panela, eta ukitu **S Finder**.

### Edukiak bilatzea


Ukitu bilaketa-eremu bat eta idatzi hitz gako bat, edo ukitu  eta esan hitz gako bat.


Erantzun zehatzagoak eskuratzeko, ukitu , eta aplikatu bilaketa-eremuaren azpiko iragazkiak.

Bilaketa-emaitzen zerrenda eguneratzeko, ukitu  → **Freskatu**.

Eskuragarri dauden iragazkiekin bilaketa-parametroak zehazteko edo bilaketa-kategoriak aukeratzeko. Ukitu  → **Ezarpenak** → **Hautatu iragazkiak** edo **Kategoria iragazkia**.

### Bilaketa-historia administratzea

Historia ezabatzeko, ukitu  → **Ezarpenak** → **Historia ezabatu**.


Gailua konfiguratzeko bilaketen emaitzak gorde ez ditzan, ukitu  → **Ezarpenak**, eta desgaitu **Gorde bilaketa historia**. aukera.


# Egutegia

## Egutegia abiaraztea

Erabili aplikazio hau gertaerak eta zereginak administratzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Egutegia**.




Ukitu , eta erabili aukera hauek:

- **Hona joan:** Data jakin batera joateko.
- **Ezabatu:** Gertaerak edo zereginak ezabatzeko.
- **Bilatu:** Gertaerak edo zereginak bilatzeko.
- **Egutegiak:** Bistaratu nahi dituzun egutegiak aukeratzeko.
- **Sink:** Gertaerak eta zereginak zure kontuekin sinkronizatzeko.
- **Ezarpenak:** Egutegiaren doikuntzak aldatzeko.

## Gertaerak edo zereginak sortzea

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Calendario**.
- 2 Ukitu **+**. Bestela, aukeratu gertaerarik edo zereginik ez duen data bat, eta ukitu berriz data. Egun horretan gertaera edo zereginen bat gordeta badago, ukitu gezia, eta, gero, **+**.
- 3 Aukeratu edozein gertaera edo zeregin, eta idatzi xehetasunak.
  - **Gehitu gertaera:** Gertaera baterako hasiera- eta amaiera-data zehazteko. Errepikapen-doikuntza bat zehaztu dezakezu (hautazkoa).
  - **Gehitu ataza:** Zeregin bat egun jakin batera gehitzeko. Lehentasun-doikuntza bat zehaztu dezakezu (hautazkoa).




- 4 Sakatu **Gorde**, gertaera edo zeregina gordetzeko.




## Gertaerak eta zereginak zure kontuekin sinkronizatzeko

Aplikazio-pantailan, ukitu **Egutegia**.

Gertaerak eta zereginak zure kontuekin sinkronizatzeko, ukitu  → **Sink**.

Sinkronizatzeko kontuak gehitzeko, ukitu  → **Egutegiak** → **Kontua gehitu**. Gero, aukeratu kontu bat, sinkronizatzeko, eta hasi saioa. Kontu bat gehitzen duzunean, zirkulu berde bat bistaratuko da izenaren alboan.

Kontu baten sinkronizazio-aukera aldatzeko, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak**  → **Kontuak**, eta, gero, aukeratu kontu-zerbitzu bat.

## Gertaerak edo zereginak ezabatzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Egutegia**.


Gertaerak edo zereginak ezabatzeko, ukitu  → **Ezabatu**, aukeratu gertaerak edo zereginak, eta ukitu **Amaituta** → **Onartu**.

Ikusten ari zaren gertaera edo zeregin bat ezabatzeko, ukitu  → **Onartu**.

Zereginak bukatutzat markatzeko, ukitu zereginak dituen data bat, eta aukeratu bukatutako zereginak.

## Gertaerak edo zereginak partekatzea


Aplikazio-pantailan, ukitu **Egutegia**.

Ikusten ari zaren gertaera edo zeregin bat partekatzeko, ukitu  → **Partekatu honen bidez**, eta, gero, aukeratu partekatzeko metodo bat.

## Kalkulagailua

Erabili aplikazio hau kalkulu sinpleak nahiz konplexuak egiteko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Kalkulag.**.

Biratu gailua ikuspegi horizontala izateko eta kalkulagailu zientifikoa bistaratzeko. **Pantailaren biraketa** funtzioa desaktibatuta badago, ukitu  → **Kalkulagailu zientifikoa**.

Kalkuluen historia ikusteko, ukitu , teklatura ezkuta dadin.



Historia ezabatzeko, ukitu  → **Borrar historial**.

## Erlojua

### Alarma


Aplikazio-pantailan, ukitu **Ordularia** → **Alarma**.

### Alarmak konfiguratzea


Ukitu  alarma-zerrendan, konfiguratu alarma bat, aukeratu zein egunetan errepikatuko den, konfiguratu beste aukera batzuk, eta ukitu **Gorde**. Alarmak aktibatze edo desaktibatze, ukitu alarmaren alboan dagoen , alarma-zerrendan.

- **Errepikatu:** Zehaztutako ordua igaro ondoren alarma zer tarterekin eta zenbat aldiz errepika dadin nahi duzun definitzeko.
- **Alarma adimenduna:** Alarma adimendunerako ordutegi bat eta tonu bat konfiguratzeko balio du. Alarma adimenduna martxan jarriko da, bolumen baxuan, zehaztutako alarma baino minutu batzuk lehenago. Alarma adimendunaren bolumena pixkanaka handituz joango da, itzali arte edo zehaztutako alarmak jo arte.

### Alarmak gelditzea

Arrastatu  zirkulu handitik kanpora alarma bat geldiarazteko. Arrastatu **ZZ** zirkulu handitik kanpora denbora-tarte jakin baten ondoren alarma errepika dadin.



## Alarmak ezabatzea

Ukitu  → **Ezabatu**, aukeratu alarmak, eta, gero, ukitu **Egina**.


## Munduko erlojua

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ordularia** → **Munduko Erlojua**.

## Erlojuak sortzea

Ukitu , eta, gero, idatzi hiri baten izena edo aukeratu zerrendako hiri bat. Udako ordutegia aplikatzeko, luze sakatu erlojua, eta ukitu  .

## Erlojuak ezabatzea

Ukitu  → **Ezabatu**, aukeratu erlojuak, eta, gero, ukitu **Egina**.

## Kronometroa

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ordularia** → **Kronometroa**.


Ukitu **Abiarazi** gertaera baten iraupena kontrolatzeko. Ukitu **Bira** denbora etapen arabera erregistratzeko.

Denbora neurtzeari uzteko, ukitu **Gelditu**. Erregistratutako denborak ezabatzeko, ukitu **Berrezar..**

## Atzerako kontaketa

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ordularia** → **Tenporizadorea**.

Definitu iraupena, eta, gero, ukitu **Abiarazi**.

Tenporizadoreak jotzen duenean, arrastatu  zirkulu handitik kanpora.

## Drive

Erabili aplikazio hau Google Driveren biltegitratze-zerbitzuan gordetako fitxategietara sartzeko. Fitxategi guztiak leku bakarrean gorde ditzakezu, haietara sartu edozein lekutatik, eta beste pertsona batzuekin partekatu.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Drive**.



Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Dropbox

Erabili aplikazio hau fitxategiak gordetzeko eta beste pertsona batzuekin partekatzeko Dropbox-en hodeiko biltegitratze-zerbitzua erabiliz. Fitxategiak Dropboxen gordetzen dituzunean, gailua automatikoki sinkronizatuko da web-zerbitzariarekin eta Dropbox instalatuta daukan beste edozein gailurekin.









Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Dropbox**.
- 2 Hasi saioa zure Dropboxeko kontuan. Dropbox konturik ez baduzu, sortu bat.
- 3 Ukitu **Turn on Camera Upload**.

Kamerarekin ateratako argazkiak Dropboxen kargatuko ditu gailuak. Bideoak kargatzeko, arrastatu **Include videos** etengailua eskuinera.

Argazkiak edo bideoak eskuz kargatzeko, ukitu **Skip this**.

## 4 Erabili funtzio hauek:

-  : Fitxategiak kargatzeko edo irekitzeko. Ukitu  → **Upload here**, fitxategiak kargatzeko.
-  : Kargatutako argazkiak edo bideoak ikusteko. Ukitu  fitxategiak partekatzeko edo ezabatzeko edo albumak sortzeko.
-  : Gogokoen zerrendako fitxategiak irekitzeko.
-  : Jakinarazpenak ikusteko.

## Google


Erabili aplikazio hau Interneten bilaketak egiteko. Gailuan edo memoria-txartelean gordetako aplikazioak eta edukiak bilatzeko ere erabil dezakezu.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Google**.




Baliteke aplikazioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Gailuan nabigatzea

Ukitu bilaketa-eremua, eta idatzi gako-hitz bat. Bestela, ukitu  , eta esan hitz gakoa.

## Google Now

Ikusi Google Nowko txartelak. Eguraldiari, zirkulazioari, zure hurrengo bilerei eta beste zenbait datu interesgarri buruzko informazioa ematen dute.

Eman izena Google Nown lehen aldiz **Google** abiarazten duzunean. Google Nowren doikuntzak aldatzeko, ukitu  → **Settings**, eta, gero, arrastatu **Google Now Piztu**. etengailua ezkerrera edo eskuinera.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Umeen modua

Erabili widget hau umei ingurune seguru eta dibertigarri bat emateko eta zenbait aplikazio edo edukitarako sarbidea murrizteko.

Widget hau erabili aurretik, deskargatu eta instalatu egin behar duzu. Pantaila nagusian, ukitu **Ume Modua** → **Instalatu aplikazioa**. Instalatu ondoren, pantaila nagusietan eta aplikazioetan bistaratuko da widgeta.

Umeen modua martxan jartzeko, ukitu **Ume Modua** pantaila nagusian edo aplikazio-pantailan.


Lehen aldiz widget hau abiarazten duzunean, ukitu **Ezarri PINa** pantailaren beheko aldean. Gero, jarraitu pantailako argibideei.



Nahi gabe **umeen moduaren** widgeta desinstalatzeko baduzu, berriz instalatzeko aukera ere baduzu. Pantaila nagusian, luze sakatu leku huts bat, ukitu **Widgets**, luze sakatu umeen moduaren widgeta. Arrastatu widgeta pantaila nagusira, eta ukitu **Ume Modua**, berriz instalatzeko.

### Umeen moduko pantaila nagusia

Umeen moduko funtzio guztietara sartzeko abiapuntua da pantaila nagusia.





Erabili aplikazio hau zure seme-alabek ikus ditzaketen gordetako irudiak, marrazkiak, ahots-grabaketak eta multimedia ikusteko.



Erabili aplikazio hau argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko.



Erabili aplikazio hau diseinu bat sortzeko boligrafo bat, pintzel bat eta beste zenbait aukera erabiliz.




Erabili aplikazio hau ahots-grabaketak egiteko edo erreproduzitzeko.



Erabili aplikazio hau bideo-fitxategiak erreproduzitzeko. Aplikazio hau erabili aurretik, gehitu gailuan gordetako bideoak aplikazioari. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu "[Gurasoen kontrola](#)".

## Umeen moduko joko-eremua

Zoaz eskuinera pantaila nagusian, umeen moduko joko-eremua irekitzeko. Zenbait pertsonaiarekin, atzealdeko objektuekin eta beste hainbat gauzarekin jolas egin dezakezu.




## Gurasoen kontrola

Erabili aplikazio hau umeen moduari murrizketak ezartzeko, eduki eta aplikazioetarako sarbidea kontrolatzeko. Umeen moduko doikuntzak, erabilera-denboraren mugak eta beste hainbat gauza alda ditzakezu.

Pantaila nagusian, ukitu 👤 , eta idatzi PINa.

Gurasoen kontroletik irteteko, sakatu hasierako botoia.



Ukitu , eta erabili aukera hauek:

- Umearen izena: Umearen profila ikusteko eta editatzeko.
- **Ekintza:** Zure seme-alabek gailua nola erabiltzen duten ikusteko: erreprodukzioen denbora eta maiz erabiltzen dituen aplikazioak, esaterako.
- **Eguneko jolasgarai mug.:** Zure seme-alaben erabilera administratzeko denbora-muga bat ezartzeko.
- **Aplikazioak:** Umeen moduan onartzen diren aplikazioak ikusteko eta gehitzeko.
- **Multimedia:** Utzi zure seme-alabei gailuan gordetako zenbait irudi eta bideotara sartzen.
- **Orokorra:** Umeen moduaren doikuntzak konfiguratzeko.
- **Ume denda:** **Samsung Apps**-etik umeentzako aplikazioak deskargatzeko.


## Lupa

Erabili widget hau testuak edo objektuak handitzeko atzeko kamera erabiliz.

Pantaila nagusira gehitzeko, luze sakatu pantaila nagusiko leku huts bat, ukitu **Widgets**, luze sakatu **Luparen** widgeta, eta arrastatu pantaila nagusiraino.

Hasierako pantailan, ukitu **Luparen** widgeta.

Ukitu **+** edo **-** handitze-maila doitzeko.

Pantailaren erdian fokuratzeko, ukitu . Eskuz ere doitu dezakezu fokuratzeari, fokuratu nahi duzun lekua ukituz.

Flasha piztu eta leku ilunetan dauden testuak edo objektuak ikusteko, ukitu .

Testu edo objektuei argazkiak ateratzeko, ukitu .

## Maps

Erabili aplikazio hau gailuaren kokapena zehazteko, lekuak bilatzeko edo argibideak eskuratzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Maps**.




Baliteke aplikazio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

### Kokapenak bilatzea

Bilatu lekuak, helbide bat edo hitz gako bat sartuz. Leku bat aurkitu ondoren, aukeratu, xehetasunak ikusteko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu laguntza-atala.

### Leku batera iristeko argibideak eskuratzea

Sakatu  jatorriko eta helburuko kokapenak zehazteko, eta, gero, aukeratu bidaiatzeko modu bat. Helburura iristeko har ditzakezun bideak bistaratuko dizkizu gailuak.


## Oharrak

Erabili aplikazio hau gorde eta hurrengo batean ikusi nahi duzun informazio garrantzitsua erregistratzeko. Aplikazio-pantailan, ukitu **Oroigarriak**.

### Kategoriak gehitzea eta administratzea


Sortu kategoriak, zure oharrak sailkatzeko eta administratzeko.

Ohar-zerrendan, ukitu  → **Kudeatu kategoriak**.

Kategoria berri bat gehitzeko, ukitu , idatzi izen baten kategoria, eta ukitu **Ados**.




Kategoria bat ezabatzeko, ukitu haren alboan dagoen  .

Kategoria bati izena aldatzeko, luze sakatu kategoria baten izena, idatzi izen berria, eta ukitu **Ados**.

Kategoriaren ordena aldatzeko, ukitu , kategoria baten alboan, eta arrastatu gora edo behera, beste leku bateraino.

## Oharrak idaztea

Ukitu **+** ohar-zerrendan, eta idatzi ohar bat. Ohar bat idazten duzun bitartean, erabili aukera hauetako bat:

- : Kategoria bat sortzeko edo zehazteko.
- : Irudiak eransteko.
- : Ahots-grabaketa bat egiteko, oharrean sartzeko. Oharra gordetzeko, ukitu **Egina**.

Ohar bat editatzeko, ukitu ohar bat, eta ukitu edukia.

## Oharrak bilatzea

Ukitu **Q** ohar-zerrendan, eta idatzi hitz gako bat, hura duten oharrak bilatzeko.

## Oharrak ezabatzea

Ukitu **:** → **Ezabatu**, aukeratu oharrak, eta, gero, ukitu **Egina**. Irakurtzen ari zaren bitartean oharra ezabatzeko, ukitu **:** → **Ezabatu**.

# Nire fitxategiak



## Nire fitxategiei buruz


Erabili aplikazio hau gailuan biltegituta dauden mota guztietako fitxategietara sartzeko (irudiak, bideoak, abestiak eta grabaketa, besteak beste).

Aplikazio-pantailan, ukitu **Nire Fitxategiak**.

## Fitxategiak ikustea









Aplikazio-pantailan, ukitu **Nire Fitxategiak**.

Aukeratu karpeta bat, irekitzeko. Direktorioan maila bat igotzeko, ukitu . Mis archivos pantaila nagusira itzultzeko, ukitu .

Aukeratu karpeta bat, ukitu , eta erabili aukera hauetako bat.


- **Aukeratu:** Fitxategiak edo karpetak aukeratzeko.
- **Ezabatu:** Fitxategiak edo karpetak ezabatzeko.
- **Karpeta sortu:** Karpeta bat sortzeko.
- **Ikuspegia:** Bistaratzeko-modua aldatzeko.
- **Honen bidez antolatu:** Fitxategiak edo karpetak ordenatzeko.
- **Gehitu laster-bidea:** Pantaila nagusiko karpetara eta Mis archivos pantaila nagusira lasterbide bat gehitzeko.
- **Ezarpenak:** Fitxategi-administratzailearen doikuntzak aldatzeko.

Luze sakatu fitxategi bat edo karpeta bat, eta erabili aukera hauetako bat:

- : Fitxategiak beste pertsona batzuei bidaltzeko edo partekatzeko.
- : Fitxategiak edo karpetak ezabatzeko.
- → **Mugitu:** Fitxategiak edo karpetak beste karpeta batera eramateko.
- → **Kopiatu:** Fitxategiak edo karpetak beste karpeta batera kopiatzeko.
- → **Berrizendatu:** Fitxategi edo karpeta baten izena aldatzeko.
- → **Gehitu laster-bidea:** Pantaila nagusiko karpetara eta Mis archivos pantaila nagusira lasterbide bat gehitzeko.
- → **Konprimatu:** Fitxategiak edo karpetak konprimatu eta zip fitxategi bat sortzeko.
- → **Xehetasunak:** Fitxategi edo karpeta baten xehetasunak ikusteko.


## Fitxategiak edo karpetak bilatzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Nire Fitxategiak**.

Ukitu , eta, gero, idatzi bilatu nahi dituzun bilaketa-irizpideak.

## Biltegitratze-informazioa ikustea


Aplikazio-pantailan, ukitu **Nire Fitxategiak**.

Ukitu , gailuaren memoriari eta memoria-txartelari buruzko informazioa ikusteko.

## FTP zerbitzariari lasterbideak gehitzea gailuan

Gehitu FTP zerbitzarirako lasterbide bat, lasterbideen eremuan.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Nire Fitxategiak**.

Ukitu  → **Gehitu FTP zerbitzaria**, idatzi xehetasunak (zerbitzariaren helbidea, erabiltzaile-izena eta pasahitza), eta ukitu **Egina**.

## Linterna

Erabili widget hau flasha piztu edo itzali eta ikuspena hobetzeko.

Pantaila nagusira gehitzeko, luze sakatu pantaila nagusiko leku huts bat, ukitu **Widgets**, luze sakatu **Linternaren** widgeta, eta arrastatu pantaila nagusiraino.

Hasierako pantailan, ukitu **Linternaren** widgeta, pizteko edo itzaltzeko.

# Beste gailu batzuekin konektatzea

## NFC

### NFC funtzioari buruz

Gailuak hurbileko komunikazio-etiketak (NFC), produktuei buruzko informazioa dakartenak, irakur ditzake. Halaber, funtzio hori erabil dezake ordainketak egiteko eta garraio-txartelak eta ikuskizunetako sarrerak erosteko, deskargatu beharreko aplikazioak deskargatuz gero.



NFC antena integratu bat dauka bateriak. Kontuz erabili bateria NFC antena ez hondatzeko.

### Funtzio hau erabili aurretik


- Begiratu zure gailuan eta bestean non dauden NFC antenak.
- Ziurtatu NFC funtzioa aktibatuta dagoela zure gailuan eta konektatu nahi duzun gailuan.
- Egiaztatu gailuaren pantaila desblokeatuta dagoela. Bestela, gailuak ez ditu irakurriko NFC etiketak, eta ez du daturik jasoko .

## NFC funtzioa erabiltzea

Erabili NFC funtzioa beste gailu batzuetara irudiak edo kontaktuak bidaltzeko eta produktuei buruzko informazioa irakurtzeko NFC etiketak erabiliz. Ordainketa-funtzioa duen SIM edo USIM txartel bat sartzen baduzu, ordainketak egiteko erabil dezakezu gailua.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **NFC**, eta, gero, arrastatu **NFC** etengailua eskuinera.

Jarri NFC antenaren eremua (gailuaren atzealdean dago) NFC etiketa batetik hurbil. Etiketaren informazioa bistaratuko da.



## Erosketa bat egitea NFC funtzioaren bidez

NFC funtzioa ordainketak egiteko erabili ahal izateko, aldez aurretik ordainketa mugikorretako zerbitzuaren bidez erregistratu beharko duzu. Erregistratzeko nahiz zerbitzu honi buruzko xehetasunak jasotzeko, jo zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **NFC**, eta, gero, arrastatu **NFC** etengailua eskuinera.

Jarri NFC antenaren eremua (gailuaren atzealdean dago) NFC txartel-irakurgailuaren gainean.

Ordainketa-aplikazio lehenetsia zehazteko, ukitu **Ukitu eta ordaindu**, eta aukeratu aplikazio bat.



Baliteke eskura dauden ordainketa-aplikazio guztiak ez egotea ordainketa-zerbitzuen zerrendan.

## Datuak bidaltzea

Erabili Android Beam funtzioa datuak bidali ahal izateko, hala nola webguneak eta kontaktuak, NFCrako gaitutako gailuetara.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **NFC**, eta, gero, arrastatu **NFC** etengailua eskuinera.
- 2 Ukitu **Android Beam**, eta arrastatu **Android Beam** etengailua eskuinera.
- 3 Aukeratu elementu bat, eta jarri beste gailuaren NFC antena zurea gailuaren NFC antenarekin kontaktuan.
- 4 Pantailan **Sakatu bidaltzeko** bistaratzen denean, ukitu gailuaren pantaila, elementua bidaltzeko.

## Bluetootha

### Bluetooth funtzioari buruz

Bluetoothak haririk habeko zuzeneko konexio bat sortzen du bi gailuren artean, distantzia laburretan. Erabili bluetootha beste gailu batzuekin datuak edo multimedia-fitxategiak partekatzeko.



- Samsungek ez du bere gain hartzen bluetootharen bidez bidalitako edo jasotako datuak galtzearen, bidean atzematearen edo modu desegokian erabiltzearen ardura.
- Egiazta ezazu beti segurtasun egokia duten gailu fidagarriekin partekatzen dituzula datuak. Gailuen artean oztopoak badaude, baliteke distantzia operatiboa murriztea.
- Gerta liteke gailu batzuk (Bluetooth SIG-ek probatu edo baimendu gabekoak batez ere) gailuarekin bateragarriak ez izatea.
- Ez erabili bluetootha legez kanpoko helburuetarako (adibidez, fitxategien kopiak pirateatzeko edo helburu komertzialetarako elkarrizketak legez kanpo grabatzeko).

Samsungek ez du bere gain hartzen bluetootha legez kanpo erabiltzeak ekar litzakeen ondorioen erantzukizunik.



## Funtzio hau erabili aurretik

- Ziurtatu bluetootha aktibatuta dagoela zure gailuan eta konektatu nahi duzun gailuan.
- Ziurtatu bluetootha darabilten beste gailu batzuek ikusteko moduan konfiguratuta daudela bi gailuak.

## Bluetootha darabilten beste gailu batzuekin lotzea

**1** Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Bluetooth**, arrastatu **Bluetooth** etengailua eskuinera, eta, gero, ukitu **Arakatu**. Detektatuta dauden gailu guztien zerrenda azalduko da.

Gailua ikusgai gisa konfiguratzeke, ukitu gailuaren izena.

**2** Hautatu lotzeko gailu bat.

Gailua dagoeneko beste gailuarekin lotuta badago, ukitu gailuaren izena automatikoki sortutako pasahitza berretsi gabe.

**3** Onartu bluetootharen baimen-eskaera bi gailuetan, berresteko.


## Datuak bidaltzea eta jasotzea

Aplikazio askok bluetooth bidez datuak transferitzeko aukera ematen dute. Datuak, hala nola kontaktuak edo multimedia-fitxategiak, beste bluetooth gailu batzuekin parteka ditzakezu. Ekintza hauek irudi bat beste gailu batera nola bidaltzen den erakusten duten adibideak dira.

## Irudi bat bidaltzea

**1** Aplikazio-pantailan, ukitu **Galeria**.

**2** Hautatu irudi bat.

3 Ukitu  → **Bluetooth**, eta, gero, hautatu lotzeko gailu bat.

Lotu nahi duzun gailua ez badago zerrendan, eskatu gailuak ikusgaitasun-aukera aktiba dezan. Edo konfiguratu gailua ikusgai gisa, gainerako gailuentzat.


4 Onartu bluetootharen baimen-eskaera beste gailuan.

## Irudi bat jasotzea

Beste gailu batek irudi bat bidaltzen dizunean, onartu bluetootharen baimen-eskaera. Jasotako irudia **Galerian** gordeko da, **Download** karpetan.

## Bluetooth gailuen lotura kentzea

1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Bluetooth**. Gailuak lotutako gailuak bistaratuko ditu zerrendan.

2 Ukitu  gailuaren izenaren ondoan, lotura kentzeko.

3 Ukitu **Desparekatu**.

## S Beam

Erabili funtzio hau datuak bidaltzeko, hala nola bideoak, irudiak eta dokumentuak.

### Funtzio hau erabili aurretik


- Ziurtatu NFC funtzioa edo Wi-Fi Direct funtzioa aktibatuta dagoela zure gailuan eta fitxategiak bidali nahi dizkiezun gailuetan.

### Datuak bidaltzea

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **NFC**, eta, gero, arrastatu **NFC** etengailua eskuinera.
- 2 Ukitu **S Beam**, eta arrastatu **S Beam** etengailua eskuinera.
- 3 Aukeratu fitxategi bat, eta jarri beste gailuaren NFC antena zure gailuaren NFC antenarekin kontaktuan.
- 4 Pantailan **Sakatu bidaltzeko** bistaratzen denean, ukitu gailuaren pantaila, fitxategia bidaltzeko.



- Ez bidali egile-eskubideen legez babestutako datuak S Beam erabiliz. Hori eginez gero, baliteke egile-eskubideen legeak urratzea. Samsungek ez du bere gain hartuko erabiltzaileak datu babestuak legez kanpo erabiltzeak eragindako inolako erantzukizunik.
- Bi gailuak aldi berean saiatzen badira datuak bidaltzen, fitxategi-transferentziak huts egin lezake.



## Konexio azkarra

### Konexio azkarra funtzioari buruz

Erabili funtzio hau gertu dauden gailuak bilatzeko, eta haietara erraz konektatzeko. Gailua urruneko aginte gisa erabil dezakezu telebista bati konektatuta. Gailuan gordeta dauden edukiak ordenagailuekin ere erraz parteka ditzakezu.



- Konektatzeko metodoak aldatu egin litezke konektatzen diren gailu-moten edo partekatzen diren edukien arabera.
- Gailuaren izena desberdina izan daiteke lotu nahi dituzun bluetooth gailuen arabera. Adibidez, gailuaren izena BT MAC gisa ager liteke.

### Funtzio hau erabili aurretik

- Ziurtatu lotu nahi dituzun gailuek konexio azkarreko funtzioa onartzen dutela eta pantaila piztuta daudela.
- Ziurtatu Wi-Fi Direct edo Bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela konexio azkarreko funtzioa onartzen ez duten gailuetan.

## Beste gailu batzuekin konektatzea

### 1 Ireki jakinarazpen-panela, eta ukitu **Quick connect**.

Panela irekitakoan, bluetooth funtzioa automatikoki aktibatuko da, eta gailuak gertu dauden gailuak bilatuko ditu.

### 2 Hautatu konektatzeko gailu bat.

Urrats hauek desberdinak izan daitezke kontektatutako gailuaren arabera. Segi pantailako jarraibideei, bi gailuen arteko konexioa ezartzeko.

Gertu dauden gailuek zurea bilatu eta harekin konektatu daitezen, ukitu  → **Beti konektatzeko prest**, eta, gero, arrastatu **Beti konektatzeko prest** etengailua eskuinera.

## Gailuak berriro bilatzea

Nahi duzun gailua zerrendan ageri ez bada, bilatu itzazu.

Ukitu , eta, hautatu gailua detektatutako gailuen zerrendan.

## Gailuak deskonektatzea

Konexio bizkorreko funtzioa desaktibatzeko, ukitu  pantailaren beheko aldean. Bestela, ukitu .

## Edukiak partekatzea

Partekatu edukiak konektatutako gailuekin.

- 1 Ireki jakinarazpen-panela, eta ukitu **Quick connect**.
- 2 Hautatu gailu bat detektatutako gailuen zerrendan.
- 3 Hautatu multimedia-kategoria bat.
- 4 Hautatu partekatu nahi duzun edukia, eta ukitu **Egina**. Gailuak edukia konektatutako gailura bidaliko du.

## Telebista batera konektatzea

Konektatu gailua telebista batera, eta kontrolatu telebista gailua urruneko aginte gisa erabiliz.

## Funtzio hau erabili aurretik

- Ziurtatu telebista piztuta dagoela.
- Ziurtatu telebista WatchON funtzioan erregistratuta dagoela.
- Instalatu WatchON aplikazioan gailuan. **Samsung Apps**-etik edo **Play Store**-tik deskargatu dezakezu aplikazioa.

1 Ireki jakinarazpen-panela, eta ukitu **Quick connect**.

2 Ukitu **Kontrola**, detektatutako gailuen zerrendan.

Gailua telebistarekin konektatuta dagoenean, urruneko agintearen diseinu bat agertuko da pantailan.

Gailua telebista batekin lehen aldiz konektatzean, ukitu **Urrutiko kontrol konfig**. Gero, bete pantailan agertzen diren jarraibideak, gailuen konexioa osatzeko.

3 Kontrolatu konektatutako telebista urruneko agintearekin.

## Group Playra elkartzea

Partekatu edukiak beste gailu batzuekin Group Play funtzioaren bidez.

### Funtzio hau erabili aurretik

- Bilatu atal berri bat, eta egin bat harekin, edo sortu saio berri bat.
- Instalatu Group Play aplikazioa bi gailuetan. **Samsung Apps**-etik edo **Play Store**-tik deskargatu dezakezu aplikazioa.

1 Ireki jakinarazpen-panela, eta ukitu **Quick connect**.

2 Ukitu **Batu taldera**, detektatutako gailuen zerrendan.

Zerrendan, Group Play saioak onartzen dituzten gailuak baino ez dira agertuko.

3 Hautatu Group Playko saio bat, harekin bat egiteko.

4 Segi pantailako jarraibideei, bi gailuen arteko konexioa ezartzeko.

## Ordenagailuak arakatzea

Hasi Samsung Link aplikazioa, urrunetik konektatutako ordenagailuetan gordetako edukiak erabiltzeko. Funtzio hau erabiltzeko, hasi saioa zure Samsung accounten.

### Funtzio hau erabili aurretik

- Ziurtatu funtzio hau erabiltzen duten gailu guztiak sare berera konektatuta daudela.
- Ziurtatu gailua konektatuko den ordenagailu guztiak Samsung Link aplikazioan erregistratuta daudela.
- Instalatu Samsung Link aplikazioa bi gailuetan. **Samsung Apps**-etik edo **Play Store**-tik deskargatu dezakezu aplikazioa.

**1** Ireki jakinarazpen-panela, eta ukitu **Quick connect**.

**2** Ukitu **Konektatu**, detektatutako gailuen zerrendan. Zerrendan, erabilgarri dauden ordenagailuak baino ez dira agertuko.

**3** Hautatu konektatzeko ordenagailu bat.

**4** Segi pantailako jarraibideei, bi gailuen arteko konexioa ezartzeko.

## Smart Remote

### Smart Remote funtzioari buruz

Erabili aplikazio hau telebista batera konektatu eta gailua urruneko aginte gisa erabiltzeko. Telebistako programak bilatu eta hautatu ditzakezu, eta kanalak gailuarekin kontrolatu.

Ukitu **Smart Remote** aplikazio-pantailan.

### Aplikazio hau erabili aurretik

- Ziurtatu gailua sare batera konektatuta dagoela.
- Ziurtatu gailuaren ataka infragorria telebistarantz begira dagoela.





### Telebista batera konektatzea

- 1 Ukitu **Smart Remote** aplikazio-pantailan.
- 2 Ukitu **Hautatu herrialde edo eskualdea**, eta hautatu herrialde bat.
- 3 Hautatu eskualde bat eta transmisio-zerbitzua. Erabilgarri dauden telebista-programak agertuko dira.




## Gailua urruneko aginte gisa erabiltzea

Telebista piztu edo itzali dezakezu, kanala aldatu edo telebistaren bolumena doitu gailua urruneko aginte gisa erabiliz.

- 1 Gailuan, ukitu  → **Jarraitu**.
- 2 Hautatu telebistaren marka.
- 3 Ziurtatu gailuaren ataka infragorria telebistarantz begira dagoela, eta ukitu . Gero, ukitu **Bai, kode hau da** gailuak telebista itzaltzen badu.



Gailuak telebista itzaltzen ez badu, ukitu **Bidali kode hau berriz** edo **Ez, probatu hurrengo kodea**, eta errepikatu urrats hori telebistak seinalea ezagutu arte.

- 4 Hautatu kanal-iturri bat.
- 5 Konfigurazioa amaitutakoan, ukitu .



## Telebista gailuarekin ikustea

Hautatu telebista-programa bat eskura dauden programen zerrendan, konektatutako telebistan ikusteko.

- 1 Ukitu  → **TB saioak**, **Filmak** edo **Kirolak** eta joan ezkerrera edo eskuinera, kategoria bat aukeratzeko.
- 2 Aukeratu telebista-programa bat, eta ukitu **Ikusi or..**  
Aukeratutako saioa konektatutako telebistan bistaratuko da.
- 3 Ukitu , kanala aldatzeko edo bolumena doitzeko. Urruneko kontrolaren panela pantailan agertuko da.

## Saio-gogorazpenak konfiguratzeko

- 1 Hautatu ikusteko telebista-programa bat.
- 2 Ukitu **Gogorar.**, konfiguratu alarma bat telebista-programa noiz hasiko den gogorarazteko, eta gero, ukitu **Egina**.  
Programatutako orduan joko du alarmak.

## Screen Mirroring

### Screen Mirroringi buruz

Erabili funtzio hau gailua pantaila handi bati konektatzeko AllShare Cast edo HomeSync segurtasun-giltza baten bidez, eta, gero, partekatu zure edukiak. Miracast WiFi funtzioa erabiltzen duten beste gailu batzuekin ere erabil dezakezu funtzio hau.



Screen Mirroring, gailu gaituak (AllShare Cast segurtasun-giltza, HomeSync eta Wi-Fi Miracast gailuak)



- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Baliteke banda-zabalera handiko eduki digitalen babesak (HDCP 2.X) onartzen ez duten Miracasterako gaitutako gailuak ez izatea bateragarriak funtzio honekin.
- Fitxategi batzuk bufferrean gorde daitezke erreproduzitu bitartean, sareko konexioaren arabera.
- Energia aurrezteko, desgaitu funtzioa erabiltzen ari ez zarenean.
- WiFi-aren frekuentzia bat zehazten baduzu, baliteke ezin ikusi izatea AllShare Cast edo HomeSync segurtasun-giltzak eta haietara konektatzerik ez izatea.
- Telebista batean bideoak erreproduzitzen edo jokoak erabiltzen ari bazara, aukeratu telebistaren modu egokia, AllShare Cast-en esperientzia ahalik eta ondoena aprobetxatzeko.

## Funtzio hau erabili aurretik

- Ziurtatu Screen Mirroringerako gaitutako gailua telebistara HDMI kable baten bidez konektatuta dagoela.
- Ziurtatu telebista piztuta dagoela.

## Edukia telebista batean ikustea

Telebista bat gailura konektatu aurretik, konektatu telebista eta Screen Mirroringerako gaitutako gailua. Konexioa ezartzeko, kontsultatu gailuaren erabiltzailearen eskuliburua. Ekintza hauek AllShare Cast giltza baten bidez konektatuta dagoen telebista batean edukiak ikusteko moduen adibideak dira.

- 1 Telebistan, hautatu konexio-modu bat, HDMI modu gisa, kanpoko gailu bat konektatzeko.
- 2 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Screen Mirroring**. Detektatuta dauden gailu guztien zerrenda azalduko da.
- 3 Hautatu konektatzeko gailu bat.  
Gailuaren pantaila agertuko da telebistaren pantailan.  
Gailua lehen aldiz konektatzen baduzu, luze sakatu giltzaren izena zerrendan, eta idatzi telebistaren pantailan ageri den PINa.
- 4 Ireki edo erreproduzitu fitxategi bat, eta, gero, kontrolatu pantaila gailuko teklak erabiliz.

## Edukiak ikusteari uztea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Screen Mirroring**, eta, gero, arrastatu **Screen Mirroring** etengailua ezkerrean.

## Mugikorreko inprimaketako funtzioa erabiltzea

Konektatu gailua inprimagailu batera, irudiak edo dokumentuak inprimatzeko.



Gerta liteke beste inprimagailu batzuk ez izatea bateragarriak gailu honekin.

### Funtzio hau erabili aurretik

- Ziurtatu Wi-Fi edo Wi-Fi Direct funtzioa aktibatuta dagoela gailuan eta inprimagailuan.


### Inprimagailu batera konektatzea

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Inprimatzea**, hautatu inprimaketa-mota bat, eta, ondoren, arrastatu pantailaren goiko eskuineko aldean dagoen etengailua eskuinerantz. Gailuak gailua bera konektatuta dagoen Wi-Fi sare berera konektatuta dauden inprimagailuak bilatuko dugu. Hautatu inprimagailu bat inprimagailu lehenetsi gisa erabiltzeko.

Inprimagailuak eskuz gehitzeko, ukitu  → **Gehitu inprimagailua** → , sartu xehetasuna, eta, gero, ukitu **OK**.

Inprimaketa-doikuntzak aldatzeko, ukitu  → **Ezarpenak**.

### Edukiak inprimatzea

Edukiak -adibidez, irudiak edo dokumentuak- ikusten dituzun bitartean, ukitu  → **Inprimatu**, eta, gero, hautatu inprimagailu bat.

# Gailuaren eta datuen administratzailea

## Gailua eguneratzea

Software berrienarekin eguneratu dezakezu telefonoa.

### “Over-the-air” zerbitzuaren bidez eguneratzea

Gailua eguneratu dezakezu firmware over-the-air (FOTA) zerbitzuaren software-bertsio berrienarekin. Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Gailuari buruz** → **Software eguneratzea** → **Eguneratu**.

### Samsung Kiesekin eguneratzea

Deskargatu Samsung Kiesen azken bertsioa Samsungen webgunean. Jarri martxan Samsung Kies, eta konektatu gailua ordenagailura. Samsung Kiesek automatikoki ezagutuko du gailua, eta elkarrizketa-koadroan bistaratuko ditu eskuragarri dauden eguneraketak, halakorik balego. Sakatu **Eguneratu** botoia, elkarrizketa-koadroan, eguneraketa martxan jartzeko. Eguneraketari buruzko xehetasun gehiago eskuratzeko, kontsultatu Samsung Kiesen laguntza.



- Ez itzali ordenagailua eta ez deskonektatu USB kablea gailua eguneratzen ari den bitartean.
- Gailua eguneratzen ari dela ez konektatu multimedia-gailurik ordenagailura. Bestela, baliteke eguneraketa-prozesua oztopatzea.

## Fitxategiak transferitzea telefonoaren eta ordenagailuaren artean

Mugitu audio-, bideo- eta irudi-fitxategiak edo beste motaren batekoak ordenagailutik gailura eta alderantziz.



- Ez deskonektatu USB kablea gailutik, fitxategiak transferitzen ari diren bitartean. Hori eginez gero, datuak gal litezke edo gailua honda liteke.
- Ez deskonektatu gailua ordenagailutik gailuan gordetako fitxategiak konektatutako ordenagailuan erreproduzitzen ari diren bitartean. Fitxategia erreproduzitutakoan, deskonektatu gailua ordenagailutik.
- Baliteke gailuak behar bezala ez deskonektatzea USB oinarri baten bidez konektatuta badaude. Konektatu gailua zuzenean ordenagailuaren USB atakara.

### Multimedia-gailu gisa konektatzea

- 1 Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.
- 2 Ireki jakinarazpen-panela, eta, gero, ukitu **Multimedia-gailu gisa konektatuta > Multimedia-gailua (MTP)**.  
Ordenagailuak multimedia-transferentziako protokoloa (MTP) onartzen ez badu edo kontrolagailuak instalatuta ez badaude, ukitu **Kamera (PTP)**.
- 3 Transferitu fitxategiak telefonoaren eta ordenagailuaren artean.

## Samsung Kiesekin konektatzea

Samsung Kies aplikazio informatiko bat da, multimedia-edukiak eta datu pertsonalak administratzen dituena eta Samsung gailuekin sinkronizatzen dituena. Deskargatu Samsung Kiesen azken bertsioa Samsungen webgunean.

1 Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.

Samsung Kies automatikoki abiaraziko da ordenagailuan. Samsung Kies ez bada abiatzen, egin klik bi aldiz zure ordenagailuko Samsung Kiesen ikonoan.

2 Transferitu fitxategiak telefonoaren eta ordenagailuaren artean.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Samsung Kiesen laguntza.

## Segurtasun-kopiak egitea edo datuak berrezartzea

Babestu datu pertsonalak, aplikazioen datuak eta haien doikuntzak gailuan. Datu konfidentzialen segurtasun-kopia bat egin dezakezu segurtasun-kopien kontu batean, eta haiek beste une batean eskuratu.

### Googleko kontu bat erabiltzea

1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak**.

2 Ukitu **Babes kopia eta berrezarri** eta, hautatu, **Egin nire datuen babesk..**

3 Ukitu **Babes kopia kontua**, eta hautatu kontu bat segurtasun-kopia gisa.



Datuak berrezartzeko, Googleko kontuan saioa hasi beharko duzu konfigurazio-laguntzailearen bidez. Gailuan fabrikako datuak berrezarri abiarazi eta ireki ahalko duzu konfigurazio-laguntzailea. Googleko kontuan konfigurazio-laguntzailerik gabe hasten baduzu kontua, gailuak ez ditu berriro berrezarriko segurtasun-kopiako datuak



## Samsung account bat erabiltzea

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Kontuak** → **Kontua gehitu** → **Samsung account**, eta, gero, hasi saioa Samsung accounten.
- 2 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak**.
- 3 Ukitu **Lainoa** → **Babeskopia**, hautatu zer elementuren segurtasun-kopia egin nahi duzun, eta, gero, hautatu **Egin babes kopia orain** → **Babeskopia**.

Datuak berrezartzeko, ukitu **Berrezarri**, hautatu berrezarri nahi dituzun elementuak, eta, gero, ukitu **Berrezarri orain**.

## Datuak berrezartzea

Ezabatu gailuaren doikuntza guztiak eta gailuko datu guztiak. Fabrikako datuak berrezarri aurretik, ziurtatu gailuan gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopia egin dela. Kontsultatu [Segurtasun-kopiak egitea edo datuak berrezartzea](#), xehetasun gehiago eskuratzeko.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak**.
- 2 Ukitu **Babes kopia eta berrezarri** → **Berrezarri fabrika datuak**
- 3 Ukitu **Berrezarri gailua** → **Guztiak ezabatu**.


Gailua automatikoki berrabiaraziko da.

# Doikuntzak

## Doikuntzei buruz


Erabili aplikazio hau gailua konfiguratzeko, aplikazioen aukerak definitzeko eta kontuak gehitzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak**.

Doikuntzak gako-hitzak erabiliz bilatzeko, ukitu  .

## DOIKUNTZA AZKARRAK

Zoaz doikuntza-aukera gogokoenen zerrendara.

Doikuntza-aukera gogokoen zerrenda editatzeko, ukitu  → **Editatu ezarpen azkarrak**, hautatu doikuntza-aukera bat, eta, gero, ukitu **Gorde**.

## SARE-KONEXIOAK

### WiFi-a

WiFi funtzioa aktibatzeke, WiFi sare batera konektatzeko eta Internetera nahiz sareko beste gailu batzuetara sartzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Wi-Fi**, eta, gero, arrastatu **Wi-Fi** etengailua eskuinera.

Sare-konexio egonkor bat eduki dezakezu Wi-Fi sarea edo sare mugikorra automatikoki hautatuz, seinalerik onena erabiltzeko. Sare batetik bestera automatikoki joateko, hautatu **Sare adimendunaren tekla**.

Aukerak erabiltzeko, ukitu .

- **Eskaneatzea:** Erabilgarri dauden sareak bilatzeko.
- **Wi-Fi Direct:** Wi-Fi Direct aktibatzeke eta gailuak zuzenean Wi-Fi bidez konektatzeko, fitxategiak partekatzeko.
- **Aurreratua:** WiFi-aren doikuntzak pertsonalizatzeko.
- **WPS sakatze-botoia:** WPS botoi batekin babestutako WiFi sare batera konektatzeko.
- **WPS PIN sarrera:** WPSko PIN batekin babestutako WiFi sare batera konektatzeko.
- **Laguntza:** WiFi-aren erabilerari buruzko laguntza-informaziora sartzeko.

## WiFi-a aktibo ez izateari buruzko politika konfiguratzeko

Ukitu:  → **Aurreratua** → **Utzi Wi-Fia piztuta gauean.**




Pantaila desaktibatuta dagoela, gailuak automatikoki desaktibatuko ditu WiFi bidezko konexioak. Hori gertatzen denean, gailua automatikoki sartzen da sare mugikorretara, haiek erabiltzeko konfiguraturata badago. Baliteke horrek datuak transferitzeagatik kostuak izatea. Gastu gehigarriak saihesteko, konfiguratu aukera hau **Beti** gisa.

## Sareko jakinarazpenak konfiguratzeko

Gailuak WiFi sare irekiak detektatzen ditu, eta ikono bat bistaratzen du egoera-barran eskuragarri noiz dauden jakinarazteko.

Ukitu:  → **Aurreratua** eta hautatu **Sarearen jakinarazpena** funtzio hori aktibatzeke.

## Wi-Fi Direct

Wi-Fi Direct funtzioak gailuak konektatzen ditu WiFi sare baten bidez, sARBIDE-puntu baten beharrik gabe. Ukitu:  → **Wi-Fi Direct.**

## Download booster

Gailua konfiguratzeko, fitxategiak Wi-Fi eta sare mugikorren bidez aldi berean deskarga ditzan.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Download booster**, eta, gero, arrastatu **Download booster** etengailua eskuinera.



Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea sare mugikorraren bidez fitxategiak deskargatuz gero.

- **Ez bistaratu abiadurari buruzko informazioa.** Gailua configura dezakezu, deskarga optimizatzeko modua erabiltzen duzun bitartean datuak transferitzeko abiadura ez dezan bistaratu leiho gainerakor batean

## Bluetootha

Bluetootha aktibatzeko, informazioa distantzia txikietan truka dezan.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Bluetooth**, eta, gero, arrastatu **Bluetooth** etengailua eskuinera.

Aukera gehiago erabiltzeko, ukitu .

- **Ikuspena denboraz kanpo:** Gailua ikusgai egongo den denbora defintzeko.
- **Jasotako fitxategiak:** Bluetooth funtzioaren bidez jasotako fitxategiak ikusteko.
- **Berrizendatu gailua:** Gailuaren izena aldatzeko.
- **Laguntza:** Bluetootharen erabilerari buruzko laguntza-informaziora sartzeko.

## Tethering eta Wi-Fi eremua

Gailua WiFi eremu eramangarri gisa erabiltzeko, beste gailu batzuekin datu-konexioa partekatzeko. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Ainguratze-gailuak eta WiFi eremu eramangarriak”](#).

Doikuntza-pantailan, ukitu **Aingur. eta Wi-Fi b. guneak**.

- **Wi-Fi bero gune ibiltaria:** WiFi eremu eramangarria erabiltzeko datu mugikorren konexioa partekatzeko WiFi bidez ordenagailuekin edo beste gailu batzuekin. Funtzio hau erabil daiteke, sare-konexioa erabilgarri ez badago.

- **USB ainguraketa:** USB modem bat erabiltzeko gailuaren datu mugikorren konexioa partekatzeko USB bidez ordenagailu batekin. Ordenagailu batera konektatzen denean, gailua ordenagailurako haririk gabeko modem gisa erabiltzen da.
- **Bluetooth ainguraketa:** Modema bluetooth bidezko lotura erabiltzeko gailuaren datu mugikorren konexioa partekatzeko bluetooth bidez ordenagailu batekin edo beste gailu batekin.

## Hegazkin-modua


Gailuko haririk gabeko funtzio guztiak desaktibatzen ditu doikuntza honek. Sarerik gabeko zerbitzuak soilik erabil daitezke.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Hegaldia modua**.

## Datuak erabiltzea

Datuen erabilera kontrolatzeko eta muga-doikuntzak pertsonalizatzeko balio du. Doikuntza-pantailan, ukitu **Datuen erabilera**.

- **Datu mugikorrak:** Gailua konfiguratzeko, edozein sare mugikorretan erabil ditzan datu-konexioak.
- **Ezarri mugikorraren datu muga:** Datu mugikorren erabilerari muga bat ezartzeko.
- **Datu erabiltze zikloa:** Berrezartzeko hileko eguna zehazteko, hala, denbora-tarte jakin batzuetan datuen erabilera kontrolatu ahal izateko

Aukera gehiago erabiltzeko, ukitu  .

- **Datu roaminga:** Gailua konfiguratzeko, desplazamenduan dagoela datu-konexioak erabiltzeko.
- **Mugatu atzeko planoko datuak:** Gailua konfiguratzeko, bigarren mailako sinkronizazioa desaktiba dezan sare mugikor bat erabili bitartean.
- **Sinkronizatu automatikoki datu.:** Aplikazioen sinkronizazio automatikoa aktibatze edo desaktibatze. Kontu bakoitzerako sinkronizatu nahi duzun informazioa hemen hauta dezakezu: **Ezarpenak** → **Kontuak**.
- **Erakutsi Wi-Fiaren erabilera:** Gailua konfiguratzeko, WiFi bidezko datuen erabilera bistaratu dezan.
- **Berogune ibiltariak:** WiFi eremuak eramangarriak aukeratzeko, bigarren mailako aplikazio aktiboek erabili ez ditzaten.

## Kokapenak

Kokapen-informazioaren baimenen doikuntzak aldatzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Kokapenak**, eta, gero, arrastatu **Kokapenak** etengailua eskuinera.

- **Modua:** Kokapen-datuak biltzeko metodo bat hautatzeko.
- **BERRIKI EGINDAKO KOKAPEN ESKAERAK:** Uneko kokapen-datuak eskatzen dituzten aplikazioak eta bateriaren erabilera ikusteko.
- **KOKAPEN ZERBITZUAK:** Gailuak erabiltzen dituen kokapen-zerbitzuak ikusteko.
- **Nire tokiak:** Zure kokapena bilatzeko GPS, WiFi eta bluetooth funtzioak erabiltzean kokapen espezifiko batzuetarako erabiliko diren profilak konfiguratzeko.

## Sare gehiago

Konfigurazioa pertsonalizatzeko, sareak kontrolatu ahal izateko. Doikuntza-pantailan, ukitu **Sare gehiago**.

## Mezularitza-aplikazio lehenetsia

Hautatu mezularitza-zerbitzurako aplikazio lehenetsia.

## Sare mugikorrek

- **Datu mugikorrek:** Gailua konfiguratzeko, edozein sare mugikorretan erabil ditzan datu-konexioak.
- **Datu roaminga:** Gailua konfiguratzeko, desplazamenduan dagoela datu-konexioak erabiltzeko.
- **Sarbide izenak:** Sarbide-puntuen izenak (APN) konfiguratzeko.
- **Sare modua:** Sare-mota bat hautatzeko.
- **Sareko operadoreak:** Atzerrian zaudenean erabilgarri dauden sareak bilatzeko eta sare bat hautatzeko.

## VPN

Konfiguratu sare pribatu birtualak (VPN), eta konektatu haietara.

# KONEKTATZEA ETA PARTEKATZEA

## NFC

NFC funtzioa aktibatzeko, hartara NFC etiketa informaziodunak irakurtzeko eta idazteko. Doikuntza-pantailan, ukitu **NFC**, eta, gero, arrastatu **NFC** etengailua eskuinera.

- **Android Beam:** Android Beam funtzioa aktibatzeko datuak bidali ahal izateko, hala nola webguneak eta kontaktuak, NFCrako gaitutako gailuetara.
- **S Beam:** Aktibatu S Beam funtzioa datuak bidali ahal izateko, hala nola bideoak, irudiak eta dokumentuak, NFCrekin eta WiFi Direct-ekin bateragarriak diren gailuetara.
- **Ukitu eta ordaindu:** Mugikorreko ordainketak egiteko ordainketa-aplikazio lehenetsia ezartzeko.



Baliteke eskura dauden ordainketa-aplikazio guztiak ez egotea ordainketa-zerbitzuen zerrendan.

## Hurbileko gailuak

Doikuntzak aldatzeko aukera ematen du, edukiak partekatzeko gailua hurbileko gailuetara konektatutakoan.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Gertuko gailuak**, eta, gero, arrastatu **Gertuko gailuak** etengailua eskuinera.

- **GAILUAREN IZENA:** Gailuak multimedia-zerbitzari gisa zer izen duen ikusteko.
- **Partekatutako edukiak:** Gailua konfiguratzeko, beste gailu batzuekin edukiak partekatzeko.
- **Baimendutako gailuak:** Zure gailura sartzeko baimena duten gailuen zerrenda ikusteko.
- **Baimenik gabeko gailuen zerrenda:** Blokeatuta dauden eta zure gailura sartu ezin duten gailuen zerrenda ikusteko.
- **Deskargatu hona:** Multimedia-fitxategiak gordetzeko memoria-kokapen bat hautatzeko.
- **Kargatu beste gailu batzuetatik:** Gailua konfiguratzeko, beste gailu batzuetako kargatzeak onar ditzan.

## Inprimatzea

Gailuan instalatutako inprimagailuaren pluginen doikuntzak konfiguratzeko. Eskuragarri dauden inprimagailuak bila ditzakezu edo bat eskuz gehitu, fitxategiak WiFi zerbitzuaren edo hodei-zerbitzuaren bidez inprimatzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Inprimatzea**.

## Screen Mirroring

Pantaila beste pertsona batzuekin partekatzeko funtzioa aktibatzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Screen Mirroring**.

# SOINUA ETA PANTAILA

## Soinua

Gailuko soinuen doikuntzak aldatzeko balio du.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Soinua**.

- **Soinu modua:** Soinu profila edo profil isila erabiltzeko konfiguratzeko gailua.
- **Bolumena:** Dei-doinu, musika, bideo, sistema-soinu eta jakinarazpenen bolumen-maila doitzeko.
- **Dardara intentsitatea:** Bibrazio bidezko jakinarazpenaren intentsitatea doitzeko.
- **Dei doinuak:** Doinu bat gehitzeko edo hautatzeko, sarrerako deiak ezagut ditzazun.
- **Bibrazioak:** Bibrazio-eredu bat gehitzeko nahiz hautatzeko.
- **Jakinarazpenak:** Gertaeratarako doinu bat aukeratzeko; adibidez, sarrerako mezu eta deietarako.
- **Bibratu doinua jotzean:** Gailu bat definitzeko deiak jasotzean bibratu eta melodia bat erreproduzi dezan.
- **Markaketa teklatu tonua:** Gailua definitzeko, teklatuko teklak sakatzean soinua egin dezan.
- **Ukimen soinuak:** Gailua konfiguratzeko, ukipen-pantailan aplikazio bat edo aukera bat hautatzen duzun bakoitzean soinu bat egin dezan.
- **Pantaila blokeoaren soinua:** Gailua konfiguratzeko, ukipen-pantaila blokeatzen edo desblokeatzen duzunean soinu bat egin dezan.
- **Bibratu ukitzean:** Teklak ukitzean telefonoak bibra dezan konfiguratzeko.
- **Ukitzen deneko soinua:** Tekla bat sakatzean gailuak soinu bat egin dezan konfiguratzeko.
- **Vibrar al pulsar teclas:** Tekla bat sakatzean gailuak bibra dezan konfiguratzeko.
- **SAMSUNG APLIKAZIOAK:** Aplikazio bakoitzaren jakinarazpen-doikuntzak aldatzeko.
- **Musika efektuak:** Musika entzutean aplikatzeko soinu-efektu bat hautatzeko.



## Pantaila

Pantailako doikuntzak aldatzeko balio du.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Pantaila**.

- **Argitasuna:** Pantailaren distira zehazteko.
- **Letra:**
  - **Letra estiloa:** Testuak pantailan duen letra-tipoa aldatzeko.
  - **Letraren neurria:** Letra-tipoaren neurria aldatzeko.
- **Pantailaren biraketa:** Gailua definitzeko biratzean edukia ere bira dezan.
  - **Biraketa adimenduna:** Interfazea definitzeko aurpegiaren orientazioaren arabera biratu ez dezan.
- **Smart stay:** Atzeko argiztapena ez itzaltzeko pantailara begira zaudela.
- **Pantaila denboraz kanpo:** Pantailaren atzeko argiztapena itzali aurretik zenbat denbora igarotzea nahi duzun zehazteko.
- **Pantaila modua:**
  - **Adapt Display:** Erabili modu hau pantaila optimizatzeko pantailako doikuntzen arabera.
  - **Dinamikoa:** Erabili modu hau pantailaren tonua distiratsuagoa izan dadin.
  - **Estandarra:** Erabili modu hau ohiko inguruneetarako.
  - **Argazki profesionala:** Erabili modu hau pantailaren tonuak kolore errealagoak izan ditzan.
  - **Zinema:** Erabili modu hau argi gutxiko inguruneetarako; adibidez, gela ilun baterako.
- **Egok. pant. tonua autom.:** Gailua konfiguratzeko, energia aurrezteko pantailaren distira doitzuz.
- **Fantasia:** Gailua konfiguratzeko, pantaila-babeslea martxan jar dezan idazmahai-oinarri batera konektatzen duzunean edo kargatzen ari den bitartean.

- **LED adierazlea:**
  - **Kargatzen:** Gailua konfiguratzeko, jakinarazpen-argia piztu dezan bateria kargatzen ari denean.
  - **Bateria gutxi:** Gailua konfiguratzeko, jakinarazpen-argia aktiba dezan bateriaren karga-maila txikia denean.
  - **Jakinarazpenak:** Gailua konfiguratzeko, jakinarazpen-argia piztu dezan dei galduak, mezuak edo jakinarazpenak dituenen.
  - **Ahots grabaketa:** Gailua konfiguratzeko, jakinarazpen-argia piztu dezan ahots-oharrak grabatzean.
- **Sakatu argi iraupenaren tekla:** Azkena erabiliko aplikazioen botoiaren eta atzera botoiaren atzeko argiztapena zenbat denbora egongo den piztuta definitzeko.
- **Handitu ukimen sentsib.:** Gailua konfiguratzeko, eskularruak jantzita ukipen-pantaila erabili ahal izateko.



Eskularruen materialaren arabera, gerta liteke komando batzuek ez funtzionatzea.

## Atzealdeak

Pantaila-atzealdearen doikuntzak aldatzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Pantaila atzealdea**.

- **Pantaila nagusia:** Pantaila nagusirako atzealde bat aukeratzeko.
- **Blokeatu pantaila:** Pantaila blokeaturako atzealdeko irudi bat aukeratzeko.
- **Hasiera eta blokeo pantailak:** Pantaila nagusirako eta pantaila blokeaturako atzealde bat aukeratzeko.

## Blokeo-pantaila

Pantaila blokeatuko doikuntzak aldatzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Blokeatu pantaila**.

- **Pantailaren blokeoa:** Pantaila blokeatzeko funtzioa aktibatzeko. Aukera hauek aldatu egin litezke, aukeratutako pantaila-blokeoko funtzioaren arabera.
- **Erloju duala:** Gailua konfiguratzeko, erloju duala bistaratu dezan.

- **Erlojuaren neurria:** Erlojuaren tamaina aldatzeko.
- **Data erakutsi:** Gailua konfiguratzeko, data ere bistaratu dezan erlojuarekin batera.
- **Kamera lasterbidea:** Gailua konfiguratzeko, pantaila blokeatuan kamerarako lasterbidea bistaratu dezan.
- **Jabearen informazioa:** Erlojuarekin batera bistaratuko den zuri buruzko informazioa sartzeko.
- **Desblokeo efektua:** Pantailako desblokeatzean bistartzeko efektu bat hautatzeko.
- **Informazio gehigarria:** Gailua konfiguratzeko, pantaila blokeatuan erakuts ditzan eguraldia, hurrengo gertaerak edo **S Health**en ibilaldi-laguntzailea erabiltzean pauso-kontakteta.
- **Laguntza testua:** Gailua konfiguratzeko, pantaila blokeatuan laguntza-testua bistaratu dezan.

## Multi window

Gailua konfiguratzeko, Multi window erabiltzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Multi window**, eta, gero, arrastatu **Multi window** etengailua eskuinera.

- **Leiho anitz. ikusp. ireki:** Gailua konfiguratzeko, **Nire Fitxategiak** edo **Bideoko** fitxategiak irekitzean Multi window funtzioa aktibatzeko. Gainera, gailuak funtzio hori aktibatuko du mezuen elementu erantsiak ikustean.

## Jakinarazpen-panela

Jakinarazpen-panelean bistaratzen diren elementuak pertsonalizatzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Jakinarazpenen panela**.

- **Argitasun egokitzea:** Gailua konfiguratzeko, jakinarazpen-panelean distira doitzeko barra bistartzeko.
- **Aplikazio gomendatuak:** Gailua konfiguratzeko, jakinarazpen-panelean aplikazio gomendatuen zerrenda bat bistara dezan zure ekintzen arabera; adibidez, entzungailu bat gailura konektatzean.
- **Ezarri ezar. azkarren botoiak:** Jakinarazpen-panelean bistaratuko diren doikuntza azkarretako botoiak berrantolatzen.

## Erreminta-kaxa

Gailua konfiguratzeko, erreminta-kaxa erabil dezan.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Tresna kutxa**, eta, gero, arrastatu **Tresna kutxa** etengailua eskuinera.

- **APLIKAZIOAK:** Erreminta-kaxan bistartzeko aplikazio-zerrenda ikusteko.
- **Editatu:** Erreminta-kaxan bistaratu nahi dituzun aplikazioak hautatzeko.

## Esku bakarrarekin erabiltzea

Esku bakarrarekin erabiltzeko modua aktibatzeko, erosoago erabil dezazun gailua esku bakarrarekin.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Esku bakarreko eragiketa**, eta, gero, arrastatu **Esku bakarreko eragiketa** etengailua eskuinera.

# PERTSONALIZATZEA

## Modu erraza

Gailua modu errazean konfiguratzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Modu erraza**.

- **Modu estandarra:** Gailua modu estandarrean konfiguratzeko.
- **Modu erraza:** Gailua modu errazean konfiguratzeko.
- **APLIKAZIO ERRAZAK:** Diseinu errazagoekin bistartzeko aplikazioak hautatzeko.

## Irisgarritasuna

Funtzio hau erabil dezakezu, gailuaren irisgarritasuna hobetzeko aukera ematen duten doikuntzetara joateko. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu "[Irisgarritasuna](#)".

Doikuntza-pantailan, ukitu **Erabilgarritasuna**.

## Blokeo-modua

Blokeatuko diren jakinarazpenak aukeratzeko edo kontaktu jakin batzuei deien jakinarazpenak onartzeko blokeo-moduan.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Blokeo modua**, eta, gero, arrastatu **Blokeo modua** etengailua eskuinera.

## Modu pribatua

Gailua konfiguratu daiteke, beste pertsona batzuk modo pribatua aktibatuz zure eduki pertsonaletara sartzea eragozteko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Modu pribatua**, eta, gero, arrastatu **Modu pribatua** etengailua eskuinera.

- **Método de desbloqueo:** Desblokeatzeko metodoa definitzeko edo aldatzeko, modu pribatua aktibatzeko.

## Hatz-eskanerra

Zure hatz-markak gailuan erregistra ditzakezu, gailua babesteko edo Samsung accounten saioa hasteko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Hatz eskanerra**.

- **Hatz aztar. kudeatzailea:** Hatz-marka digitalak erregistratzeko edo ezabatzeko.
- **Aldatu ordezkoko pasahitza:** Ordezko pasahitza aldatzeko, gailuak hatz digitala ezagutzen ez badu ere.
- **Pantailaren blokeoa:** Desblokeatzeko metodo bat eta ordezkoko pasahitz bat definitzeko.
- **Egiaztatu Samsung account:** Gailua konfiguratzeko, Samsung account hatz digitalekin egiaztatzeko.
- **Ordaindu PayPal erabiliz:** Gailua konfiguratzeko, PayPal-eko kontua hatz digitalekin egiaztatzeko eta erosketak hatz digitalekin baimentzeko.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## MUGIMENDUA

### Mugimenduak eta keinuak

Mugimendua ezagutzeko funtzioa aktibatzeke eta gailuak mugimendua ezagutzea kontrolatzen duten doikuntzak aldatzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Mugimenduak eta keinuak**.

- **Air browse:** Mugitu eskua ezkerrean edo eskuinera sentsorean, irudiak, webgunek, abestiak bilatzeko.
- **Zuzeneko deia:** Ahots dei bat egiteko gailua altxatuta eta belarritik hurbil atxikita, dei baten, mezu baten nahiz kontaktu baten xehetasunak ikusten dituzun bitartean.
- **Smart alert:** Gailua defintzeko, hura altxatzean dei galduak edo mezu berriak badaude alerta bat egin dezan.
- **Mututu/eten:** Gailua konfiguratzeko, sarrerako deiak edo alarmak isilarazteko, edo, erreprodukzioa pausarazteko esku-ahurraren mugimenduen bidez edo pantailari begiratzeari uztean.
  - **Pantaila eskuaz estaltzea:** Gailua konfiguratzeko, sarrerako deiak edo alarmak isilarazteko, edo, multimedia-erreprodukzioa pausarazteko pantaila esku-ahurrez estaltzean.
  - **Itzulikatu gailua:** Gailua konfiguratzeko, behera begira jarriz gero sarrerako deien edo alarmen soinua desaktiba dezan edo multimedia-erreprodukzioa pausaraz dezan.
  - **Eten adimenduna:** Gailua konfiguratzeko, bideo-erreprodukzioa gelditu dezan pantailara begiratzeari utziz gero.
- **Irristatu esku-azpia kapturatzeko:** Pantailako irudi bat harrapatzeke eskua pantailan zehar ezkerrean nahiz eskuinera mugituta.

### Air view

Edukien edo informazioaren aurrebista ikusteko leiho gainerakor batean, elementu bat hatzarekin seinalatuz gero.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Air view**, eta, gero, arrastatu **Air view** etengailua eskuinera.

# ERABILTZAILEA ETA SEGURTASUN-KOPIA

## Kontuak

Posta elektronikoko kontuak edo sare sozialetakoak gehitzeko balio du. Doikuntza-pantailan, ukitu **Kontuak**.

## Cloud

Aukera ematen du zure Samsung kontuarekin edo Dropboxeko hodeiko biltegitratze-zerbitzuarekin datu-sinkronizaziorako doikuntzak aldatzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Lainoa**.

## Segurtasun-kopiak egitea eta leheneratzea

Doikuntzak aldatzeko, eta, hala, doikuntzak eta datuak kudeatzeko balio du.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Babes kopia eta berrezarri**.

- **Egin nire datuen babesk.:** Zure doikuntzen eta aplikazioetako datuen segurtasun-kopia egiteko Googleren zerbitzari batean.
- **Babes kopia kontua:** Googleren segurtasun-kopiako kontua konfiguratzeko edo editatzeko.
- **Berrezarpen automatikoa:** Gailuan berriro instalatzen dituzunean zure aplikazioetako doikuntzak eta datuak berrezartzeko.
- **Berrezarri fabrika datuak:** Doikuntza lehenetsiak berrezartzeko eta datu guztiak ezabatzeko.

## SISTEMA

### Hizkuntza eta testua sartzea

Testua idazteko doikuntzak aldatzeko balio du. Hautatu den hizkuntzaren arabera, baliteke aukera batzuk erabilgarri ez egotea.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Hizkuntza eta sarrera**.

### Hizkuntza

Pantailako hizkuntza hautatzeko (menu eta aplikazio guztietarako).

### Lehenetsia

Testua idazteko teklatu-mota bat hautatzeko.

### Samsung teklatura

Samsung teklatuaren doikuntzak aldatzeko, ukitu  .



Eskuragarri dauden aukerak aldatu egin litezke lurraldearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

- **English(UK):** teklatuarentzat diseinu lehenetsi bat hautatzeko.
- **Aukeratu sarrera hizkuntzak:** Testua idazteko hizkuntzak aukeratzeko.
- **Testu iragarlea:** Testu prediktiboaren modua aktibatzeko, idazten duzunaren arabera hitzak iradokitzeko. Hitzen iradokizunetarako doikuntzak ere pertsonaliza daitezke.
- **Ordezkapen automatikoa:** Gailua definitzeko, gaizki idatzitako edo osatu gabeko hitzak zuzendu ditzan zuriune-barra edo puntuazio-marka erabilita.
- **Nire lasterbideak:** Zenbakiak maiz erabiltzen duzun testurako lasterbideekin konfiguratzeko. Zenbaki bat luze saka dezakezu, testu lehenetsi bat idazteko.
- **Maiuskula jartze automatikoa:** Gailua konfiguratzeko puntuazio-zeinu baten atzetik (adibidez, puntua, galdera-ikurra edo harridura-ikurra) lehen karakterea maiuskulaz idatz dezan.
- **Espazio automatikoak:** Gailua doitzeko, hitzen artean zuriuneak txerta ditzan automatikoki.
- **Jarri puntuazioa automatikoki:** Gailua konfiguratzeko zuriune-barra bi aldiz sakatzean amaierako puntu bat txerta dezan.



- **Teklatu aldaketa:**
  - **Bat ere ez:** Gailua konfiguratzeko, teklatuko desplazamendu-funtzioa desaktibatzeko.
  - **Sarrera etengabea:** Gailua konfiguratzeko, testua sartu ahal izateko teklatuan mugituz.
  - **Kurtsorearen kontrola:** Teklaturako nabigazio adimenduneko funtzioa aktibatzeko, kurtsorea mugi dezazun teklatuan aurrera eta atzera ibiltzean.
  - **Kolpatze sarrera:** Teklatua gaitzeko edo desgaitzeko, tekla bat luze sakatuta eta hatza gorantz bizkor mugituta zenbakiak edo ikurrak idazteko.
- **Soinua:** Gailua konfiguratzeko tekla bat sakatzean soinu bat egin dezan.
- **Bibrazioa:** Tekla bat sakatzean telefonoak bibra dezan konfiguratzeko.
- **Karaktere aurrebista:** Gailua konfiguratzeko, karaktere bakoitzaren irudi handi bat erakuts dezan zuk ukitu ahala.
- **Ukitu eta eutsi atzerapena:** Pantaila luze sakatu dela jotzeko zenbat denboran sakatu behar den definitzeko.
- **Berrezarri ezarpenak:** Samsung teklatuaren doikuntzak berrezartzeko.

## Googleren ahots bidezko idazketa

Ahots bidezko sarreraren doikuntzak aldatzeko, ukitu .

- **Choose input languages:** Testua sartzeko hizkuntzak aukeratzeko.
- **Block offensive words:** Gailua konfiguratzeko, ahots bidezko sarreretan hitz iraingarriak ezagutu ez dezan.
- **Offline speech recognition:** Hizkuntza-datuak deskargatzeko eta instalatzeko konexiorik gabeko ahots-sarrerarako.

## Ahotsez bilatzea


- **Language:** Ahotsa ezagutzeko funtziorako hizkuntza hautatzeko.
- **Speech output:** Gailua konfiguratzeko ahots-erantzunak eman ditzan uneko ekintzaren berri emateko.
- **Block offensive words:** Ahots bidezko bilaketaren emaitzetan hitz iraingarriak ezkutatzeko.
- **Hotword detection:** Ahotsaren ezagutza martxan jartzeko, bilaketa-aplikazioa erabiltzen ari zarela aktibazio-komando bat esanda.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

- **Offline speech recognition:** Hizkuntza-datuak deskargatzeko eta instalatzeko konexiorik gabeko ahots-sarrerarako.
- **Bluetooth headset:** Gailua definitzeko, bluetooth bidezko entzungailu batetik ahots bidezko bilaketa egin dezan, beste entzungailu bat gailura konektatuta egonda ere.

## Testutik hizketarako aukerak

- **TTS MOTOR LEHENETSIA:** Ahotsa sintetizatzeko motor bat hautatzeko. Ahots-sintesirako motorren doikuntzak aldatzeko, ukitu .
- **Hizketaren abiadura:** Texto a voz funtzioaren abiadura hautatzeko.
- **Entzun adibide bat:** Ozen irakurritako adibide bat entzuteko.
- **Lehen. hizkuntza egoera:** Texto para pronunciar funtziorako hizkuntza lehenetsiaren egoera ikusteko.

## Jakinarazpenak irakurtzea

Gailua konfiguratzeko, jakinarazpenak ozen irakurtzeko dei galduak, mezuak edo jakinarazpenak dituenen.

## Kurtsorearen abiadura

Kurtsorearen abiadura doitzeko gailuari konektatutako sagurako edo ukipen-panelerako.

## Data eta ordua

Doikuntza hauetara sartzeko eta haiek aldatzeko, gailuan data eta ordua agertzeko modua kontrolatzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Data eta ordua**.



Bateria guztiz deskargatuta edo gailutik kanpo badago, eguna eta ordua berrabiarazi egingo dira.

- **Data eta ordu automatikoa:** Data eta ordua automatikoki eguneratzeko ordu-eremu batetik bestera joaten zarenean.
- **Data ezarri:** Data eskuz zehazteko.
- **Ordua ezarri:** Ordua eskuz zehazteko.
- **Ordu zona automatikoa:** Ordu-eremuari buruzko informazioa automatikoki jasotzeko ordu-eremu batetik bestera joaten zarenean.
- **Aukeratu ordu eremua:** Tokiko ordu-eremua definitzeko.
- **Erabili 24 orduko formatua:** Ordua 24 orduko formatuan bistartzeko.
- **Aukeratu dataren formatua:** Data-formatu bat hautatzeko.

## Segurtasun-laguntza

Larrialdi-modua aktibatu eta kontaktu nagusiak eta larrialdi-mezuak definitzeko. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [“Larrialdi-modua”](#).

Doikuntza-pantailan, ukitu **Segurtasun laguntza**.

- **Larrialdi modua:** Gailua konfiguratzeko, larrialdi-moduak aktibatzeke eta bateria-konsumoa murrizteko oinarrizko funtzioak -esaterako, deiak- erabiliz.
- **Geo News:** Gailua konfiguratzeko, muturreko eguraldiagatik jakinarazpenak jasotzeko.
- **Bidali laguntza mezuak:** Gailua konfiguratzeko, hasierako botoia hiru aldiz sakatutakoan laguntza-mezuak bidal ditzan.
  - **Bidali argazkiak:** Gailua konfiguratzeko, aurreko eta atzeko kamerekin egindako argazkiak bidal ditzan laguntza-mezuarekin batera.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

- **Bidali soinua grabaketa:** Gailua konfiguratzeko, soinua grabatu eta mezuarekin batera bidal diezaien hartzaileei.
- **Manage primary contacts:** Laguntza-mezen hartzaileak hautatzeko edo editatzeko.

## Osagarriak

Osagarrien doikuntzak aldatzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Osagarriak**.

- **Audio irteera:** Soinua irteteko formatu bat aukeratzeko, gailua HDMI gailuetara konektatzean erabiltzeko. Baliteke gailu batzuek ez onartzea soinua inguratzailearen doikuntza.

## Bateria

Gailuak kontsumitu duen energia ikusteko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Bateria**.

- **Bateriaren ehunekoa bistaratu:** Gailua konfiguratzeko, zenbat bateria geratzen zaion bistaratu dezan.

## Energia aurreztea

Energia aurrezteko modua aktibatzeke eta ezarpenak aldatzeko. Xehetasun gehiago jakiteko, ikusi [“Energia aurrezteko funtzioa erabiltzea”](#).

Doikuntza-pantailan, ukitu **Energia aurrezteko modua**.

- **Energia aurrezteko modua:** Energia aurrezteko modua aktibatzeke eta ezarpenak aldatzeko.
  - **Mugatu atzealdeko datuak:** Bigarren mailan exekututzen ari diren aplikazioek datu mugikorren konexioa erabil ez dezaten konfiguratzeko gailua.
  - **Murriztu funtzionamendua:** Zenbait aukera mugatzeko konfiguratzeko gailua, hala nola azkena erabilitako aplikazioen botoiaren eta atzera botoiaren atzeko argiztapena desaktibatzeke.
  - **Grisen eskala modua:** Gailua konfiguratzeko, pantailaren koloreak tonu grisetan bistaratu ditzan.
- **Bateria aurrezteko ultramodua:** Erabili gabe egoteko denbora luzatzeko eta bateria-konsumoa murrizteko, diseinu arruntago bat bistaratu eta aplikazioetara sarbide mugatua jarri.



Gehienezko atsedeen-denbora zenbatetsiak adierazten du zenbat denbora igaroko den bateria agortu arte gailua erabiltzen ez baduzu. Itxarote-denbora aldatu egin liteke, gailuaren doikuntzen eta eragiketaren baldintzen arabera.

## Biltegiratzea

Gailuari eta memoria-txartelari buruzko informazioa ikusteko edo memoria-txartel bat formateatzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Memoria**.



Memoria-txartel bat formateatzen baduzu, datu guztiak betiko ezabatuko dituzu.



Barne-memoriaren gaitasuna zehaztutakoa baino txikiagoa da, sistema eragileak eta lehenetsitako aplikazioek haren zati bat hartzen baitute. Eskuragarri dagoen gaitasuna aldatu egin liteke gailua eguneratu ondoren.

## Segurtasuna

Doikuntzak aldatzeko, hartara gailua eta SIM edo USIM txartela babesteko. Doikuntza-pantailan, ukitu **Segurtasuna**.

- **Enkriptatu gailua:** Gailuan gordetako datuak zifratzeko pasahitz bat definitzeko. Pasahitza sartu beharko duzu telefonoa pizten duzun bakoitzean.



Kargatu bateria doikuntza hori aktibatu aurretik; izan ere, baliteke ordubete baino gehiago behar izatea datuak zifratzeko.

- **Enkriptatu kanpo SD txartela:** Memoria-txarteleko fitxategi guztiak zifratzeko.



Doikuntza hau aktibatuta dagoela balio lehenetsiak jartzen badizkiozu berriro gailuari, gailuak ezin izango ditu irakurri zifratutako fitxategiak. Desaktibatu doikuntza hori gailua leheneratu aurretik.

- **Urrutiko aginteak:** Gailua konfiguratzeko, galtzen baduzu edo lapurtzen badizute Internet bidez urrutitik kontrolatzeko. Funtzio hau erabiltzeko Samsungeko zure kontuan saioa hasi beharko duzu.
  - **KONTUA ERREGISTRATU:** Zure Samsung kontua gehitzeko edo ikusteko.
  - **Sareak erabili:** Gailua konfiguratzeko, aukera eman dezan datuak biltzeko eta galdutako edo lapurtutako gailuaren kokapena zehazteko WiFi-aren edo sare mugikorren bidez.
- **SIM aldaketa alerta:** Gailua galdu edo lapurtuz gero hura aurkitzen lagunduko dizun mugikor-bilatzailearen funtzioa aktibatzeko zein desaktibatzeko.
- **Joan webgunera:** Localizar mi móvil webgunera ([findmymobile.samsung.com](http://findmymobile.samsung.com)) sartzeko. Buscar mi móvil webgunean, galdutako edo lapurtutako gailuaren arrastoari jarraitu diezaiokezu, eta hura kontrolatu.
- **Berraktibatze blokeoa:** Gailua konfiguratzeko, zure Samsung account eska dezan berrezarri ondoren, beste inork gailua berraktiba ez dezan.
- **Ezarri SIM txartelaren blokeoa:**
  - **Blokeatu SIM txartela:** PINa blokeatzeko funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko, gailuak PINa eska dezan gailua erabili aurretik.
  - **Aldatu SIMaren PINa:** SIM nahiz USIM datuetara sartzeko erabiltzen den PINa aldatzeko.

- **Jarri pasahitza ikusgai:** Gailua konfiguratu dezakezu sartu ahala pasahitza bistaratu dezan.
- **Gailu administratzaileak:** Gailuan instalatutako administratzaileak ikusteko. Gailu-administratzaileei baimena eman diezazieke politika berriak zureari aplikatzeko.
- **Iturri ezezagunak:** Gailua konfiguratzeko, jatorri ezezaguneko aplikazioak instalatu ahal izateko.
- **Egiaztatu aplikazioak:** Gailua konfiguratzeko, Googleri baimena emateko aplikazioa instalatu aurretik portaera kaltegarriarik duen aztertzeko.
- **Segurt. pol. eguneraketak:** Gailua konfiguratzeko, segurtasun-eguneraketak egiaztatu eta deskargatzeko.
- **Bidalisegurtasun txostenak:** Gailua konfiguratzeko, segurtasun-txosten eguneratuak automatikoki bidal diezazkion Samsungi.
- **Biltegitratze mota:** Ziurtagiri-fitxategietarako biltegitratze-mota bat definitzeko.
- **Egiaztagiri fidagarriak:** Ziurtagiriak eta kredentzialak erabiltzeko aukera ematen du, aplikazioak modu seguruan erabiltzen direla bermatzeko.
- **Instalatu gailuaren memoriatik:** USB biltegitratzeko ziurtagiri zifratuak instalatzeko.
- **Garbitu egiaztapenak:** Gailuko kredentzialetako edukiak ezabatzeko eta pasahitza berrezartzeko.

## Laguntza

Eskuratu gailua eta aplikazioak erabiltzeko edo doikuntza garrantzitsuak konfiguratzeko ikasteko informazioa.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Laguntza**.

## Gailuari buruz

Gailuari buruzko informazioa eskuratzeko, gailuaren izena editatzeko edo gailuaren softwarea eguneratzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Gailuari buruz**.

## APLIKAZIOAK

### Aplikazio-administratzailea

Ikusi eta kudeatu gailuko aplikazioak.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Aplikazio kudeatzailea**.

### Aplikazio lehenetsiak

Hautatu doikuntza lehenetsi bat, aplikazioak erabiltzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Lehenetsitako aplikazioak**.

- **Orri nagusia:** Pantaila nagusirako modu lehenetsi bat hautatzeko.
- **Mezuak:** Aplikazio lehenetsi bat hautatzeko, mezularitza-zerbitzurako.
- **GARBITU LEHENETSIK:** Funtzioak erabiltzeko aurrez konfiguratutako aplikazio lehenetsiak kentzeko.

### Deiak

Dei-funtzioetako konfigurazio pertsonalizatzeko.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Deitu**.

- **Dei ukatzea:** Telefono-zenbaki jakin batzuen deiei automatikoki uko egiteko. Telefono-zenbakiak erants ditzakezu uko egiteko zerrendan.
- **Deiak erantzutea eta amaitzea:**
  - **Tekla nagusia sakatzea:** Gailua defintzeko, hasierako tekla sakatzean deiei erantzuteko.
  - **Ahots kontrola:** Gailua konfiguratzeko, deiei erantzun edo uko egin diezaien ahots-komandoen bidez.
  - **Eskua mugi gailu. gainean:** Dei bat jasotzen duzunean, mugitu eskua lehenik ezkerrera eta gero eskuinera sentsorean, erantzuteko.
  - **Energia tek. deiak amaitu:** Gailua defintzeko, hasierako tekla sakatzean deiei erantzuteko.

- **Dei jakinarazpen agerkariak:** Gailua konfiguratzeke, aplikazioak erabiltzen ari zarela dei bat jasotzen duzunean leiho gainerakor bat ager dadin.
- **Dei egoeraren agerkariak:** Gailua konfiguratzeke, aplikazioak erabiltzen ari zarela dei baten egoera adierazten duen leiho gainerakor bat ager dadin.
- **Erakutsi deitzaile infor.:** Gailua konfiguratzeke, dei bat jasotzean solaskideak sare sozialetan berriki izan duen jarduera bistaratu dadin.
- **Dei alertak:**
  - **Bibratu erantzutean:** Gailua konfiguratzeke, solaskideak dei bati erantzutean bibra dezan.
  - **Dei amaierako bibratioa:** Gailua konfiguratzeke, solaskideak dei bat amaitzen duenean bibra dezan.
  - **Dei konexio doinua:** Deien konexio-tonua aktibatzeke edo desaktibatzeke.
  - **Minutu-orratza:** Minutuen gogorazpen-tonua aktibatzeke edo desaktibatzeke.
  - **Dei amaierako doinua:** Deien deskonexio-tonua aktibatzeke edo desaktibatzeke.
  - **Jakinarazi deietan:** Gailua konfiguratzeke, dei bat martxan den bitartean dauden gertakizunak jakinarazteko.
- **Deien osagarriak:**
  - **Erantzute automatikoa:** Gailua konfiguratzeke, automatikoki erantzun diezaion dei bati denbora jakin bat igaro ondoren (entzungailu bat konektatuta badago soilik).
  - **Erantz. tenp. automatikoa:** Gailuak dei bati erantzun aurretik itzarongo duen denbora definitzeko.
  - **Irteerako dei baldintzak:** Gailua konfiguratzeke irteerako deiak egin ditzan bluetootha darabilen entzungailu batekin, baita gailua blokeatuta egonda ere.
  - **Irteera dei mota:** Bluetootha darabilen entzungailu batekin nolako irteerako deiak egin nahi dituzun aukeratzeko.



- **Ezarpen gehigarriak:**
  - **Dei egilearen IDa:** Irteerako deietan zure dei-identifikazioa erakusteko solaskideei.
  - **Dei birbidaltzea:** Sarrerako deiak beste zenbaki batera desbideratzeko.
  - **Eremu kode automatikoa:** Gailua konfiguratzeko aurrezenbaki bat jar dezan (lurralde- edo herrialde-kodea) telefono-zenbakien aurretik.
  - **Dei murrizketa:** Sarrerako edo irteerako deiak blokeatzeko.
  - **Deia zain:** Dei-oharrak jasotzeko dei bat martxan dela.
  - **Birmarkatze automatikoa:** Konektatu ezin diren edo mozten diren deiei berriro automatikoki deitzeko aukera aktibatzen.
  - **Markatze finko zenbakiak:** FDN modua aktibatzen, FDN zerrendako zenbakietarako deiak murrizteko. Sartu SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN2 kodea.
- **Dei tonu eta tekl. tonuak:**
  - **Dei tonuak:** Doinu bat gehitzeko edo hautatzeko, sarrerako deiak ezagut ditzazun.
  - **Bibrazioak:** Bibrazio-eredu bat gehitzeko nahiz hautatzeko.
  - **Bibratu doinua jotzean:** Gailua definitzeko deiak jasotzean bibratu eta melodia bat erreproduzi dezan.
  - **Markaketa teklatu tonua:** Gailua definitzeko, teklatuko teklak sakatzean soinua egin dezan.
- **Pertsonalizatu deien soinua:** Aukeratu dei-soinu bat, entzungailuekin erabiltzeko.
- **Zarata murrizketa:** Gailua konfiguratzeko, atzealdeko zarata ken dezan, eta, hala, solaskideak argiago entzun zaitzan.
- **Bideo deien irudia:** Irudi bat hautatzeko, zure solaskideak ikus dezan.
- **Ahots posta zerbitzua:** Ahots-postarako zerbitzuen hornitzaile bat hautatzeko edo ezartzeko.
- **Ahots mezular. ezarpenak:** Ahots-postontzira sartzeko zenbakia idazteko. Zenbaki hori zure zerbitzu-hornitzaileak emango dizu.
- **Soinua:** Ahots-mezu berrietarako melodia bat aukeratzeko.
- **Bibrazioa:** Ahots-mezuak jasotzean gailuak bibra dezan konfiguratzeko.
- **Kontuak:** Gailua konfiguratzeko IP deiak onar ditzan eta kontuak konfiguratzeko IP deien zerbitzuetarako.
- **Erabili internet deiak:** IP dei-zerbitzuak dei guztietarako edo IP deietarako soilik erabili nahi dituzun definitzeko.

## Kontaktuak

Aldatu kontaktuak erabiltzeko doikuntzak.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Kontaktuak**.

- **Inportatu/esportatu:** Kontaktuak inportatzeko edo esportatzeko.
- **Bistaratzeko kontaktuak:** Bistaratu nahi dituzun kontaktuak aukeratzeko.
- **Irristatu deitzeko/mez. bidal.:** Gailua konfiguratu dezakezu, kontaktuen zerrendan kontaktua ezkerrean edo eskuinera arrastatuta, dei bat egiteko edo mezu bat bidaltzeko.
- **Telefonoak dituzten kontakt. so.:** Telefono-zenbaki bakarra duten kontaktuak bistaratzeko moduan konfiguratu dezakezu gailua.
- **Sailkatu honela:** Kontaktuak ordenatzeko aukera bat hautatu dezakezu.
- **Erakutsi kontakt. honela:** Kontaktuen izenak bistaratzeko aukera hautatu dezakezu.
- **Bidali kontaktu informazioa:** Kontaktuak partekatzeko metodo bat aukeratu dezakezu.
- **Kontuak:** Kontaktuak sinkronizatzeko kontua eransteko edo editatzeko aukera ematen du.

## Posta elektronikoa

Aldatu mezu elektronikoak administratzeko eta bidaltzeko doikuntzak.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Posta elektronikoa**.

- **Kontaktuak kudeatu:** Posta elektronikoko kontuak administratzeko edo kontu berriak gehitzeko aukera ematen du.
- **Pantaila:** Mezu elektronikoak bistaratzeko doikuntzak aldatzeko aukera ematen du.
- **Lehenetsitako pantaila:** Gailua konfiguratu dezakezu mezu elektroniko bat ezabatu ondoren pantaila jakin bat ireki dezan.
- **Lehenetsitako bidaltzaileen ezarpe.:** Lehentasunezko bidaltzaileen doikuntzak aldatzeko aukera ematen du.
- **Spam helbideak:** Posta elektronikoko kontuak gehitu ditzakezu, blokeatzeko.
- **Atzeratu mezu elektronikoen bidal.:** Bidaltzeko botoia sakatu ondoren mezu elektronikoa bidaltzeko itxaron beharreko denbora definitzeko aukera ematen du.

## Galeria

Aldatu **Galeria** erabiltzeko doikuntzak.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Galeria**.

- **Sinkronizatu Wi-Fi bidez bakarr.:** Gailua konfiguratu dezakezu WiFi konexio bat aktibo dagoenean bakarrik sinkronizatzeko edukiak.
- **Iragazi honela:** Irudiak administratzeko kategoriak hautatzeko balio du. Argazki bat ateratakoan, gailuak kategoria jakin batean sailkatuko du automatikoki, ezarrita dauden kategorien arabera.
- **Tag buddy:** Gailua konfiguratzeko testuinguru-etiketak bistara ditzan.
- **Aurpegi-etiketa:** Irudiko argazkiak erregistratzeko aurpegi-etiketa gisa.

## Internet

Aldatu Internet erabiltzeko doikuntzak.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Internet**.

- **Kontua:** Samsung Account-en saioa hasteko balio du.
- **Ezarri orri nagusia:** Lehenetsitako hasierako orria ezartzeko balio du.
- **Bete formularioak automatikoki:** Gailua konfiguratu dezakezu erabiltzailearen datuak (adibidez, izena edo telefono-zenbakia) automatikoki sar dezan, webguneetako formularioak bete ondoren.
- **Pribatutasuna:** Webguneetan sartzea datu pertsonalak administratzeko balio du.
- **Pantaila eta testua:** Webguneak ikusten ari zaren bitartean letra-tamaina eta beste hainbat aukera doitzeko eta beste doikuntza batzuk egiteko.
- **Eduki ezarpenak:** Webguneetan cookieak administratzeko doikuntzak aldatzeko, leiho gainerakorrak bistaratu ahal ez definitzeko eta beste hainbat aukera ematen ditu.
- **Banda zabaleraren kudeaketa:** Banda-zabalerako doikuntzak aldatzeko balio du.

## Mezuak

Aldatu mezu-zerbitzua erabiltzeko doikuntzak.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Mezuak**.

- **Lehenetsitako mezularitza aplikazi:** Mezularitza-zerbitzurako aplikazio lehenetsi bat hautatzeko.
- **Pantaila:** Mezularitza-leihoaren doikuntzak (adibidez, letra-tamaina, atzeko kolorea eta beste hainbat aukera) aldatzeko.
- **Erantzun azkarrak:** Mezuen txantiloak gehitzeko edo editatzeko.
- **Testu mezuak:** Testu-mezen doikuntzak aldatzeko.
- **Multimedia mezuak:** Multimedia-mezen doikuntzak aldatzeko.
- **Ezabatu mezu zaharrak:** Gailua konfiguratzeko aurreko mezuak ezaba ditzan.
- **Lehentasunezko igorlea:** Gailua konfiguratu dezakezu lehentasunezko hartzaileen zerrenda bistaratzeko.
- **Difusio mezuak:** Tarte bat konfiguratu dezakezu mezu berriak dituzula ohartarazteko jakinarazpen gainerakorrak bistaratzeko.
- **Difusio mugikorra:** Gailua konfiguratu dezakezu transmisio zelularreko mezuak jasotzeko.
- **Jakinarazpenak:** Gailua konfiguratu dezakezu mezu berriak dituzunean soinu bat egin dezan.
- **Sinadura:** Gailua konfiguratu dezakezu zure sinadura mezuan bistaratu dezan.
- **Spam iragazkia:** Gailua konfiguratu dezakezu hitz jakin batzuk dituzten zenbaki jakin batzuen mezuak blokeatzeko.
- **Atzerapen mezua bidaltzea:** Bidaltzeko botoia sakatu ondoren mezuak bidaltzeko itxaron beharreko denbora definitzeko.
- **Modu segurua:**
  - **Baim. Esteketara sartzen:** Gailua konfiguratu dezakezu mezuetakoko estekak ukitutakoan esteka horietara sartzeko.
  - **Balizko arriskuen alertak:** *Phishing* kasuak ekiditearren, mezularitza-funtzioak onartzen dituzten aplikazioak instalatzeko garaian gailuak jakinaraz diezazun konfiguratzeko.

## Egutegia

Aldatu **Egutegia** erabiltzeko doikuntzak.

Doikuntza-pantailan, ukitu **Egutegia**.

- **Asteko lehen eguna:** Asteko lehen eguna zein izango den hauta dezakezu.
- **Erakutsi aste zenbakiak:** Gailuan hauta dezakezu urte batean zenbat aste bistaratzea nahi duzun.
- **Ezkutatu ukatutako gertaerak:** Gailua konfiguratu dezakezu amaitutako ekitaldiak ezkuta ditzan.
- **Ezkutatu burututako atazak:** Gailua konfiguratu dezakezu amaitutako zereginak ezkuta ditzan.
- **Eguraldia:** Gailua konfiguratu dezakezu eguraldiaren iragarpena bistara dezan.
- **Blokeatu ordu eremua:** Gailua konfiguratu dezakezu ordu-eremu jakin bateko doikuntzak mantentzen ditzan, ordu-eremu batetik bestera aldatu arren, mugi ez dadin.
- **Aukeratu ordu eremua:** Ordu-eremu bat hautatzeko balio du.
- **Ikusi gaur:** Egutegia konfiguratu dezakezu dagokion ordu-eremu edo hautatutako beste ordu-eremu bat erabil dezan.
- **Hautatu alerta mota:** Ekitaldietarako jakinarazpen-doikuntzak hauta ditzakezu.
- **Jakinarazpen soinua:** Ekitaldi edo zereginetarako doinu bat hautatzeko balio du, ezagut ditzazun.
- **Dardara:** Gailua konfiguratzeko, gertaera eta lorpen berriak gaudenean bibra dezan.
- **Erantzun azkarrak:** Ekitaldietako parte-hartzaileei mezuak bidaltzeko txantiloak sor ditzakezu.

## S Voice

Aldatu ahots bidezko ezagutzako doikuntzak.

- **Language:** Ahotsa ezagutzeko funtziorako hizkuntza hautatzeko.
- **Hide offensive words:** Ahots bidezko bilaketaren emaitzetan hitz iraingarriak ezkutatzeko.
- **About:** Bertsioaren informazioa ikusteko.
- **Open via the home key:** Gailua konfiguratu dezakezu **S Voice** martxan jartzeko hasierako botoia bi aldiz sakatuz.
- **Voice wake-up:** Ahotsaren ezagutza martxan jartzeko, aktibazio-komando bat esanda, **S Voice** erabili bitartean.
- **Auto start speakerphone:** Bozgorailua automatikoki pizteko **S Voice** aplikazioarekin dei bat egitean.

- **Show body of message:** Gailua konfiguratzeko mezu berri baten testua bistaratu dezan.
- **Check missed events:** Zure dei galduak, mezuak edo zereginak ikusteko **S Voice** martxan jartzean, entzungailuaren botoia sakatuta.
- **Personal briefing:** Gailua konfigura dezakezu **S Voice** erabiltzen duzun bitartean **Egutegia** aukeran gordeta dituzun ekitaldiak bistara ditzan.
- **Home address:** Zure tokiko informazioa sartzeko, kokapen-informazioa erabili ahal izateko ahots-komandoaren funtzioarekin.
- **Log in to Facebook:** Zure Facebookeko kontuko datuak sartzeko, eta, hala, Facebook **S Voicerekin** erabiltzeko.
- **Log in to Twitter:** Zure Twitterreko kontuko datuak sartzeko, eta, hala, Twitter **S Voicerekin** erabiltzeko.

## Googleko doikuntzak

Erabili aplikazio hau Googleren funtzioetako batzuen doikuntzak konfiguratzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Google Settings**.

# Irisgarritasuna

## Irisgarritasuna

Irisgarritasuneko menuko aukerak minusbaliotasun fisiko jakin batzuk (adibidez, ikusmen- edo entzumen-arazoak) dituztenentzako funtzio bereziak dira. Funtzioa hauek daude aukeran:

- TalkBack
- Letra-tamaina aldatzea
- Pantaila handitzea
- Jakinarazpenen gogorazpenak
- Pantailaren koloreak alderantzikatzea
- Kolorearen doikuntzak
- Soinu guztiak desaktibatzea
- Flasharen jakinarazpena
- Soinuaren balantzea doitzea
- Audio monofonikoaren modua
- Azpituduen doikuntzak pertsonalizatzea
- Bibrazio automatikoa
- Hurren kontrola
- Asistentzia-menuak
- Air gesture funtzioa
- Smart Scroll funtzioa
- Sakatzeko aukerak konfiguratzea
- Interakzio-kontrolako modua
- Deiei erantzuteko edo deiak amaitzeko modua aldatzea
- Sakatze sinplearen modua
- Irisgarritasun-doikuntzak konfiguratzea

Irisgarritasuneko menuak erabiltzeko, Aplikazioak pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna**.

## Hasierako botoia erabiltzea irisgarritasun-menuak irekitzeko

Menu hauetara sartu ahal izango duzu Hasierako botoia hiru aldiz bizkor sakatuta.

- Irisgarritasuna
- TalkBack
- Kolore negatiboak
- Interakzio-kontrola

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Zuzeneko sarbidea**, eta, gero, arrastatu **Zuzeneko sarbidea** etengailua eskuinera. Ondoren, hautatu irisgarritasuneko menu bat Hasierako botoia hiru aldiz bizkor sakatu ondoren ireki dadin.

Menu bat baino gehiago hautatzen badugu, gailuak leiho gainerakor bat bistaratuko du, Hasierako botoia hiru aldiz bizkor sakatzen duzun bakoitzean zer menu erabili nahi duzun galdetzeko. Irisgarritasuneko menuetan **Elkarreragin kontrola** gaitzeko, aktibatu funtzioa. Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Gaitasun murriztua eta elkarreragi**. → **Elkarreragin kontrola**, eta, gero, arrastatu **Elkarreragin kontrola** etengailua eskuinera.

## TalkBack

### TalkBack aktibatzea edo desaktibatzea

TalkBack aktibatzen duzunean, gailuak pantailako testua edo hautatutako funtzioak ozen irakurriko ditu. Funtzio hau erabilgarria da pantaila ezin baduzu ikusi edo ezin baduzu ondo ikusi.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **TalkBack**.
- 2 Arrastatu **TalkBack** etengailua eskuinera.  
TalkBack desaktibatzeko, arrastatu **TalkBack** etengailua ezkerrera.
- 3 Ukitu **Onartu**.



TalkBack aktibatzen duzunean, gailuak ahots bidezko erantzunak emango dizkizu eta ozen irakurriko ditu hautatzen dituzun funtzioak. Gainera, pantaila itzalita dagoenean ere ahots bidezko erantzunak emango ditu, jakinarazpenak dituzunean eta beste hainbat kasutan.

TalkBack erabiltzen ari zarela **Explore by touch** aktibatzean, gailuak ozen irakurriko ditu hautatutako elementuak. Lehenik, gailuak pantailako elementuak irakurriko ditu ozen, ukitzen dituzunean. Ondoren, gailuak gauzatu egingo du ekintza edo ireki egingo du aplikazioa pantailako edozein toki bi aldiz bizkor sakatuz gero. **Explore by touch** desaktibatuz gero, gailuak ezingo ditu hatzarekin ukitzea eskatzen duten ekintza batzuk egin.

**Explore by touch** aukerako funtzioak aktibatzeko, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **TalkBack** → **Ezarpenak**, eta, ondoren, hautatu **Explore by touch**.



TalkBack erabiltzen duzunean, funtzio batzuk ez dira erabilgarri egongo.

## Pantaila hatzekin kontrolatzea

Hatzaz ukituta kontrolatu ahal izango duzu pantaila TalkBack erabiltzean. **Explore by touch** desaktibatuz gero, gailuak ezingo ditu hatzarekin ukitzea eskatzen duten ekintza batzuk egin.

**Explore by touch** aukerako funtzioak aktibatzeko, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **TalkBack** → **Ezarpenak**, eta, ondoren, hautatu **Explore by touch**.

- Exploring the screen: Jarri hatza pantailaren gainean, eta mugitu ezazu pantailan mugitzeko. Elementu bat luze sakatuz gero, gailuak ozen irakurriko du. Hatzaz kentzen duzunean, hatzaren azpian dagoen elementua hautatuta egongo da.
- Selecting items: Ukitu elementua nabarmentzeko. Edo luze sakatu elementua pantaila arakatzeko bitartean, eta, ondoren, kendu hatza.
- Opening the selected item: Hautatutako elementua ozen irakurtzen ari denean nahi duzun elementua entzuten duzunean, kendu hatza. Ondoren, ukitu pantailako edozein toki bi aldiz bizkor.
- Selecting the previous item : Mugitu bizkor gora edo ezkerreko hatzarekin.

- Selecting the next item: Mugitu bizkor behera edo eskuinera hatzarekin.
- Scrolling the lists: Mugitu pantaila gorantz edo beherantz bi hatzekin.
- Returning to the previous page: Mugitu pantaila eskuinerantz bi hatzekin.
- Moving to the next page: Mugitu pantaila ezkererantz bi hatzekin.
- Unlocking the screen: Mugitu pantaila edozein norabidetan, blokeo-pantailaren eremuan, bi hatzekin.
- Opening notifications panel: Arrastatu pantailaren goiko aldea beherantz bi hatzekin.
- Opening quick setting panel: Arrastatu pantailaren goiko aldea beherantz hiru hatzekin.

**Manage gestures** atalean, TalkBack aukerarako hatzen mugimenduak doitu ahal izango dituzu. Ikus [Configuring finger gesture setting](#) xehetasun gehiago behar izanez gero.

## Hatzen mugimenduen doikuntzak konfiguratzea

TalkBack erabiltzen duzunean, hatzekin mugimenduak egin ahal izango dituzu, ekintzak gauzatzeko. Esate baterako, aurre pantailara itzuli ahal izango duzu eta Pantaila nagusia ireki ahal izango duzu. Konfiguratu hatzen mugimenduak, erabili aurretik.

### Mugimendu bertikalen doikuntzak konfiguratzea

Bi aldiko mugimendu bertikalak erabili ahal izango dituzu, hatza gora eta behera mugituta, pantailaren beheko aldetik abiatuta, eta alderantziz.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **TalkBack** → **Ezarpenak** → **Manage gestures** → **Two part vertical gestures**. Ondoren, hautatu funtzio hauetako bat:

- **Move to the first and last items on screen:** Hatza pantailan gora eta behera arrastatuta, lehenengo elementua hautatuko da pantailaren goiko aldean. Hatza pantailan behera eta ondoren gora arrastatuta, azken elementua hautatuko da pantailaren beheko aldean.
- **Cycle through reading granularities** Hatza pantailan gora eta behera arrastatuta, irakurgai-unitateak irakurtzeko ordena aldatuko duzu. Orria, paragrafoa, lerroa, hitza, karakterea edo lehenetsia irakurgai-unitatea jarriko da. Hatza pantailan behera eta gora arrastatuta, irakurgai-unitateak irakurtzeko ordena aldatuko duzu.

## Lasterbideetarako mugimenduen doikuntzak konfiguratzeko

Erabili funtzio hau mugimendu bidezko zortzi lasterbide konfiguratzeko. Besteak beste, mugimendu hau konfiguratu ditzakezu: hatza gora eta eskuinera arrastatzea, askatu gabe. Lasterbideen mugimenduak alda ditzakezu edo funtzioak esleitu hutsik dauden lasterbideei.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **TalkBack** → **Ezarpenak** → **Manage gestures**. Hautatu mugimendu bat, eta, ondoren, esleitu funtzio bat.

Funtzioa hauek daude aukeran:

- **Back button:** Aurreko pantailara itzultzeko.
- **Home button:** Pantaila nagusia irekitzeko balio du.
- **Recent apps button:** Azkena erabilitako aplikazioen zerrenda irekitzeko.
- **Open notifications:** Jakinarazpenen panela irekitzeko.
- **Open global context menu:** Testuinguru-menu orokorra irekitzeko balio du. Luze sakatu pantaila testuinguru-menu orokor zirkularra irekitzeko. Besteak beste, funtzio hauek erabili ahal izango dituzu: **Quick navigation**, **Read from top**, **Spell last utterance** eta **Read from next item**. Ondoren, arakatu menuak pantailan hatzarekin zirkuluak marraztuz. Nahi duzun menua aurkitzen duzunean, kendu hatza menutik hura hautatzeko.

Ukitu **Pause feedback** pantailaren goiko ezkerreko aldean, ahots bidezko erantzunak gelditzeko.

Ukitu **TalkBack Settings** pantailaren goiko eskuineko aldean, TalkBacken doikuntzetan sartzeko. Ikus [Configuring settings for TalkBack](#) xehetasun gehiago behar izanez gero.

- **Open local context menu:** Tokiko testuinguru-menua irekitzeko balio du. Pantailan testua irakurtzeko unitate bat aukeratu ahal izango duzu. Testua idazten duzun bitartean funtzio hau erabiltzen baduzu, testuinguru-menuetan sartu ahal izango duzu (adibidez, kurtsorea kontrolatzeko menuan). Luze sakatu pantaila testuinguru-menu zirkularra irekitzeko. Ondoren, arakatu menuak pantailan hatzarekin zirkuluak marraztuz. Nahi duzun menua aurkitzen duzunean, kendu hatza menutik hura hautatzeko.
- **Read from top:** Elementuak ozen irakurtzeko balio du; dauden ordenan irakurtzen ditu, lehenengotik azkenekora arte.
- **Read from next item:** Elementuak ozen irakurtzeko balio du; hautatutako elementuaren hurrengoarekin hasten da, eta dauden ordenan irakurtzen ditu.

## Irakurgai-unitateak aldatzea

TalkBack erabiltzen duzunean, pantailako testua entzun ahal izango duzu. Hatza gora, behera, ezkerrera edo eskuinera arrasta dezakezu, nahi duzun testua hautatzeko. Lehenespenez, gailuak ozen irakurriko du hautatutako testua. Horrez gain, gailua konfigura dezakezu testua beste irakurgai-unitatetan irakur dezan (adibidez, lerroak edo paragrafoak).

### Irakurgai-unitateak aldatzea, tokiko testuinguru-menuen bidez

- 1 Hautatu testu bat irakurtzeko.
- 2 Arrastatu hatza gora, eta, ondoren, eskuinera, altxatu gabe, tokiko testuinguru-menua irekitzeko.
- 3 Luze sakatu pantaila, eta marraztu zirkulu bat hatzarekin menuak arakatzeko. Ondoren, kendu hatza **Change granularity** aukera entzuten duzunean.
- 4 Luze sakatu berriro pantaila, eta marraztu zirkulu bat hatzarekin menuak arakatzeko. Ondoren, kendu hatza nahi duzun irakurgai-unitatea entzuten duzunean.

Tokiko testuinguru-menua irekitzeko lasterbidearen mugimendua aldatzeko, ikus [Configuring settings for shortcut gestures](#).

### Irakurgai-unitateak aldatzea bi aldiko mugimendu bertikalekin

Hatza pantailan gora eta behera arrastatuta, irakurgai-unitateak irakurtzeko ordena aldatuko duzu. Orria, paragrafoa, lerroa, hitza, karakterea edo lehenetsia irakurgai-unitatea jarriko da. Hatza pantailan behera eta gora arrastatuta, irakurgai-unitateak irakurtzeko ordena aldatuko duzu.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **TalkBack** → **Ezarpenak** → **Manage gestures** → **Two part vertical gestures** → **Cycle through reading granularities**.

Uneko irakurgai-unitate gisa hautatuta dagoen testuaren ondoko testua entzun ahal izango duzu. Hurrengo testu-zatia entzuteko, arrastatu hatza behera edo eskuinera pantailan. Horrez gain, uneko irakurgai-unitate gisa hautatuta dagoen testuaren aurreko testua ere entzun ahal izango duzu. Aurreko testu-zatia entzuteko, arrastatu hatza gora edo ezkerrera pantailan.

## Ahots bidezko erantzunak gelditzea

Ireki testuinguru-menu orokorrak hatza altxatu gabe pantailan behera eta eskuinera arrastatuta. **Pause feedback** hautatutakoan, pantailaren goiko ezkerreko aldean, ahots bidezko erantzunak gelditu egingo dira.

Ahots bidezko erantzunak geldituta, pantaila piztuta edo beste modu batzuen bidez berrabiarazi ahal izango dituzu. Ahots bidezko erantzunak berrabiarazteko modua aldatzeko, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **TalkBack** → **Ezarpenak** → **Resume from suspend**. Ondoren, hautatu aukera bat.

Testuinguru-menu orokorra irekitzeko lasterbidearen mugimendua aldatzeko, ikus [Configuring settings for shortcut gestures](#).

## Nabigazio azkarraren funtzioa erabiltzea

Nabigazio azkarraren funtzioarekin, pantailan zirkulu bat marraztuta sartu ahal izango duzu menuetan, elementu bat hautatzeko gora edo behera mugitu beharrik gabe.

Ireki testuinguru-menu orokorrak hatza altxatu gabe pantailan behera eta eskuinera arrastatuta. Luze sakatu pantaila, eta marraztu zirkulu bat hatzarekin menuaren inguruan, menuak arakatzeko. Ondoren, kendu hatza **Quick navigation** aukera entzuten duzunean. Ukitu pantaila berriro, eta marraztu zirkulu bat hatzarekin menuaren inguruan, menuak arakatzeko. Ondoren, kendu hatza nahi duzun menua entzuten duzunean.

## Irudi-etiketak eranstea eta administratzea

Pantailako irudiei etiketak jartzeko aukera duzu. Gailuak etiketak ozen irakurriko ditu irudiak hautatzen dituzunean. Jarri etiketak etiketarik ez duten irudiei, tokiko testuinguru-menua erabilita.

Ireki tokiko testuinguru-menua hatza altxatu gabe pantailan gora eta eskuinera arrastatuta. Luze sakatu pantaila, eta marraztu zirkulu bat hatzarekin menuaren inguruan, menuak arakatzeko. Etiketen menua entzuten duzunean, kendu hatza etiketak eransteko.

Etiketak ikusteko, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** **TalkBack** → **Ezarpenak** → **Manage custom. labels**.

## TalkBacken doikuntzak konfiguratzeko

Konfiguratu TalkBack doikuntzak komeni zaizunaren arabera.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **TalkBack** → **Ezarpenak**. Edo ireki testuinguru-menu orokorrak hatza altxatu gabe pantailan behera eta eskuinera arrastatuta. Ondoren, arrastatu hatza pantailaren goiko eskuineko aldera, eta kendu **TalkBack Settings** aukera entzuten duzunean.

- **Speech volume:** Ahots bidezko erantzunen bolumena hautatzeko balio du.  
Ahots bidezko erantzunen bolumena desberdina izan daiteke, multimedia-baliabideen bolumenaren arabera. Multimedia-edukien bolumena doitzeko, sakatu bolumenaren botoia gora edo behera, ahots bidezko erantzunak entzuten dituzun bitartean. Edo aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** > **Soinua** > **Bolumena**, eta arrastatu edukiaren bolumena doitzeko barra eskuinera edo ezkerreara.
- **Use pitch changes:** Testua teklatuarekin idatzi ondoren baxu irakur dezan konfiguratu dezakezu gailua.
- **Keyboard echo:** Teklatuarekin sartzen dituzun testu edo ikurrak ozen irakurtzeko moduan konfiguratzeko gailua. Horrez gain, funtzio hau zein teklatu-motari jarri nahi diozun hautatu ahal izango duzu.
- **Speak when screen is off:** Gailua konfiguratzeko, pantaila itzalita dagoela ahots bidezko erantzunak eman ditzan.
- **Use proximity sensor:** Gailua konfiguratu dezakezu ahots bidezko erantzunak gelditzeko eskua sentsoarearen gainean jartzen duzunean, gailuaren goiko aldean. Ahots bidezko erantzunak berrabiarazteko, ukitu pantaila.
- **Shake to start continuous reading:** Mugikorra astintzen duzunean pantailako testua ozen irakurtzeko moduan konfiguratzeko gailua. Astintze-abiadurak dituzu aukerak.
- **Speak caller ID:** Dei bat jasotzen duzunean deitzen duen pertsonaren izena ozen irakurtzeko moduan konfiguratu dezakezu gailua.
- **Vibration feedback:** Pantaila arakatzeko telefonoak bibra dezan konfiguratzeko.
- **Sound feedback:** Gailua konfiguratu dezakezu pantaila kontrolatzen duzunean (adibidez, mugitzen zarenean edo beste hainbat kasutan) soinu bat egin dezan.

- **Focus speech audio:** Elementu bat ozen irakurtzen duenean bolumena jaisteko moduan konfiguratu dezakezu gailua.
- **Sound volume:** Pantaila ukitzean bolumena doitzeko aukera ematen du, hura kontrolatzeko. Funtzio hau erabili ahal izango duzu baldin eta **Sound feedback** hautatu baduzu.
- **Explore by touch:** Hatzaren azpian dauden elementuak ozen irakurtzeko moduan konfiguratu dezakezu gailua. Adibidez, pantaila nagusian, hatzarekin **Menu** ukituz gero, gailuak **“Menu”** hitza irakurriko du. **Menu** hautatzeko, kendu hatza eta ukitu pantailaren edozein toki bi aldiz bizkor. Nahi duzun orria mugitu ahal izango duzu, bi hatzekin pantailan ezkerredera edo eskuinera mugituta. Ukipen bidez arakatzeko funtzioarekin pantaila kontrolatzen ikasteko, ikus [Controlling the screen with finger gestures](#).
- **Automatically scroll lists:** Gailua konfiguratu dezakezu, automatikoki mugitu dadin pantailan ikusten ez den zerrendaren gainerako zatian.
- **Single-tap selection:** Gailua konfiguratu dezakezu hautatutako elementua behin bakarrik ukituta irekitzeko.
- **Launch “Explore by touch” tutorial:** Ukipen bidez arakatzeko funtzioaren tutoretza ikusteko balio du.
- **Manage gestures:** Hatzarekin mugimenduak eginda ekintzak gauzatzeko. Ikus [Configuring finger gesture settings](#) xehetasun gehiago behar izanez gero.
- **Manage customised labels:** Erantsitako etiketak ikus ditzakezu.
- **Resume from suspend:** Ahots bidezko erantzunak berrabiarazteko modua hautatzeko balio du.
- **Developer settings :** Aplikazioak garatzeko aukera konfiguratu ditzakezu.

## Pantaila itzalita dagoela gailua erabiltzea

Konfiguratu gailua, uneoro pantaila desaktiba dezan edukien pribatutasuna babesteko. Pantaila ez da aktibatuko kanpoko botoiak sakatuta edo pantaila ukituta. Aktibo dauden funtzioak ez dira desaktibatuko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena**, eta, gero, aukeratu **Pantaila iluna**. Funtzio hau aktibatu eta desaktibatu dezakezu pizteko botoia bitan sakatuta.

## Laster-teklen bidez idazteko funtzioa erabiltzea

Gailua konfiguratu dezakezu teklatuko karaktere baten gainetik hatza kentzen duzunean karaktere hori idazteko moduan. Funtzio hau erabili dezakezu karaktereak idazteko, hatza kendu eta pantaila bitan ukitu ordez.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena**, eta, gero, aukeratu **Tekla azkarraren sarrera**.

## Pasahitzak ozen irakurtzea


Gailua konfiguratu dezakezu pasahitza ozen irakurri dezan TalkBack aktibatuta dagoela sartzen duzunean. Erabili funtzio hau pasahitz zuzena sartzen ari zarela ziurtatzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena**, eta, gero, aukeratu **Esan pasahitzak**.

## Testua ahots bihurtzeko funtzioak konfiguratzeko

TalkBack aktibatzen denean testua ahots bihurtzeko erabiltzen diren funtzioen doikuntzak alda ditzakezu (adibidez, hizkuntza, abiadura eta beste hainbat).

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Testutik hizketarako aukerak**, eta, ondoren, erabili funtzio hauek:

- **Samsung testutik hizketara / Google Text-to-speech Engine:** Testua ahots bihurtzeko funtziorako motor bat hautatzeko.
- **Hizketaren abiadura:** Texto a voz funtzioaren abiadura hautatzeko.
- **Entzun adibide bat:** Ozen irakurritako adibide bat entzuteko. Gailuak adibideak ozen ezin baditu irakurri, ukitu  → **Instalatu ahots datuak** ahots-datuak instalatzeko testua ahots bihurtzeko funtziorako.
- **Lehen. Hizkuntza egoera :** Text-to-speech funtziorako uneko hizkuntzaren egoera ikusteko.



## Teklatua erabiliz testua sartzea

Teklatua bistartzeko, ukitu testua idazteko eremua, eta, ondoren, ukitu bi aldiz bizkor pantailaren edozein toki.

Teklatua ukitzean, gailuak ozen irakurriko ditu hatzaren azpian dauden karaktereak. Nahi duzun karakterea entzuten duzunean, kendu hatza pantailatik hura hautatzeko. Karakterea idatzi egingo da, eta gailuak testua ozen irakurriko du.


**Tekla azkarraren sarrera** aktibatu ez baduzu, kendu hatza nahi duzun karakteretik, eta, ondoren, ukitu pantailako edozein toki bizkor bi aldiz. Testua bizkor idazteko funtzioa aktibatzeke, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena**, eta, ondoren, hautatu **Tekla azkarraren sarrera**.

## Karaktere bereziak idaztea

Luze sakatu teklatuaren botoia. Botoi horrekin karaktere bereziak idazteko aukera baldin badago, leiho gainerakor bat bistaratuko da teklatuaren gainean, karaktereak bistartzeko. Karaktere bat hautatzeko, arrastatu hatza pantailan, nahi duzun karakterea entzun arte, eta, ondoren, kendu hatza pantailatik.

## Teklatuan idazteko hizkuntza aldatzea

Idazteko hizkuntzak gehitzeko, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Hizkuntza eta sarrera**. Ondoren, ukitu  eta **Samsung teklatua** → **Aukeratu sarrera hizkuntzak**, eta, ondoren, hautatu hizkuntzak.

Testua idazten ari zaren bitartean testua idazteko hizkuntza aldatzeko, luze sakatu , eta, ondoren, hautatu hizkuntza bat.

## Testua editatzea

Erabili tokiko testuinguru-menua kurtsorea mugitzeko edo testua kopiatu eta itsasteko.

Ireki tokiko testuinguru-menua hatza altxatu gabe pantailan gora eta eskuinera arrastatuta. Luze sakatu pantaila, eta marraztu zirkulu bat hatzarekin menuaren inguruan, menua arakatzeko. Ondoren, kendu hatza **Aldatu zehazt. maila** aukera entzuten duzunean. Ukitu pantaila berriro, eta marraztu zirkulu bat menuaren inguruan, menuak arakatzeko. Ondoren, kendu hatza nahi duzun irakurgai-unitatea entzuten duzunean.

Testua editatzean, konfiguratu irakurgai-unitatea (hitza edo karakterea), komeni zaizunaren arabera. Hautatzeko moduan, gailuak testua hautatuko du ezarrita duzun irakurgai-unitatearen arabera.

Arrastatu hatza gora, behera, ezkerrera edo eskuinera, testua entzuteko. Editatu nahi duzun testua entzuten duzunean, ekintza hauek egin ditzakezu:

- Testua ezabatu: Ukitu teklatuan ezabatzeko botoia.
- Testua aukerat hautatzeko moduz : Aktibatu hautatzeko modua, testua hautatu eta entzuteko. Hautatzeko modua aktibatzeke, ireki tokiko testuinguru-menua, eta hautatu **Kurtsorearen kontrola** → **Hasi hautatzeko modua**. Joan ezkerrera edo eskuinera, hautatutako testuaren aurretik edo ondoren dagoen testua entzuteko. Hautatzeko modua desaktibatzeke, ireki tokiko testuinguru-menua, eta hautatu **Kurtsorearen kontrola** → **Amaitu hautatzeko modua**.
- Seleccionar el texto completo: Ireki tokiko testuinguru-menua, eta hautatu **Kurtsorearen kontrola** → **Aukeratu guztia**. Dokumentuko testu guztia hautatuko da.
- Kopiatu edo testua ebaki: Tokiko testuinguru-menuarekin testua hautatzeko balio du. Ondoren, ireki tokiko testuinguru-menua, eta hautatu **Kurtsorearen kontrola**. Hautatu **Kopiatu** hautatutako testua kopiatzeko, edo hautatu **Ebaki** hautatutako testua ebakitzeko. Hautatutako testua transferentzia-eremuan gordeko da.
- Itsatsi testua: Jarri kurtsorea testua itsatsi nahi duzun tokian, ireki tokiko testuinguru-menua, eta, ondoren, hautatu **Kurtsorearen kontrola** > **Itsatsi**.

## Testua ahots bidez sartzea

Testua ahots bidez sar dezakezu. Teklatua bistartzeko, ukitu testua idazteko eremua, eta, ondoren, ukitu bi aldiz bizkor pantailaren edozein toki.

⚙️ tekla luze sakatuta, gailuak leiho gainerakor bat bistaratzen du, teklatuko aukerekin. Arrastatu hatza pantailan, altxatu gabe. 🗣️ hautatzean, askatu hatza. Ondoren, esan testu-eremuan idatzi nahi dituzun hitzak. Esandako hitzak testu gisa agertuko dira pantailan, eta gailuak ozen irakurriko ditu.

Testu gehiago idazteko, hautatu mikrofonoaren botoia eta esan hitzak.

## Idazteko hizkuntza aldatzea

Ahots bidez testua idazten ari zaren bitartean, hautatu **Español (España)**, eta hautatu hizkuntza bat idazteko hizkuntza aldatzeko.

Zerrendara beste hizkuntza bat gehitzeko, hautatu **Español (España)** → **Gehitu hizkuntzak**, kendu **Automatikoa** aukera, eta, ondoren, hautatu nahi dituzun hizkuntzak.

## Dokumentuetako edo irudietako informazioa ozen irakurtzea


Atera argazkia dokumentuei edo negozio-txartelei, eta erauzi eta irakurri haietako testua. Gailuak diseinuaren koloreak eta datuak ere irakurriko ditu koloreak edo ereduak dituzten irudien argazkiak egitean. Zoaz **Samsung Appsera**, eta deskargatu eta instalatu **Optical Reader**.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Optical Reader**.

Gailuak ezagutuko dituen hizkuntzak aukeratzeko, hautatu  → **Hizkuntza ezarpenak**.

## Dokumentuen modua erabiltzea

Aplikazio honen modu lehenetsia dokumentuen modua da. Kolorearen edo ereduaren modua erabiltzean, hautatu 3, dokumentuen modura pasatzeko. Dokumentuen moduan, dokumentuen edo negozio-txartelen argazkiak egiterakoan, erauzitako testua bistaratuko du gailuak.


Jarri objektu bat gainazal lau baten gainean, eta hautatu . TalkBack aktibatzean, argazkia egin eta gero, gailuak automatikoki irakurriko du pantailako testua ozen.


Gordetako irudi baten testua ateratzeko, hautatu  → **Kargatu irudia**.

TalkBack desaktibatuta dagoenean, pantailako testua ozen irakurtzeko, hautatu  → **Testutik hizketara**.

## Kolorearen edo ereduaren modua erabiltzea

Kolorearen edo patroiaaren modua erabiltzeko, aktibatu TalkBack.

Hautatu , kolorearen edo ereduaren modura pasatzeko. Kolorearen edo ereduaren moduan, gailuak objektuaren koloreei eta erduei buruzko datuak bistaratuko ditu argazkiak egitean. Gailuak elementu batzuk identifikatuko ditu, hala nola maiz erabiltzen dituen koloreak eta ereduak. Modu hori lagungarria izango da ikusmen-zailtasunak dituztenentzat, nahi dituzten koloreak edo ereduak hauta ditzaten.

Jarri objektua gailuaren bisorearen barruan, eta hautatu . Gailuak argazki bat egingo du, eta objektuaren kolorea eta erdua identifikatuko ditu. Behin objektua identifikatutakoan, gailuak automatikoki irakurriko ditu ozen koloreei eta erduei buruzko datuak.



Koloreen datuei buruzko emaitzak alda daitezke argiztapen-kondizioen arabera. Ziurtatu argiztapen-kondizioak onak direla koloreen eta erduen moduan argazkiak egitean.

## Letra-tamaina aldatzea

Erabili funtzio hau letra-tamaina aldatzeko. Gailuak hainbat letra-tipo tamaina eskaintzen ditu, ikusmen-zailtasunak dizutenek gailua modurik egokienean erabili ahal izateko. Litekeena da **Erraldoia** letra-tamaina eskuragarri ez egotea aplikazio batzuetan.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Letraren neurria**.

## Pantaila handitzea

Erabili funtzio hau pantaila handitzeko eta area jakin batean zooma egitea.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Lupa keinuak**, eta, gero, arrastatu **Lupa keinuak** etengailua eskuinera.

- Zooma handitzea eta txikitzea: Ukitu pantaila hiru aldiz bizkor, eremu jakin batean zooma egiteko. Ukitu berriro pantaila hiru aldiz bizkor, ikuspegi normalera itzultzeko.
- Pantaila desplazamendu bidez arakatzea: Bi hatz erabili, pantaila handituan zehar mugitzeko.
- Zoomaren tartea doitzeko: Ukitu pantaila handitua bi hatzez. Gero, bereizi edo elkartu hatzak, tartea doitzeko.



- Pantailako teklatuak ezin dira handitu.
- Funtzio hori aktibatzean, baliteke aplikazio jakin batzuen errendimenduari eragitea, hala nola **Telefonoa** eta **Kalkulag.** aplikazioei.

## Jakinarazpenen gogorazpenak zehaztea

Erabili funtzio hau, tartean begiratu ez dituzun jakinarazpenak ikusteko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Jakinarazpen gogorazlea**, eta, gero arrastatu **Recordar notificación** etengailua eskuinera.

Alerten artean tarte bat konfiguratzeko, ukitu **Gogorazpen tartea**.

## Pantailaren koloreak alderantzikatzea

Erabili funtzio hau, pantailaren ikusgaitasuna hobetzeko eta erabiltzaileek testua hobetu ikusten laguntzeko. Funtzio hau aktibatzean, gailuak irudi negatibo bat bistaratuko du kolore alderantzikatuekin. Koloreak alderantzikatzean, zuriaren eta beltzaren arteko kontrastea handituko da.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena**, eta, gero, aukeratu **Kolore negatiboak**.

## Kolorea doitzea

Erabili funtzio hau, koloreak bereizteko zailtasuna baduzu pantailako koloreak agertzeko modua doitzeko. Gailuak koloreak aldatuko ditu, errazago bereizteko.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Kolore egokitzea**.
- 2 Arrastatu **Kolore egokitzea** etengailua eskuinera.
- 3 Ukitu **Hasi**.
- 4 Antolatu koloretako adreiluak antzekotasun-ordenan, oinarrizko koloretik hasita.
- 5 Koloreak doitutakoan, ukitu **Egina**.  
Koloreak bereiz baditzakezu, ez da beharrezkoa izango doikuntza gehiago egitea.
- 6 Oraindik koloreak ezin baditzakezu bereizi, ukitu **Kamera** edo **Irudia**.
- 7 Arrastatu kolorea doitzeko barra ezkerrera edo eskuinera, eta ukitu **Amaitu**. Kolorea berriro doitzeko, ukitu **⋮** → **Kolorea berregokitu**.

## Flasharen jakinarazpena konfiguratzea

Konfiguratu flasha, keinu egin dezan sarrerako deiak, mezu berriak edo jakinarazpenak daudenean.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Entzumena**, eta, gero, aukeratu **Flash jakinarazpena**.

## Soinu guztiak desaktibatzea

Konfiguratu gailua, soinu guztiak desaktibatzeko, hala nola multimedia-soinuak, deietako solaskidearen ahotsa barne.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Entzumena**, eta, gero, hautatu **Itzali soinu guztiak**.

## Azpitituluen doikuntzak pertsonalizatzea

### Samsungen azpigituluak

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Entzumena** → **Samsung azpigituluak (CC)**, eta, gero, arrastatu **Azpigituluak (CC)** etengailua eskuinera.

Erabili aukera hauek:

- **Alineazioa:** Azpigituluen kokapena aldatzeko.
- **Letra:** Letra-tipoa aldatzeko.
- **Letraren tamaina:** Letra-tamaina aldatzeko.
- **Ertza:** Azpigituluetako testuaren ertza aldatzeko.
- **Letra:** Gardentasuna doitzeko eta testuaren kolorea aldatzeko.
- **Atzealdeko kolorea:** Gardentasuna doitzeko eta azpigituluen laukitxoaren atzealdeko kolorea aldatzeko.
- **Kaptura leihoa:** Gardentasuna doitzeko eta azpigituluen leihoaren kolorea aldatzeko.

## Googleren azpitoluak

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Entzumena** → **Google azpitoluak (CC)**, eta, gero, arrastatu **Google azpitoluak (CC)** etengailua eskuinera.

Erabili aukera hauek:

- **Hizkuntza:** Azpitolueterako hizkuntza hautatzeko.
- **Testu neurria:** Letra-tamaina aldatzeko.
- **Epigrafe estiloa:** Azpitoluen estiloa aldatzeko.

## Soinuaren balantzea doitzea

Konfiguratu gailua, entzungailu dual bat erabiltzean soinu-balantzea doitzeko.

Soinu-balantzea doitzeko, konektatu entzungailu dual bat gailura. Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Entzumena** → **Soinu oreka**. Arrastatu doikuntza-barra ezkerrera edo eskuinera, doitu soinu-balantzea, eta, gero, ukitu **Ezarri**.

## Audio monofonikoa erabiltzea

Konfiguratu gailua, soinu monofonikoa entzuteko audioa entzungailu bakar batekin entzutean. Modu hau erabil dezakezu entzumen-arazoak badituzu edo entzungailu bakar bat erabiltzea komenigarriagoa zaizun egoeretan.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Entzumena**, eta, gero, hautatu **Mono audioa**.

## Umeen negarraren detektagailua erabiltzea

Konfiguratu gailua, umeen negarra detektatzeko eta bibrazio bidez jakinarazteko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Entzumena** → **Haur negar detektagailua**, eta, gero, arrastatu **Haur negar detektagailua** etengailua eskuinera.

Ukitu ► soinuak detektatzeko funtzioa aktibatzen. Gailuak soinu bat detektatzen duenean, bibratu egingo du. Gailua konfiguratzeko flasharen keinua konfiguratzeko, ukitu ⋮ → **Ezarpenak**, eta, gero, aukeratu **Flash jakinarazpenak**.

## Bibrazio automatiko bidezko erantzuna erabiltzea

Konfiguratu gailua, deskargatutako aplikazioetan, hala nola jokoetan, soinuak erreproduzitutakoan bibratzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Entzumena**, eta, gero, hautatu **Haptika automatikoa**.



Gerta liteke aplikazio batzuk ez izatea bateragarriak funtzio honekin.

## Laguntza-menuak erabiltzea

### Laguntza-lasterbideen ikonoa bistaratzea

Konfiguratu gailua, laguntza-lasterbideen ikonoa bistartzeko. Ikonoa erabil dezakezu, ikonoaren laguntza-menuak ukituz aplikazio, funtzio eta doikuntzetara joateko. Kontrolatu gailua, laguntza-menuak ikonoan ukituz pantailan zehar mugitu gabe. Funtzio hau hastean, **Ukipen bakarria modua** aktibatuko da.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Gaitasun murriztua eta elkarreragi**. → **Laguntzaile menua**.
- 2 Arrastatu **Laguntzaile menua** etengailua eskuinera.  
Laguntza-lasterbideen ikonoa pantailaren beheko eskuineko aldean agertuko da.
- 3 Ukitu **Esku menderatzailea**, laguntza-lasterbideen ikonoa leku egoki batera eramateko.

### Laguntza-menuetara sartzea

Laguntza-lasterbideen ikonoa ikono mugikor gisa agertuko da, edozein pantailatik laguntza-menuetara erraz sartzeko.







Laguntza-lasterbideen ikonoa ukitzean, ikonoa zabaldu egingo da, eta laguntza-menuak ikonoan agertuko dira. Ukitu gezia gorantz edo beherantz, beste paneletara joateko, edo, mugitu pantaila gora edo behera, beste menu batzuk hautatzeko.



## Kurtsorea erabiltzea

Laguntza-menuan, ukitu **Kurtsorea**. Kurtsore bat agertuko da eta ukipen-eremu bat, eta handik pantailan kontrolatu ahalko duzu. Pantaila kontrolatu dezakezu hatzarekin ukipen-eremuan mugimendu txikiak eginez. Arrastatu hatza ukipen-eremuan, kurtsorea mugitzeko. Kurtsorearen azpiko elementuak hautatzeko ere uki dezakezu pantaila.

Erabili aukera hauek:

-  / : Elementu bat hautatzeko edo pantailan ezkerrera edo eskuinera mugitzeko.
-  / : Pantailan gora edo behera joateko.
- : Ukipen-eremua beste leku batera eramateko.
- : Ukipen-eremua ixteko.

Kurtsorearen doikuntzak aldatzeko, aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Gaitasun murriztua eta elkarreragi**. → **Laguntzaile menua**, arrastatu **Laguntzaile menua** etengailua eskuinera, eta, gero, erabili **UKIMEN TEK. ETA KURTSORE EZAR.** azpiko aukerak.



## Laguntza-menu hobetuak erabiltzea

Konfiguratu gailua, laguntza-menu hobetuak erakusteko aplikazio jakin batzuetarako. Adibidez, **Mezuak** hastean, bilatzeko eta idazteko funtzioak bistara ditzake menuak.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Gaitasun murriztua eta elkarreragi**. → **Laguntzaile menua** → **Laguntzaile osagarria**, arrastatu **Laguntzaile osagarria** etengailua eskuinera, eta, gero, hautatu aplikazioak.

## Laguntza-menuak editatzea

Funtzio hau erabil dezakezu, laguntza-lasterbideen ikonoaren menuak editatzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Gaitasun murriztua eta elkarreragi**. → **Laguntzaile menua**, arrastatu **Laguntzaile menua** menuaren etengailua eskuinera, eta, gero, ukitu **Editatu**. Menuak gehitzeko edo kentzeko, ukitu  edo .

## Pantaila piztea Air gesture funtzioarekin

Erabili Air gesture funtzioa, gailuaren goiko aldean eskua sentsorearen gainean mugituz pizteko pantaila. Botoirik sakatu gabe piztu ahalko duzu pantaila. Funtzio hau lehen aldiz erabiltzean, jarri gailua gainazal lau baten gainean edo ondo eutsi, mugitu ez dadin.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Gaitasun murriztua eta elkarreragi**. → **Air wake up**, eta, gero, arrastatu **Air wake up** etengailua eskuinera.

## Smart Scroll funtzioa erabiltzea

Konfiguratu gailua, burua edo gailua makurtuz pantaila gora edo behera mugitzeko. Funtzio hau erabil dezakezu, mezu elektronikoak edo webguneak ikusten dituzun bitartean.

Pantaila nagusian, ukitu **Ezapekak** → **Erabilgarritasuna** → **Gaitasun murriztua eta elkarreragi**. → **Korritze adimenduna**, eta, gero, arrastatu **Korritze adimenduna** etengailua eskuinera.

Erabili aukera hauek:

- **Burua inklinatzea:** Gailua konfiguratu dezakezu, burua edo gailua gora edo behera mugituz pantaila gora edo behera mugitzeko.
- **Gailua inklinatzea:** Gailua konfiguratu dezakezu, gailua atzera edo aurrera mugituz pantaila gora edo behera mugitzeko.
- **Abiadura:** Pantailaren desplazamendu-abiadura doitzeko.
- **Erantzun bisualaren pantaila:** Gailua konfiguratzeko, ikusizko erantzunaren ikono bat bistaratu dezan zure ekintza ulertzen duenean.

## Sakatzeko aukerak konfiguratzea

Pantaila luze sakatu dela jotzeko zenbat denboran sakatu behar den definitzeko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Gaitasun murriztua eta elkarreragi**.  
→ **Ukitu eta eutsi atzerapena**, eta, hautatu aukera bat.

## Interakzio-kontrolako modua erabiltzea

Aktibatu interakzio-kontrolaren modua, aplikazioak erabiltzen dituzun bitartean egiten dituzun sarrerekiko gailuaren erreakzioa mugatzeko. Erabili modu hau, beste pertsona batzuk zure datu edo multimedia-edukietarako sarbide eta kontrol mugatuak izatea nahi baduzu.

- 1 Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Gaitasun murriztua eta elkarreragi**.  
→ **Elkarreragin kontrola**.
- 2 Arrastatu **Elkarreragin kontrola** etengailua eskuinera.
- 3 Luze sakatu hasierako botoia eta bolumen-botoia beherantz aldi berean aplikazio bat erabiltzen duzun bitartean.
- 4 Doitu markoaren tamaina edo marraztu marra bat mugatu nahi duzun eremu baten inguruan.
- 5 Ukitu **Onartu**.

Gailuak eremu mugatua bistaratuko du. Pantaila ukitzen baduzu edo botoiak sakatzen badituzu, hala nola hasierako botoia, ez dute eremu horretan funtzionatuko.

Interakzioa kontrolatzeko modua desaktibatzeko, luze sakatu hasierako botoia eta bolumen-botoia beherantz aldi berean.

## Deiak erantzutea edo bukatzea

Konfiguratu deiak erantzuteko edo bukatzeko metodoa.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Deiak erantzutea eta amaitzea**.

Erabili aukera hauek:

- **Tekla nagusia sakatzea:** Gailua defintzeko, hasierako tekla sakatzean deiei erantzuteko.
- **Ahots kontrola:** Gailua konfiguratzeko, deiei erantzun ahots-komandoen bidez erantzuteko.
- **Eskua mugi gailu. gainena:** Dei bat jasotzen duzunean, mugitu eskua sentsorean, lehenik ezkerrera eta gero eskuinera, erantzuteko.
- **Energia tek. deiak amaitu:** Gailua defintzeko, hasierako tekla sakatzean deiei erantzuteko.

## Sakatze sinplearen modua erabiltzea

Konfiguratu gailua, sarrerako deiak kontrolatzeko botoia arrastatu beharrezan ukituz. Alarma batek jotzen duenean edo dei bat jasotzen duzunean, botoia arrastatu beharrezan ukitu botoia alarma geldiarazteko edo deiari erantzuteko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna**, eta, gero, hautatu **Ukipen bakarria modua**.

## Irisgarritasun-doikuntzak konfiguratzeko

### Irisgarritasun-doikuntzak fitxategi batean gordetzea

Esportatu uneko irisgarritasun-konfigurazioa fitxategi batera.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Kudeatu erabilgarritasuna** → **Inportatu/Esportatu**, hautatu esportatzeko aukera bat, eta, gero, ukitu **Egina**. Irisgarritasun-doikuntzen fitxategia hautatutako biltegiratze-kokapenean gordeko da.

## Irisgarritasun-doikuntzen fitxategi bat inportatzea

Inportatu irisgarritasun-doikuntzen fitxategi bat, eta eguneratu uneko doikuntzak.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Kudeatu erabilgarritasuna** → **Inportatu/ esportatu**, eta, gero, hautatu inportatzeko aukera bat. Hautatu inportatzeko fitxategi bat, eta ukitu **Egina**. Irisgarritasun-doikuntzak inportatutako fitxategiaren arabera eguneratuko dira.

## Irisgarritasun-doikuntzen fitxategiak partekatzea

Partekatu irisgarritasun-doikuntzen fitxategiak beste pertsona batzuekin posta elektronikoz, Wi-Fi Direct bidez, Bluetooth bidez ...

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna** → **Kudeatu erabilgarritasuna** → **Partekatu honen bidez**. Ondoren, hautatu irisgarritasun-fitxategiak, eta ukitu **Egina**. Hautatu partekatzeko metodo bat, eta jarraitu pantailako jarraibideei, fitxategiak partekatzeko.

## Irisgarritasun-zerbitzuak ikustea

Gailuan instalatuta dauden irisgarritasun-zerbitzuak ikusteko.

Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Erabilgarritasuna**, eta ikusi **SERVICES** eskura dauden irisgarritasun-zerbitzuen zerrenda.

## Beste funtzio baliagarri batzuk erabiltzea

- **S Voice erabiltzea:** **S Voice** erabil dezakezu ahots-komandoekin hainbat ekintza egiteko. Hasi **S Voice** eta egin deiak, bidali mezuak eta bistaratu zereginak. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu [S Voice](#).
- **Ahots bidez bilatzea:** Erabili ahots-komandoak web-orrietan edukiak bilatzeko. Erabili funtzio hau, mugimenduan zaudenean edo eta testua idazteko eskurik erabili ezin duzunean. Kontsultatu [Ahots bidezko bilaketa](#), xehetasun gehiago lortzeko.
- **Jakinarazpen-panela erabiltzea:** Arrastatu egoera-barra beherantz, jakinarazpen-panela irekitzeko. Dei galduak eta mezu berriak ikus ditzakezu, pantailaren distira doitu eta gauza gehiago. Ikusi [jakinarazpen-panela eta doikuntza bizkorren panela](#), xehetasun gehiago lortzeko.
- **Modu errazera aldatzea:** Modu errazak diseinu sinpleagoa eta ikono handiak erabiltzen ditu, erabiltzailearentzat esperientzia errazagoa izan dadin. Maiz erabiltzen dituzun aplikazioak edo lasterbideak gehi ditzakezu pantaila nagusian, errazago atzitzeko. Kontsultatu ["Modu errazera aldatzea"](#), xehetasun gehiago izateko.
- **Kontrol-mugimenduak erabiltzea:** Gailua eskuaren mugimenduekin edo keinuekin kontrolatzeko. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu ["Kontrol-mugimenduak"](#).
- **Hatz-marken irakurgailua erabiltzea:** Erregistratu zure hatz-markak gailuan, pantaila desblokeatzeko edo zure Samsung accounteko pasahitza egiaztatzeko. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu ["Hatz-eskanerra"](#).
- **Auto-modua erabiltzea:** Kontrolatu gailua, gidatzen ari zaren bitartean ahots-komando bidez hainbat ekintza egiteko. Deiak jaso, mezuak ikusi eta musika entzun dezakezu gailua ukitu beharrik gabe. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu ["Auto-modua"](#).
- **Kontaktueterako lasterbideak erabiltzea:** Gehitu kontaktueterako lasterbideak pantaila nagusian, deiak modu egokiagoan egiteko edo mezuak modu egokiagoan bidaltzeko. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu ["Kontaktueterako lasterbideak gehitzea pantailan nagusian"](#).
- **Ahots-grabagailua erabiltzea:** Grabatu edo erreproduzitu ahots-oharrak. Xehetasun gehiago jakiteko, kontsultatu ["Grabagailua"](#).

# Arazoak konpontzea

Samsungen zerbitzu-zentro batekin harremanetan jarri aurretik, egin proba hauekin: Baliteke egoera batzuk zure gailuan aplikatzerik ez izatea.

## Gailua pizten duzunean edo erabiltzen ari zarenean, kode hauetako bat sartzeko eskatzen dizu:

- Pasahitza: Gailua blokeatzeko funtzioa aktibatuta badago, gailuari ezarri zenion pasahitza idatzi behar duzu.
- PINa: Gailua lehen aldiz erabiltzean edo PIN kodearen eskaera aktibatuta dagoenean, SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN kodea sartu behar duzu. Funtzio hori desaktibatzeko, erabili **SIM txartela blokeatu** menua.
- PUKa: SIM edo USIM txartela blokeatuta dago; normalean, PINa behin baino gehiagotan gaizki idazteagatik gertatzen da. Idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako PUK kodea.
- PIN2: PIN 2 kodea eskatzen duen menu batera sartzen bazara, SIM edo USIM txartelarekin emandako PIN 2 kodea sartu behar duzu. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## Zure gailuan sare- edo zerbitzu-errorea ageri da

- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal liteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro. Mugitu bitartean, baliteke errore-mezuak behin baino gehiagotan bistaratzea.
- Aukera batzuetara ezin da sartu harpidetu gabe. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## Zure gailua ez da pizten

- Bateria ez badago guztiz deskargatuta, gailua ez da piztuko. Kargatu bateria erabat gailua piztu aurretik.
- Baliteke bateria ez egotea ondo sartuta. Sartu berriro bateria.
- Garbitu urre-koloreko bi kontaktuak, eta sartu berriro bateria.

## Ukipen-pantailak geldo edo desegoki erantzuten du

- Ukipen-pantailan babes-estalki bat edo aukerako osagarriak jartzen badituzu, baliteke ondo ez funtzionatzea.
- Eskularruekin edo esku zikinekin ukipen-pantaila ukituz gero edo pantaila objektu puntadunekin edo hatz-mamiekin ukituz gero, baliteke ondo ez funtzionatzea.
- Litekeena da ukipen-pantailak ongi ez funtzionatzea ingurune hezeetan edo bustitzen denean.
- Berrabiarazi gailua softwarearen behin-behineko erroreak erazteko.
- Egiaztatu gailuaren softwarea bertsio berrienekin eguneratua dagoela.
- Ukipen-pantaila marratua edo kaltetua badago, jo ezazu Samsungen zerbitzu-zentro batera.

## Gailuak ez du erantzuten edo errore larriak ditu

Gailuak ez badu erantzuten edo guztiz gelditu geratzen bada, baliteke aplikazio guztiak itxi eta gailua berrezarri edota bateria berriro sartu eta gailua piztu behar izatea, gailuak berriz funtziona dezan. Gailua izoztu egiten bada edo ez badu erantzuten, sakatu pizteko tekla eta bolumen-tekla beherantz batera gutxienez 7 segundoz, berrabiarazteko.

Arazoa ez bada konpontzen, berrezarri fabrikatik ekarritako datuak. Aplikazio-pantailan, ukitu **Ezarpenak** → **Babes kopia eta berrezarri** → **Berrezarri fabrika datuak** → **Berrezarri gailua** → **Guztiak ezabatu**. Fabrikako datuak berrezarri aurretik, gogoan izan gailuan gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopia egin behar dela.

Arazoa ez bada konpondu, jarri harremanetan Samsungen zerbitzu-zentroarekin.

## Ezin da deirik egin

- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu markatu nahi duzun telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.
- Ziurtatu telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

## Solaskideak ez dizu entzuten deia egitean

- Ziurtatu ez zarela ari mugikorraren mikrofonoa estaltzen.
- Ziurtatu mikrofonoa zure ahotik hurbil dagoela.
- Entzungailuak erabiltzen badituzu, ziurtatu behar bezala konektatuta daudela.



## Deiak egitean oihartzuna entzuten da

Doitu bolumena, bolumen-tekla sakatzuz, edo mugitu lekuz.

## Sare mugikorrak edo Internet sarri deskonektatzen dira, edo soinua kalitate txarrekoa da

- Egiaztatu ez zarela ari gailuaren barneko antena blokeatzen.
- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal liteke. Baliteke konektatzeko arazoak izatea zerbitzu-hornitzailearen oinarri-estazioan arazoren bat dagoelako. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.
- Mugitzen ari zarela gailua erabiliz gero, baliteke sare mugikorreko zerbitzuak desgaitzea, zerbitzu-hornitzailearen sareko arazoen ondorioz.

## Bateriaren ikonoa hutsik dago

Materia-maila baxua du. Kargatu berriro bateria, edo jarri beste bat.

## Bateria ez da behar bezala kargatzen (Samsungek onartutako baterietarako)

- Ziurtatu kargagailua ondo konektatuta dagoela.
- Bateriaren terminalak zikinak badaude, baliteke bateria ondo ez kargatzea edota gailua itzaltzea. Garbitu urre-koloreko bi kontaktuak, eta kargatu berriro bateria.
- Gailu batzuen bateriak ezin dira erabiltzaileak aldatzeko modukoak. Bateria aldatzeko, jo ezazu Samsungen zerbitzu-zentro batera.

## Gailua erosi nuenean baino azkarrago deskargatzen da bateria

- Temperatura altuegietan edo baxuegietan erabiliz gero, kargatzearen bizitza erabilgarria murriztu egin liteke.
- Bateria-kontsumoa handitu egiten da mezularitza-funtzioak eta zenbait aplikazio erabiliz gero (adibidez, jokoak edo Internet).
- Bateria kontsumitu egiten da, eta ohiko kargatzea laburragoa bihurtzen da denborarekin.

## Gailua bero dago

Gailua berotu egin daiteke aplikazioak denbora luzez erabiltzen badira edo energia gehiago behar duten aplikazioak erabiltzen badira. Hori normala da, eta ez du eraginik telefonoaren bizitza erabilgarrian edo errendimenduan.

## Errore-mezuak bistaratzen dira kamera abiaraztean

Gailuak nahikoa memoria eta bateria izan behar du kameraren aplikazioa erabili ahal izateko. Kamera abiaraztean errore-mezuak agertzen badira, saiatu hau egiten:

- Kargatu bateria edo jarri haren ordeztuz guztiz kargatuta dagoen beste bat.
- Eraman datuak ordenagailu batera edo ezabatu gailutik, memorian toki gehiago egiteko.
- Berrabiarazi gailua. Iradokizun hauei kasu eginda ere kameraren aplikazioarekin oraindik ere arazoak badituzu, jarri harremanetan Samsungen zerbitzu teknikoko zentro batekin.

## Argazkien kalitatea ez da aurrebistarena bezain ona

- Argazkien kalitatea aldatu egin liteke, ingurunearen eta argazkilaritza-tekniken arabera.
- Leku ilunetan, gauez edo leku itxietan argazkiak ateraz gero baliteke irudiak zarata izatea edo irudiak fokutik kanpo egotea.

## Errore-mezuak bistaratzen dira multimedia-fitxategiak irekitzean

Errore-mezuak jasotzen badituzu edo multimedia-fitxategiak irekitzen dituzunean ez badira erreproduzitzen, saiatu hauek egiten:

- Eraman datuak ordenagailu batera edo ezabatu gailutik, memorian toki gehiago egiteko.
- Egiaztatu musika-fitxategia ez duela babesten eskubide digitalen kudeaketa-sistema batek (DRM). DRMz babestua badago, egiaztatu fitxategia erreproduzitzeko beharrezkoa den lizentzia edo gakoa duzula.
- Egiaztatu gailuak fitxategi-formatuak onartzen dituela. Fitxategi-formatu bat ez bada bateragarria, hala nola DivX edo AC3, instalatu haiek onartzeko aplikazio bat. Gailuak zer fitxategi-formatu onartzen dituen jakiteko, kontsultatu [www.samsung.com](http://www.samsung.com).

- Gailuarekin ateratako argazkiak eta bideoak onartzen ditu gailuak. Baliteke beste gailu batzuekin egindako argazkiek eta bideoek ondo ez funtzionatzea.
- Zure sare-hornitzaileak edo zerbitzu osagarrien hornitzaileek baimendutako multimedia-fitxategiak onartzen ditu gailuak. Baliteke Internetetik hartutako eduki batzuek (melodiak, bideoak edota pantaila-atzealdeak) ondo ez funtzionatzea.

### **Ezin da aurkitu bluetootha darabilen beste gailurik**

- Ziurtatu beste gailuan haririk gabeko bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela.
- Ziurtatu haririk gabeko bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela konektatu nahi duzun gailuan.
- Egiaztatu gailua eta beste bluetooth gailua bluetootharen gehienezko irismen-tartearen barruan daudela (10 metro).

Ohar horiei jarraitu ondoren arazoak bere horretan badirau, jarri harremanetan Samsungen zerbitzu teknikoen zentro batekin.

### **Ez da konexiorik ezartzen gailua ordenagailu bati konektatzean**

- Egiaztatu erabiltzen ari zaren USB kablea gailuarekin bateragarria dela.
- Egiaztatu ordenagailuak behar duen kontrolagailua instalatuta eta eguneratuta dagoela.
- Windows XP erabiltzen baduzu, egiaztatu ordenagailuak Windows XP Service Pack 3 edo berriago bat instalatuta daukala.
- Egiaztatu ordenagailuak Samsung Kies edo Windows Media Player 10 edo berriago bat instalatuta daukala.

### **Gailuak ezin du aurkitu uneko kokapena**

GPS seinaleak ez dira iristen leku batzuetara; adibidez, leku itxietara. Halakoetan, konfiguratu gailua WiFi-a edo sare mugikor bat erabil dezan zure uneko kokapena bilatzeko.

## **Gailuan biltegitratutako datuak galdu egin dira**

Egin beti gailuan gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopiak. Bestela, ezingo dituzu berrezarri kaltetutako edo galdutako datuak. Samsungek ez du bere gain hartzen gailuan gordetako datuak galtzeagatiko erantzukizunik.

## **Hutsune txiki bat dago gailuaren zorroaren kanpoaldearen inguruan**

- Hutsune hori fabrikazioko nahitaezko ezaugarri bat da, eta baliteke zati batzuk mugitzea edo bibratzea eragitea.
- Denborarekin, aldean kontaktuaren ondorioz, baliteke hutsune hori apur bat handitzea.

## Adostasun-deklarazioaren laburpena

SAMSUNGek adierazten du, bere ardurapean, tresna honek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko martxoaren 9ko 99/05/EE Direktiban finkatutakoa betetzen duela; Direktiba hori 2000ko azaroaren 20ko 1890/2000 Errege Dekretuaren bidez egokitu zen espainiar estatuko legeriara.

## Copyrighta

Copyrighta © 2014 Samsung Electronics

Eskuliburu hau egile-eskubideen nazioarteko legeek babesten dute.

Debekatuta dago eskuliburu honen zatiak erreproduzitzea, banatzea, itzultzea edo bidaltzea bitarteko elektronikoko edo mekanikoko erabiliz (fotokopiak, grabaketak edo informazioa biltegiratzeko eta berreskuratzeko edozein sistema), Samsung Electronicsek alde aurretik idatzizko baimena ematen ez badu.

## Marka komertzialak

- SAMSUNG eta SAMSUNGen logotipoa Samsung Electronicsen marka erregistratuak dira.
- Bluetooth SIG, Inc.-en marka komertzial erregistratua da Bluetooth®, mundu osoan.
- WiFi Allianceren marka komertzial erregistratuak dira Wi-Fi®, Wi-Fi Protected Setup™, Wi-Fi CERTIFIED Passpoint™, Wi-Fi Direct™, Wi-Fi CERTIFIED™, eta WiFi logotipoa.
- Gainerako marka komertzialak eta egile-eskubideak beren jabeenak dira.